

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



AZPEITIA 2030

PLAN

ESTRATEGIKOA

DENON ARTEAN ETORKIZUNA

ikertalde



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
SARRERA	6
AURRE-BALDINTZAK	7
METODOLOGIA	9
IKUSPEGIA, NORABIDEA ETA BALIOAK	11
DIAGNOSTIKOA, IRAKURKETA ETA ERRONKAK ARLOZ ARLO	13
EKONOMIA	15
• DIAGNOSTIKOA	15
• IRAKURKETA	30
• PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK	35
GIZARTE-ZERBITZUAK	39
• DIAGNOSTIKOA	39
• IRAKURKETA	48
• PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK	50
PARIKIDETASUNA	53
• DIAGNOSTIKOA	53
• IRAKURKETA	57
• PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK	58
HEZKUNTZA60	
• DIAGNOSTIKOA	60
• IRAKURKETA	65
• PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK	66
EUSKARA	68
• DIAGNOSTIKOA	68
• IRAKURKETA	71
• PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK	72

KULTURA

- DIAGNOSTIKOA
- IRAKURKETA
- PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

74

74

77

79

KIROLA

- DIAGNOSTIKOA
- IRAKURKETA
- PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

81

81

83

84

ETXEBIZITZA

- DIAGNOSTIKOA
- IRAKURKETA
- PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

85

85

96

98

INGURUMENA ETA KLIMA ALDAKETA

- DIAGNOSTIKOA
- IRAKURKETA
- PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

102

102

113

115

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



AURKEZPENA

Azpeitia 2030 Plan Estrategikoak, hamar urtera begira nolako Azpeitia nahi eta irudikatzen den, eta jomuga horretara iristeko epe ertain eta luzera egin beharreko ibilbidea zein den zehaztea ditu helburu. Horretarako, Azpeitiko udalak goiburutzat daukan, Denon artean ikurrak berebiziko garrantzia hartzen du, etorkizuneko Azpeitia, modu kolektiboan definitzea eta diseinatzea baita lanketa guztia ardazten duen elementu egituratzailea. Azpeitiak dagoeneko erabat barneraturik dauka epe luzera begira jarritako herri-plangintzaren kultura, hainbat izanik orain arte abiatutako plan estrategikoak. Udalak bere egiteko moduetan erabat txertatuta duen *Azpeitia, Denon Artean*-etik, ordea, beste pauso bat emateko unea da. Denon artean egitetik denon artean, denontzako Azpeitia egiteko helburu hori udal izaerari batzeko momentua da. Hala, herri integratzaile, anitz eta batu bat irudikatzea da helburua.

2030. urtea jomuga izanik, plan honek, hausnarketa kolektibo eta parte-hartzaileetan oinarritutako herri-ikuspegi bateratua azaleratzen du. Azpeitiko herritarren, teknikarien, profesionalen, politikarien eta era anitzetako eragileen gogoetak baliatuz, etorkizuneko ikusmira komun bat definitzeko eta hura lortzeko norabide estrategikoa argitzeko asmoa gordetzen du planak. Hau da, etorkizuneko Azpeitia irudikatu eta agertoki horretara iristeko egin beharreko ibilbidea eta eman beharreko urratsak proiektatzen laguntzea ditu xede.

Herritarren eta udalerriko dinamika politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean zerikusia duten eragile nagusien gogoetak aintzat hartuta, plan estrategikoak, 2021. eta 2030. urteen artean Azpeitiko Udalak jarraituko duen jardunbidearen gidalerroak ezartzen ditu. Hortaz, Udalak aurrerantzean, arlo desberdinetan, garatuko dituen erabakitze prozesuetan lagungarriak izango zaizkion irizpideak zehazteko bokazioa du planak. Horrela, denon artean markaturiko herri-norabide estrategikoari jarraituz finkaturiko jomugaren eta Udalak indarrean jarritako politika eta ekintzen arteko koherentzia mantentzea bermatuko da.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



SARRERA

Azpeitiak baikortasunez hel diezaieke aurrera begira azaltzen zaizkion erronka anitzei, ondorengo elementuak oinarritzat hartuz:

Indarrez beteriko oinarri ekonomiko sendoek ardaztu duten udalerria dugu Azpeitia. Lehen sektoreak berebiziko garrantzia dauka herriaren egituraketan, dinamizazio, integrazio eta balio- eta nortasun-erakitze rolak jokatzen baititu. Tradizionalki, industria sektoreak, oparotasuna eta dinamikotasuna ekarri dizkio herriari. Azkenik, tokiko beharrezanez erantzuna emateko prestutasun osoa azaltzen duen, udalerriri erroturiko zerbitzuen sektore zabala ageri da.

Ekarpen guzti hauek ez dira zoriaren emaitza, denon artean egindako lanaren fruitua baizik. Herritarrek, elkarte eta eragileek, ekintzaileek, enpresa-buruek, teknikariek eta udal ordezkariak, bakoitzak bere eragin esparrutik, udalerraren mesedetan lan egiten jakin dute, herriaren garapen kolektiboarekiko borondate eta konpromezu irmoa erakutsiz.

Horrela, Azpeitia bizitasunez beteriko udalerriri inplikaturik da, gaur egun. Dinamikotasun hori da, hain zuzen ere, eragin-esparrua edozein dela ere, herriak erakusten dituen oparotasun erlatiboaren eta adierazle onen erantzule nagusia.

Aurrean dugun lanketaren sorrera eta garapenean, udal administrazioak azaldu duen erantzukizuna azpimarratu beharra dago. Denboran zehar garatu diren plangintza estrategikoez, unean-une, eragin-esparru bakoitzari loturiko erronka espezifikoak zehazten lagundu dute, premiazko esku-hartzeak burutu eta aurrerabideak ezarri. Horrela, erronka berriak agertu ahala, urratsak ematen jarraitzea ahalbideratu duten ekintzak gauzatu dira.

Hau da, hain zuzen ere, Azpeitiak erantzun beharreko ataka nagusia. Inguruneak dakartzan etengabeko aldaketekiko adi egotea, daraman herri-ibilbidean, aldaketa hauei erantzun eraginkorra emateko moldaketa eta esku-hartzeak barneratuz.

Ingurumenean, eta maila sozialean, ekonomikoan, demografikoan edota kultura, aisialdia eta kirola ulertzeko erei loturikoetan ematen ari diren etengabeko aldaketak dira, plan estrategiko berri bat eratzeraz eramaten gaituztenak. Jomugan, etorkizunera begira azaltzen diren erronka desberdinei erantzuna emateko irizpide eta itenbideen zehaztapenarekin, bizilagunen bizi-kalitatearen hobekuntza legoke.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





AURRE-BALDINTZAK

Azpeitia 2030 Plan Estrategikoaren aldez aurreko egituraketa, garapen prozesua eta egikaritzea, aurre-baldintza hauekin bat dator:

- 2030. urtera begira, Azpeitiak jarraituko duen ***norabidea argitzea***, errealitatea ulertzeko gakoa diren giltzarriak eta gune kritikoak zehaztea, erronka nagusiak detektatzea, eta hemendik aurrera burutuko den udal lanketarako lan-ildoak identifikatzea.
- Herriak aurkeztutako beharrian nagusienei ganoraz aurre egiteko lan-ildo zehatzen definizioan, norbanako ikusmirak gaindituz, Azpeitiarren interes kolektiboari so egitea, gogoeta amankomunaren bitartez ***herri-onura orokorra*** lehenetsiz.
- ***Izaera integrala eta zeharkakotasuna*** errespetatzea, zatikatutako ikuspegi partzialak gaindituz eta ahalik eta osotasun eta aniztasun maila altuena mantenduz, bai barneratutako gaiei eta arloei, zein kontuan hartutako sail eta ordezkariak dagokienez.
- Indarrean dagoen plangintza estrategikoarekiko ***koherentzia, jarraikortasuna eta osagarritasuna*** errespetatzea. Orain arte egindako ibilbidea aintzat hartu eta hura egungo testuinguru eta beharrianetara era ahalik eta aproposenean eguneratzea.
- Planaren izaera estrategikoa errespetatuz, finkatutako ***lan-ildoak*** eta hauetatik eratorritako ekimenak 2030. urteko ortzi-muga bitartean ***bideragarriak eta gauzagarriak*** direla bermatzea.
- Datorren hamarkadako udal plangintza zehazteko benetan baliagarria izango den lanabes partekatua egikaritzea, sortu daitezkeen gorabehera sozioekonomikoak eta politikoak direnak direla, kontsentsuari esker aurrera egingo duena. Finean, suerta daitezkeen aldaketen gainetik, planak bere ***balioa mantentzea***.
- Indarrean dagoen epealdian gerta daitezkeen izaera desberdineko kontingentziei eta unean-uneke beharrianen ***aldaketei aurre egiteko malgutasuna*** eta hauek planaren baitan barneratzeko gaitasuna izatea.
- Elkarlana prozedura metodologikoaren oinarrietan txertatzea. Plan estrategikoaren hausnarketan, egituraketan eta garapenean, herri-kolektiboen ahots eta nahi anitzak islatzen dituzten ***ikuspegi desberdinak*** barneratu eta ***balioan jartzea***.

Azpeitia

Denontzat

- Indarrean dauden **bestelako plan eta araudiekiko bateragarritasuna** gogoan izatea. Udaletik haragoko beste maila administratibo batzuetan onartutako lege, arautegi eta planekiko bateragarritasuna. Hala nola, sektore edo arlokako plangintza eta programa zehatzekiko lerrokatzea.
- Planak finkatutako bide-orria garatzeko erabaki-hartze prozesuetan beharrezkoak diren **bitarteko eta baliabideak xedatuko** direla ezartzea. Era berean, erabiliko diren bitarteko eta baliabideen erabilera arduratsua bermatzea. Hau da, dauden bitarteko eta baliabide sozial, material eta ekonomiko publikoekiko arretatsu izatea eta hauen erabilera egokia bultzatzea.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





METODOLOGIA

Azpeitia 2030 plan estrategikoa elkarlanean oinarritutako ikuspuntuari jarraituz egituratzen da. Hortaz, planaren ekoizpenean igarotako fase bakoitzean, ikuspegi desberdinak modu orekatuenean barneratzeko ahalegina egin da. Horrela, plan estrategikoa iritzi desberdinen aberastasunak dakarren ekarpen positiboa gordez osatzea lortu da, hein baten.

1go urratsa: *Diagnosirako azterketa dokumental eta estatistikoa*

Lehenik eta behin Azpeitiko testuingurua ulertu eta egungo errealtatearen behin behineko diagnosi orokorra egiteko, lanketan barneratu beharreko dimentsioen arloak bereizketa burutu da. Arlo bakoitzari dagokion informazioa biltzeko, adierazle anitzak arakatu dira, datu-iturri estatistiko eta dokumentaletara joaz. Horretarako, estatistika erakundeek argitaratutako datuez gain (Eustat eta INE), bestelako iturri ofizialek (Azpeitiko Udala, Iraurgi Berritzen, Gipuzkoako Foru Aldundia...) egindako argitalpenak ere baliatu dira. Horrela, sail bakoitzeko egungo irudia eskuratu eta izandako bilakaeraren berri jaso da. Gainera, Azpeitiko egoera bere testuinguruan kokatzeko, udalerriko datuak, herriaren dinamikan zerikusia duten beste maila administratiboetan bildutakoekin alderatu dira, eskualde, lurralde edota erkidego mailakoekin, alegia.

2. urratsa: *Diagnostikoaren osaketa eta irakurketaren hasiera*

Diagnostikoa osatzeko bidean, goian azaldutako informazio iturriek eskainitako informazioa ustiatzeaz gain, ekarpen kualitatibo zuzenak barneratu dira. Hain zuzen ere, lanketarako definitutako arlo bakoitzari loturiko udal sailtako ordezkari teknikoek eta udalerriko dinamikari lotutako profesionalek egindakoak. Horrenbestez, datu gordinak, egunerokotasunean herrian lanean dabilzan pertsonen ezagutza sakonak dakartzan ñabardurekin aberastu dira. Horretarako, arloak bilera erronda bat gauzatu da, elkarlanean egungo errealtatearen puzzlea osatuz. Guztira, 12 izan dira arloak arduradunekin burututako elkarrizketa bilerak. Dena den, profesional eta teknikariek egindako bilera erronda honetan, diagnosa osatzeaz gain, analisis oinarritutako irakurketa garatzeko lehendabiziko urratsak eman dira, aurrera begirako ibilbideak aurkezten dituen gakoien definizioan murgiltzeko ariketari ekinez. Herri-dinamikan eragiten duten puntu kritikoak eta giltzarriak identifikatzeaz gain, erronken zehaztapenari ere heldu zaio.

3. urratsa: *Diagnostikoaren bukatzea eta irakurketaren osaketa*

Ohiko AMIA azterketen zurruntasuna eta mardultasuna gainditzeko helburuarekin, diagnosi fasean azaldutako emaitzei etekin baliagarria ateratzeko, egungo errealtatearen eta aurrera begira ager daitezkeen noranahikoen irakurketa gurutzatua garatzeko ahalegina burutu da. Ariketa horrek, gai edo arlo bakoitzeko, Azpeitiak aurkezten dituen puntu edo gune kritikoak eta giltzarri estrategikoak identifikatzera eraman gaitu. Era berean, plangintza estrategikorako erronken zehaztapenean aurrera pausu bat eman da. Egungo errealtatearen azterketatik, etorkizunerako norabidearen diseinura igarotzeko bide horretan, udalerriaren ezagutza eta praktika zuzena duten lehen mailako informazio iturrietara jo da, hots, arlo bakoitzean zeresana duten erreferentziazko agenteengana.

Aurretik azaldutako teknikariekin eta profesionalekin burututako bilera txandari jarraipena emanez, udal ordezkari politikoekin bigarren bilera erronda bat gauzatu da. Guztira, 10 izan dira arduradun politikoekin egindako elkarrizketa bilerak. Alde batetik, arlo bakoitzeko udal gobernuko ordezkariekin eta bestetik, oposizioko ordezkariekin burutu da lanketaren fase hau. Batzuek zein besteez egindako ekarpenekin, aurretik osatutako diagnostikoari bukaera eman zaio eta teknikariekin eta profesionalekin hasitako irakurketa gurutzatua sakontzeko urrats garrantzitsu bat eman da.

4. urratsa: irakurketa bukatzea eta ildo-estrategikoen proposatzea

Azkenik, lanketa guztia modu kolektiboan osatzeko, herritarrengana jo da, 2 lan-saio burutuz. Lan-saio hauetan, herrigintzako alor desberdinetan era aktiboan diharduten gizarte eragileetako ordezkariak parte hartu dute. Guztira, 50 pertsona inguru bildu dira fase honetako 2 saioak batuz. Aurrena, lan-saio hauek, alde aurretik osatutako diagnostikoa eta irakurketa, herritarren inplikazio aktiboaren katalizatzaile diren era anitzetako eragileekin partekatzeke erabili dira. Hortaz, hauen ekarpenak jaso eta irakurketari bukaera emateko baliatu dira. Horrela, 2030. urtera begira herriak azaltzen dituen gune kritikoak, giltzarri estrategikoen eta erronka nagusien ikuspegi zabal eta osatua izatea lortu da. Dena den, lan-saio hauek aurrera begira egin beharreko ibilbidea markatuko duten lan-ildoak elkarrekin irudikatzen hasteko ere baliatu dira. Hau da, herri-eragileekin gauzatutako lanketa prozesuak, denon artean identifikatutako erronkei erantzun eraginkor eta bideragarriak emateko bideak eta aukerak zeintzuk izan daitezkeen ikusarazteko ere, erabili dira.

5. urratsa: ildo-estrategikoen fintzea

Era kolektiboan garatutako prozesutik eratorritako informazio andana findu eta harilkatzeko lanketa teknikoak, Ikertalde enpresako lantaldearen esku geratu da. Azkeneko pausu honetan, Azpeitiarrek maila teknikoan, profesionalean, politikoan eta sozialean egindako ekarpenak borobildu dira, diagnostikoaz eta irakurketaz haratago joan eta 2030. urtera arte herriak lantzeke dituen lan-ildo estrategikoak finkatuz. Aurrean dugun, Azpeitia 2030 plan estrategikoa, prozesu guztian zehar etengabe sortzen joan den fintze-lan horren emaitza da.

*Zeharkakotasunez, diagnosi eta irakurketa faseei loturiko urrats desberdinak osatzeko garaian, Azpeitiko Udalaren enkarguz, Aztiker enpresak, plan estrategikoaren harira herritarrek duten iritzia jasotzeko burututako lanaren emaitzak barneratu dira, baita ere, Elhuyar Fundazioak, gazteekin burututako prozesuetan lortutakoak.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





IKUSPEGIA, NORABIDEA ETA BALIOAK

Era honetan azaldu daiteke, Azpeitia 2030 plan estrategikoak zehazten dituen jomuga eta ibilbidearen baitan gordetzen diren herri **ikuspegia eta norabidea**:

- 2030eko Azpeitia, denontzat: Herritarren elkarlan eta parte-hartze aktiboan oinarritutako, herri euskaldun, baikor eta oparoa da. Justizia sozialean, elkarbizitzan, parekidetasunean eta jasangarritasunean aurrera pausu esanguratsuak eman dituen herria dugu, Azpeitia.

Azpeitiko herritarren ongizate-maila nabarmen hobetu da, hezkuntza, kultur dinamika eta enplegua indartzearekin batera, guztion garapen sozial eta profesionalerako aukerak zabalduz. Hartara, bizi-kalitate maila altuko udalerrria da Azpeitia.

Aurreko bide-orria berme osoz aurrera eramateko, Azpeitiak jada berezkoak dituen hainbat **balio** eraikitzaile sendotzeari ekingo zaio, hala nola, egun ezinbestekoak zaizkion balio berrien eraketari:

- Etengabe garatuz doan **elkarlana** da Azpeitiko gobernantza eredu irekia eta parte-hartzailea ezaugarritzen duen elementu egituratzailea.
- Azpeitiak daukan **herri-atxikimendu** maila altua bereizgarria da eta herritarrek Azpeitiarekiko duten inplikazioaren erakusgarri da.
- Azpeitiak, **aitzindaritza** lortu du hainbat esparrutan, gizarte eta kultura eremu desberdinetan betidanik ezagutu duen herri-ekintzailatza nabarmenari esker.
- Azpeitiaren berezko izaera markatzen duen **euskal nortasunak** funtsezko rola jokatzen du herriak azaltzen duen herri-dinamika emankorrean.
- **Parekidetasunak** eta **berdintasunak** toki zentrala dute jada Azpeitiak ortzi-mugan daukan ibilbidea zuzentzeko garaian.
- Inor bazterrean uzten ez duen **herri inklusiboa** izatera iristea aurrera begira indartzeke dagoen zutabe nagusietako bat da.
- Lurraldekoarekiko hurbiltasun zabala gakoa da **tokikotasuna** oinarri duen eredu sozioekonomikoa bultzatzeko.
- **Jasangarritasuna** abiapuntu eta jomuga bilakatu da, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik orekatua den garapen eredua ehuntzeko.

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkaririk,



DIAGNOSTIKOA, IRAKURKETA ETA ERRONKAK ARLOZ ARLO

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,





EKONOMIA

DIAGNOSTIKOA

HERRIKO EKONOMIA

- Azpeitiako lanen ia %60a zerbitzuen sektorean ematen den arren, aipagarria da industriak (%31,97) eta eraikuntzak (%6,26) gordetzen duten pisu erlatibo nabarmena (2019). Industriaren pisu erlatiboa, Gipuzkoan baino ia %10 puntu nabarmenagoa da Azpeitian.

Biztanleria landuna sektore ekonomikoaren arabera (%), 2019

Eremua	Gutxira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Azpeitia	6.646	2,05	31,97	6,26	59,72
Urola-Kosta	34.374	2,15	28,22	5,44	64,18
Gipuzkoa	315.912	0,95	22,04	5,37	71,64
EAE	943.522	1,07	18,67	5,61	74,64

Iturria: Eustat

- Azpeitian 5.754 landun daude (2019) eta 2010ko datuen aldean, %13,56ko jaitziera jazo da. Dena den, 2015az geroztik %6,46ko enplegu sorrera fase berri bati ekin zaio. Epealdi horretan, Gipuzkoan %1,01eko enplegu sorrera eman da. Gainera, 2015era arteko enplegu galeraren ondorengo errekuperazioa %7,23koa izan da.

Establezimenduetako enpleguaren bilakaera



Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzazak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Iturria: DIRAE 2020




Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

- Udalerriko lanpostu guztien %39,62 mikroenpresek sortua da (2019). Eskualdearen batz bestekoak baino ez du kopuru hau gainditzen (%40,32). Gainera, duela 10 urteko datuen aldean, Azpeitiak baino ez du bilakaera positiboa ezagutu.


Mikroenpresek (0-9) sortutako lanpostuen pisu erlatiboaren bilakaera (%)



Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza

- Pertsonako 18.500€ko errenta erabilgarria izango luke Azpeitiak (2018), Gipuzkoakoa (18.867€) eta eskualdekoa (19.181€) baino zerbait baxuagoa. Gainera, hazkundea, eremu hauetan emandakoa baino mantsoagoa da.

Errenta erabilgarriaren bilakaera (€)



Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza

- Biztanleko BPGak %12,4 egin du gora 2012a geroztik, 31.161€tan kokatuz. Hazkundearen bilakaera Gipuzkoakoa baino zorrotzagoa izan arren (%11,1), lurraldeko datuetatik (34.237€) urrun legoke oraindik.

- Udalak biztanleko 300,08€ko inbertsio garbia egiten du (2018), 2009tik %31,22ko hazkundera irudikatuz. Bitartean, Gipuzkoan %70,15eko murrizketa nabaritu da, biztanleko inbertsioan.

Inbertsio garbia biztanleko (€) eta horren bilakaera (%)

Eremua	Zerga-bilketa		Inbertsio garbia	
	2018	2009-2018	2018	2009-2018
Azpeitia	387,36	13,37	300,08	31,22
Urola-Kosta	349,63	21,35	217,69	-34,40
Gipuzkoa	364,68	19,01	82,71	-70,15
EAE	338,24	12,84	88,26	-63,56

Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





Azpeitian sektore tertziarioa nagusitzen da sortutako enplegu kopuruari dagokionez. Dena den, eskualde, lurralde edota erkidego mailan jasotako datuekin alderatuta, beste inon baino pisu erlatibo txikiagoa dauka zerbitzuen sektoreak. Kontrakoa gertatzen da ordea industria eta eraikuntzarekin. Biek ala biek, beste eremuetan baino garrantzia erlatibo handiagoa dute Azpeitian. Gainera, sektore tertziarioaren barne egongo liratekeen hainbat zerbitzu (aholkularitza eta jarraipen teknikoa, juridikoa, ekonomikoa...) ere, industriaren beharrak erantzutera bideraturik daude. Hortaz, tokiko ekonomiak, gainbalio nabarmena sortzeko gaitasuna erakutsi ohi izan duten bi sektore hauekiko lotura estuak gordetzen ditu herriko ekonomiak.

Udalerriko establezimenduek sortzen duten enplegua aztertuz gero, argi dago Azpeitia ez dela oraindik, 2008ko krisiak eztanda egin aurretik zuen enplegu mailara iritsi. 2015. urtetik aurrera etengabeko errekupeazio bat jazo den arren, enplegu berrien sorrera Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik legoke, zeina hamarkada baten, aurreko krisiko itoalditik errekupeatu den. Adierazgarria da, 2008ko krisiak eragindako enplegu gainbehera eta ondorengo errekupeazioa leunagoak izan direla Azpeitian, bertako oinarri ekonomikoaren epe-luzerako egonkortasun erlatibo handiagoaren seinale.

Bestetik, udalerriko dinamikotasun-ekonomiko endogenoaren adierazgarria izan daitekeen, mikroenpresen (9 langile edo gutxiago) garrantzia zeharo areagotu da Azpeitian 2009az geroztik. Hamar lanpostutik lau era honetako enpresek sortzen dituzte, Gipuzkoa mailan hamarretik hiru eta erdi baino ez diren bitartean. Normalean era honetako enpresak zerbitzuen sektoreari atxikitzen bazaizkio ere, Azpeitian industria arloan ere presentzia izango lukete, sektore honen udalerriko ekonomian duen pisu erlatibo altuan kontuan izanik. Hortaz, Azpeitian lurraldeari ondo erroturiko enpresa-sare oparoa aurki daiteke, ziurgabetasun garaietan suerta daitezkeen deserriratzeko prozesuen efektua murriztuz.

Oinarri ekonomiko sendoak izan arren, ezin daiteke esan, Azpeitia bere bizilagunen errenta erabilgarri altuarengatik nabarmentzen denik. Udalerria, Gipuzkoako batz bestekoen azpitik kokatzen da, errenta mailari dagokionez. Biztanleko errenta erabilgarrian dagoen aldea, are eta gehiago nabarmentzen da Urola-Kostako batz bestekoarekiko. Eskualdean badira beraz, biztanleen errenta erabilgarri askoz handiagoa erakusten duten udalerriak. Biztanleko BPGak uzten dituen datuak begiratzuz ere, azken urteetako bilakaera positiboa izanagatik, biztanle bakoitzari legokiokeen aberastasun maila ere, Gipuzkoako batz bestekotik behera kokatzen da. Ez litzateke zuzena izango beraz, Azpeitia udalerri aberats gisa kontsideratzea, ez behintzat, biztanleko batz besteko aberastasunari dagokionez.

Horrela, iragan krisiaren ondorioek izandako efektuaren epe luzerako isla, herritarren gaitasun ekonomikoetan nabaritu da. Enplegu-sorrera mantsoak, bizilagunak herritik kanpo lan egitera bultzatu ditu. Covida dela medio, poliki, baina errekupeazio bidean zegoen herri-ekonomiak beste kolpe larri bat somatu berri du. Osasun krisialdiak agerian utzi du lanaren kalitatearen eta baldintzen inguruko gabeziak ere badirela Azpeitian, biziki, gazteek eta emakumeek pairatzen dituztenak. Aurreko krisialdiari emandako irteera mota dela eta, talde hauek nozitu dituzte, gehienbat lanpostu prekarioen, ezegonkortasun sozioekonomikoaren eta kontziliaziorako aukerak murriztearen efektuak. Hortaz, jada gainean dugun krisialdi berriaren atarian ere, zaurgarriago ageri dira. Horrenbestez,

Azpeitia

Denontzat

lehenik eta behin, herri-ekonomiaren jardunak hauen beharrianak asebetetzeko lehentasuna izan beharko luke. Ikuspegi horretatik, arreta eta orientazio zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dituen, enplegu zentroak burutzen duen lana azpimarratu daiteke.

Bestalde, Azpeitiako udalak, guzti hauek burutzeko garrantzitsua izan daitekeen, inbertsiorako gaitasun oparoa erakusten du, eskualde, lurralde edota erkidego mailetan ematen dena baino nabarmenagoa. Azken hamarkadako bilakaerak, egungo errealitatea indartu baino ez du egiten. Azpeitian gora egin du biztanleko egiten den inbertsio garbiak, beste eremuetan inbertsio-murrizketak gailendu diren bitartean. Alde horretatik, ez litzateke oker egongo, finantzaketa mailan eta inbertitzeko gaitasunean Azpeitia aurretik doan udalerrria dela esatea.

Herri-ekonomia, Azpeitiarren eta bereziki premia gehien dituztenen beharrianegi begira jartzeko egiten ari den esfortzua azpimarratu beharko litzateke. Lan honetan, Udalak egindakoaz gain, Iraurgi Berritzen garapen agentziaz egindako ahalegina ere aipagarria da. Oinarri ekonomikoa eta tokiko enpresa- eta enplegu-sareak bizilagunen premien arabera moldatu eta berregituratzeko bidean, Azpeitian, tokiko lan-merkatura zuzendutako formakuntzari eta sustapenari eskainitako arreta, azpimarragarriak dira. Sustapenaren alorrean, tokiko erakundeek, ekonomiaren sozializazioa bultzatzearen aldeko apustua egin dute, emakumeen enplegarritasuna, trantsizio ekologikoa eta eredu kooperatiboa oinarritzat hartuz. Egindakoen artean, lerro hauek indartzeko laguntzak azaltzen dira, besteak beste.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



INDUSTRIA

- Azpeitian 127 industria establezimendu daude (2019). 2012. urtetik %23,49 egin du behera 2. sektoreko establezimenduen kopuruak. Jaitsiera hau Gipuzkoa mailan ematen dena baino %6 puntu zorrotzagoa da (%17,80).

Industria-establezimenduen bilakaera (%)

Eremua	2019	2012-2019
Azpeitia	127	-23,49
Gipuzkoa	4262	-17,80
EAE	10926	-19,80

Iturria: DIRCE, INE.

- 16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren datuen arabera, Azpeitian, 2.125 pertsonen egiten dute lan 2. sektorean (2019). Udalerriko landun guztién %31,97a izango lirateke industrian dihardutenak. Kopuru hau Gipuzkoakoa baino ia %10 puntu handiagoa da (%22,04). 2011. urtetik %5 puntuko jaitsiera eman da (%36,88), Gipuzkoakoa apenas %1,5 puntukoa izan den bitartean (%23,60).

Industriaren pisu erlatiboa biztanleria landun osoarekiko (%)

Eremua	2011	2019
Azpeitia	36,88	31,97
Urola-Kosta	30,66	28,22
Gipuzkoa	23,60	22,04
EAE	19,87	18,67

Iturria: Eustat.

- Gaur egun, Azpeitiako industria establezimendu bakoitzak, batzaz beste, 13,63 langile ditu. Gipuzkoan kopuru hau 15,97ra iristen da. Azpeitiaren kasuan, duela 10 urteko datuen aldean, %26,72ko beherakada adierazten da.

Industria establezimenduen batzaz besteko tamaina (langileak)


Eremua	2009	2014	2019
Azpeitia	18,6	12,99	13,63
Urola Kosta	13,6	12,04	14,03
Gipuzkoa	14,84	14,16	15,97
EAE	14,77	14,08	15,95

Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



- Azpeitian, industriak sortzen du balio erantsi osoaren %34,72a (2017). Gipuzkoa osorako datuek islatzen dutena baino %7 puntu gorago legoke udalerria. Bestetik, bilakaera orokorra ezkorra baldin bada ere, 2015etik joerak egonkortzera egin du:



Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





Azpeitiko Udal

IDAZKARITZA

Orokorrean behera egin du industria sektoreko establezimenduen kopuruak Azpeitian. Jaitsiera hau lurraldean eta erkidegoan ematen dena baino nabarmenagoa izan da gainera. 2012az geroztik, 2. sektoreko establezimenduen ia laurdena galdu da Azpeitian, beste bi eremuetan galera %20 iristen ez den bitartean.

Industriako langileen kopuruak ere beherako joera islatzen du, jaitsiera eskualdean, lurraldean eta erkidegoan ematen dena baino tenteagoa izanik. Dena den, Azpeitian, eremu hauetako edozeinetan baino landun gehiagok dihardute 2. sektorean. Azpeitiako landunen ia heren batek industria dauka jardunbide, Gipuzkoan kopurua laurden batera ere iristen ez den bitartean. Tamainari dagokionez ere, gaur egun, Azpeitiako industria establezimenduak, bataz beste, eskualdekoak, Gipuzkoakoak eta erkidegokoak baino zerbait txikiagoak dira, langile kopuruari dagokionez. Azken hamarkadan izandako bilakaera ere, beste hiru eremuetan ematen denaren aurkakoa da. Azpeitian, establezimenduen tamainak behera egiteko joera ageri duen bitartean, eskualdean, lurraldean eta erkidegoan goranzko joera apala adierazten du.

Industria sektoreak sortzen duen balio erantsiaren bilakaerari erreparatuz, beheranzko joera orokorraren baitan, egonkortasunerako zantzuak ageri dira 2015az geroztik, bai Azpeitian zein erreferentziatzko beste eremuetan. Hala ere, Azpeitian, industria sektoreak duen garrantzia, oraindik ere, gainontzeko eremuetakoa baino nabarmen handiagoa da. Zentzu honetan, sektoreak, udalerriko balio erantsi guztiaren heren bat sortzeko gaitasuna mantentzen du.

Esandako guztiarekin, azken hamarkadan, Azpeitiako industria sektorea berregokitze prozesu sakon bat bizitzen ari dela nabari da. 2008. urteko krisiak nahiko era esanguratsuan kolpatu zituen siderurgia edota zurgintza eta altzarigintza bezalako industria tradizionalak. Hori dela eta, aurretik ikusi bezala, industria establezimenduen beherakada izan da, 2. sektorean diharduen langilegoa murriztuz. Bestetik, establezimenduen tamainak ere beheranzko joera hartu du, gutxiago izanik establezimendu bakoitzean dabilzanak. Hala ere, industriak, udalerriko ekonomiaren motore nagusietakoa izaten jarraitzen du. Oraindik ere, udalerriko langileriaren herena eta sortutako balio erantsiaren herena barneratzen ditu, Azpeitiako errealitate sozioekonomikoan duen pisuaren adierazgarri.

Azpeitiako egitura ekonomikoan industriak jokatzen duen rolak berebiziko garrantzia du, sektoreak sortzen duen gainbalioak udalerriko oinarri ekonomikoa egonkortzen laguntzen baitu. Dena den, agerikoa da trantsizio bat ematen ari dela, maila desberdinei eragiten dieten, barne eta kanpo aldaketa nabarmenak medio: Industriaren izaera, ezaugarriak, tamaina, kudeaketa, ekoizpen-prozesuak, lehiakortasuna... Etengabe aldatzen diharduen agertoki honen aurrean, sektoreak moldatzen jarraitzeko gaitasuna erakutsi beharko du, baldin eta orain arte izan duen ekonomiaren orekatzaile rola gordetzea nahi badu.

Ikuspegi horretatik, Urola Industrialdea erakundeak berriki argitaratutako txosten teknikoaren arabera, Azpeitiak lurzoru eta instalazio industrialen gabezia erakusten du gaur egun. Lurzoru industrialaren %90a beteta legoke, hazkunderako marjina oso estua izanik. Gainera, udalerrian dauden 221 enpresa industrialen artean, 39 instalazioak handitu edota aldatzeko premian daude. Hau da, bertako enpresa-sarea egonkortu eta kanpotik berriak erakartzeko ekinbidean, azpiegituren egokitzapen eza nabaritzen da. Sektoreari eskatzen zaion trantsizioa ahalbideratzeko, ezinbesteko aurrebaldintza izango litzateke azpiegituren eguneratzea gauzatzea.

Azpeitia

Denontzat

Testuinguru horretan, erakunde mailan, eta bereziki, Iraurgi Berritzen eta Udalaren partetik, sektorearen aldeko lerrokatzea nabaritzen da. Herritarren ekonomia hobetzeko ikuspegiarekin, enpresen egungo beharriaz erantzuna eman eta derrigorrezko trantsizio energetikoa eta ekologikoa egikaritzeko hainbat norabideko lanburutza ari da: azpiegituren eguneratzea ematen ari da, industria-guneak eta instalazioak zaharberituz eta eremu berriak sortuz; eskualdeko heziketa profesionala berpiztu eta hura enpresen beharriaz egokitzeko ahalegina egiten ari da; emakumeak industriaren sektorerako erakartzeko lanburutza espezifikoa burutzen ari da; enpresen barne-ekintzailetza sustatzeko aukerak ematen ari dira...

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.

Udalaren idazkariak.





Azpeitia Udala

IDAZKARITZA

MERKATARITZA

- Merkataritzari zuzenean loturiko jardura duten 222 establezimendu daude Azpeitian (2020). Zentzu honetan, hamarkada baten establezimendu kopuruak %18ko galera bizi izan du. Urola-Kostan (-%20) eta Gipuzkoan (-%25) jasotako erorketa baino nahiko leunagoa izan da beraz, Azpeitian izandako galera.


Merkataritza establezimenduen bilakaera (%tan)



Iturria: Eustat

- Azken hamarkadan izandako establezimenduen jaitziera orokorra, norbanakoen ekipamenduarekin (-%19) kultura eta aisialdiarekin (-%21) eta bereziki, etxeko ekipamenduarekin (-%38) zerikusia duten establezimenduen gainbeherari sor zaio. Hauen galeraren eragina, teknologia eta komunikazio establezimenduen (%33) hazkundeari esker konpentsatu da, neurri batean.

Merkataritza azpisektoreen bilakaera %tan 2019-20 eta 2009-20



Iturria: Eustat

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua, Udalaren idazkariak,



Azken hamarkadan, merkataritza establezimenduen bilakaera ezkorra izan da Azpeitian. Establezimenduen galera dena den, ez da, antzerako udalerrietakoa bezain bestekoa izatera iritsi. Gipuzkoa mailan edota erkidegoan izan diren establezimendu galerekin alderatuz gero, Azpeitiako egoera, erlatiboki ontzat jo daiteke. Gainera, badirudi azken 5 urteetan beheranzko joeraren bizkortasuna zerbait apaldu dela, erdibideko fase berri bat islatuz. Hala ere, azken urtean jaitsierari berrekin zaio eta baliteke, oraindik neurtzeke dagoen Covidaren eraginez, joera ezkorrak berriz ere indarra hartzea.

Merkataritza-esparru jakinei dagokionez, kultur eta aisialdi establezimenduek, elikagai eta edari dende, eta norbanako eta etxeko ekipamendu saltokiek nozitu dute gehienbat azken hamarkadan izandako beherakada. Azpisektore hauen beherakadak eragindako establezimenduen galera orokorra, teknologia eta komunikazio saltokien hazkundeari esker apaldu da. Honek, argi islatzen du ohiko komertzioen nolabaiteko galera progresibo bat ematen ari dela.

Ostalaritzaren egoerari erreparatuta, nahiz eta beherakada garbia nabaritu den (-%10,5), nolabaiteko egonkortasun joera irudikatzen da, eskaintza erabat kontsolidaturik dagoela iradokiz. Jaitsiera azken urtean pilatu da bereziki, Gipuzkoan eta Urola-Kostan emandako galera gainditu baita Azpeitian. Hamarkadako beherakada, edari establezimenduetan gauzatu da bereziki, jatetxeak berdintsu mantenduz. Edozein kasutan, kontuan izan behar da, Covidaren inpaktua zeharo bortitza izaten ari dela ostalaritzan eta epe labur eta ertainera, merkataritzak izandakoaren pareko joera ezkorra piztu daitekeela.

Herri-merkataritzari espresuki helduz, orokorrean, Azpeitia egoera erlatiboki osasuntsu baten mantentzen dela baieztatu daiteke. Biztanleko dagoen merkataritza establezimenduen ratioari erreparatuz (%14,6), Urola-kostako (%11,6) eta Gipuzkoako (%11,3) kopuruak zeharo gainditzen dira. Zentzu horretan, udalerriak oinarritzko salgaien eskaintza osatua izateak (supermerkatua), fluxuen aldegitea oztopatu eta herriarren gastua herrian bertan finkatzea ahalbideratu du. Trakzio efektu horrek, bizilagunek erosketa nagusiak herrian bertan egitea ekarri du, herri-merkataritzaren jarduna erraztuz. Hortaz, noizbehinkako erosketak online egiteko ohitura progresiboki areagotzen ari den arren, eguneroko salgaiak herrian bertan erosteko ohitura oso erroturik dago, Azpeitiarren artean.

Herri-merkataritzari eragiten dion beste gai bat, errelebo ezarena da. Negozioen oinordekotza ez dago inolaz ere bermaturik eta gaur egun, errazagoa izango litzateke ondo dagoen negozio batek 2. establezimendu bat beregain hartzea, esperientziarik ez duen hasiberriak negozio baten ardura ezerezetik hartzea baino. Errelebo ezaz gain, jarrera dinamiko urriak eta aldaketak barneratzeko prestutasun mugatuak ere garrantzia hartu dute herri-merkataritzaren alorrean. Joera orokorra aurrekoa izanik, azpimarratzekoa da Azpeitian alderagarriak diren herrietan baino inplikazio maila altuagoa erakusten dutela merkatariek. Ikuspegi horretatik, aipagarria da Bertan merkatarien elkarteak burutzen ari den lana. Azpeitian orokorrean, herri-merkataritzak, kale-bizitza animatzeko funtzioan rol inportantea betetzen duela ikusarazten da.



LEHEN SEKTOREA

- 16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren datuen arabera, Azpeitian, 136 pertsonen egiten dute lan lehen sektorean (2019). Udalerriko landun guztien %2,05a izango lirateke landa jardunei loturiko lanetan dihardutenak. Kopuru hau Gipuzkoakoa baino puntu 1 altuagoa da (%0,95) eta Urola-Kostakoa baino apur bat baxuagoa (%2,15). 2011. urtetik izandako bilakaera zeharo baikorra da. Orduan, 88 ziren nekazaritza eta abeltzaintza lanetan aritzen zirenak (%1,45). Urola-Kostan %1,91a eta Gipuzkoan %0,89a ziren hurrenez hurren lehen sektoreko landunak.

Nekazaritzaren pisu erlatiboa biztanleria landun osoarekiko (%)

Eremua	2011	2019
Azpeitia	1,45	2,05
Urola-Kosta	1,91	2,15
Gipuzkoa	0,89	0,95
EAE	1,03	1,07

Iturria: Eustat.

- Azpeitian, orotara dauden establezimenduen artean, %6,82a (2019) dira lehen sektoreko jardueren loturikoak. Gipuzkoa mailan baino %3 puntu gehiago, baina Urola-kostan baino %2 puntu gutxiago. 2012ko datuak aintzat hartuz (%6,51), igoera leun bat igartzen da Azpeitiaren kasuan. Bilakaera ez da Urola-kostan ematen denaren bezain bestekoa (%8,32, 2012an), bai ordea Gipuzkoan ematen dena baino baikorragoa (%3,77, 2012an).

Lehen sektoreko establezimenduak orotara daudenekiko (%)

Eremua	2012	2019
Azpeitia	6,51	6,82
Urola-Kosta	8,32	9,04
Gipuzkoa	3,77	3,49
EAE	3,38	3,71

Iturria: Ogasuna eta Finantzak, Eusko Jaurlaritza.

- Azpeitian, lehen sektoreak balio erantsi osoaren %0,88a (2017), baino ez du sortzen. Gipuzkoa osorako datuekin (%0,68) alderaketa egiterakoan, gorago legoke Azpeitiako landa arloaren ekarpena. 2008an lehen sektoreak balio erantsiaren %0,5a baino ez zuela sortzen kontuan harturik, bilakaera positiboa ageri zaigu.
- Udalerriko lurren %5,42a (2019) artifizialki eraldatua izan da. Urola-Kostan (%4,78) baino zabalera gutxiago izango luke artifizializatu gabe geratzen den lur azalera. Alderaketa Gipuzkoarekin eginez gero, kontrakoa gertatzen da ordea, lurraldearen ia %6,87a izan baita artifizialki eraldatua.

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Landunen kopuruari begiratuz gero, Azpetiako lehen sektoreak biziberritze geldo baina iraunkorra bizi duela esan daiteke. Landunen kopuru geroz eta handiagoa da lehen sektoreko jardueretan aritzen dena. Hamarkada baten bilakaera zeharo baikorra izan da gainera, Gipuzkoan edota Urola-Kostan eman dena baino nabarmenagoa. Erlatiboki, nekazaritzak eta abeltzaintzak, gaur egun, landun gehiago erakartzen ditu Azpeitian, Gipuzkoan baino. Gainera, ikuspegi honetatik, Urola-Kostarekin garai baten izandako arrakala ere murriztuz doa, eskualdeko batz bestekoetara gerturatuz.

Nekazaritza eta abeltzaintza establezimenduek erlatiboki duten garrantziari erreparatuz, nahiz eta Urola-Kostako eskualdeko batz besteko mailara iritsi ez, Azpetiako egoera erlatiboki ona dela baieztatu daiteke. Azken urteetan zertxobait gora egin du establezimenduen pisu erlatiboak, Gipuzkoako batz bestekoetatik gora kokatuz. Honek nekazal jardueren gorakada leunarekin bat egiten du, beraz.

Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortzen duen balio erantsiari dagokionez ere, bilakaera baikorra azpimarratu beharko litzateke lehendabizi. Sektoreak sortzen duen balio erantsia %1era iristen ez baldin bada ere, joera baikorra islatzen da hamarkada baten buruan. Horrenbestez, lehen sektorearen balioa sortzeko gaitasunak, hazkunderako joera azaltzen du. Hala ere, sortutako balioa ez dator bat oraingoz, sektoreak enplegatzen dituen landunen kopuruarekin.

Artifizialki eraldatuak izan ez diren landa gunearen eta espazio naturalen azalera aztertuz, Azpeitian, Gipuzkoan baino artifizializazio maila xumeagoa ematen dela ageri da. Dena den, artifizializatu gabeko espazioaren hedadura ez da eskualde mailan dagoenaren bezain bestekoa. Adierazle honek, lehen sektoreak, hedapenerako, eskuragarri izan dezakeen azalera irudikatzeko balio diezaguke, Azpetiak, sektore honetan eskualdearekiko duen desabantaila iradokiz. Nekazaritza eta abeltzaintzarako lur emankorren gabezia somatzen da Azpeitian.

Orokorrean, landa sektoreak garapenerako abagune paregabeak aurkitzen ditu gaur egun, Azpeitian. Azoka plazaren biziberritzeari esker eta Elikagunearen sorrerari esker eratu diren ekoizpen eta kontsumo zirkuitu laburren bidetik ate berriak ireki zaizkie bertako ekoizleei. Jada eskaria eskaintza baino handiagoa da eta dinamika honekin bat egingo duten baserritar gehiagoren eta produktu berrien beharra legoke. Elikagaiak, konfiantzazkoak, kalitatezkoak eta osasuntsuak izateak, berebiziko indarra hartu du herriko jendartean eta tokiko produktuarekiko atxikimendua bizkor ari da ernaltzen.

Horrela, Azpeitian nekazaritzako elikagaien estrategia finkorik egon ez arren, Azokak berak ardatzen du geroz eta gehiago funtzio hau, behetik gorako norabide baten. Horrenbestez, era organiko baten, azoka tokiko nekazaritzaren bide-orria finkatzen ari da. Zentzu honetan, Elikagunearekin batera, azpimarratzekoa da, Enkarguk, Azoka Plaza 2.0 edota Urola gustagarri ekimenek izandako harrera beroa.

Bestalde, nekazaritzarako lurzoruen eskuragarritasunaz aparte, gaintitu beharreko galgen artean, agenda eta interes bereiztuek sortutako baserritarren arteko elkarlanerako kultura urria edota landa guneko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazio mugatua adierazi dira, besteak beste.

Azpeitia

Denontzat


Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



TURISMOA

- Sektore turistikoan, era espezifikoan jarduten duten 14 establezimendu daude Azpeitian (2020). Azkenengo hamarkadan %27,3ko gorakada nabaritu da sektoreari loturiko establezimenduen kopurua. Epealdi berean, %49,4koa izan da Urola-Kostan izandako bilakaera baikorra eta %14,4koa Gipuzkoakoa. Azpeitiko kasuan azken urtean jaso da establezimendu kopuruaren areagotzea.

Turismo establezimenduen bilakaera



Iturria: Eustat

- Izandako bilakaerari gertutik begiratzuz gero, Azpeitian turismo establezimenduek izandako igoera orokorra, hotel eta ostatuen irekierari zor zaio bereziki. Urola-Kosta eta Gipuzkoa mailan ere arrazoi bera legoke jardueraren hazkundearen atzean. Gipuzkoan bezala, Azpeitian ere zertxobait gora egin du turismo erreserba eta jarduera establezimenduen kopuruak. Desberdintasuna turismo operadore eta agentzien kopuruari dagokio beraz, zeina gutxiago jaitsi den Azpeitian Gipuzkoa eta Urola-Kosta mailan baino.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.



Azpeitia

Denontzat

Hotelak eta ostatuak, turismo operadoreak, bidai agentziak, eta erreserba eta jarduera turistikoak kudeatzen dituzten bestelako eragileak kontuan izanik, azken hamarkadan, gora egin du turismo establezimenduen kopuruak Azpeitian. Igoera hau Gipuzkoa mailan izandakoa baino nabarmenagoa da, baina Urola-Kosta eskualdeak nozitutakoa baino apalagoa. Lurralde maila guztietan izandako bilakaera positiboa, hotel eta ostatu jarduera berrien sorrerarekin dago loturik, batez ere. Orokorrean, normaltasunaren barruan ulertu beharreko datuak dira, eskualde mailako garapen ikusgarria, kostaldeko udalerrietan turismoak izandako bilakaera azkarrari zor baitzaio, nagusiki.

Autonomi erkidegoak, nazioartean eta bereziki, espainiar estatu mailan lortu duen erakargarritasun turistikoaren erakusgarri da sektoreak bizi duen hazkunde azkarra. Azpeitian, turismo establezimenduen, jardueren eta datuen bilakaera baikorra, hamarkadako azken urteetako kontua da, batez ere. Hau da, kostaldean eta batez ere hiriburuetan duela hamar bat urte nabaritzen hasi ziren hazkunderako joera, azken urteetan baino ez hasi da nabaritzen barrualdeko eremuetan.

Orokorrean, Azpeitian turismoak bilakaera mantso baina orekatua erakusten duela baieztatu daiteke. Turismoa, landa garapen eta jarduerekin, eta euskal kultura eta nortasunarekin lotutako jarduera osagarri bezala ulertzen da bertan. Dena den, ikusteke dago Covidak sektorean sortutako inpaktua luzatzearekin batera, azken urteetako bilakaera baikorra zertan gera daitekeen. Testuinguru honetan, azken urteetan abian jarri diren hainbat negozio eta proiektu bertan behera gera daitezkeela aurreikusi daiteke.

Ikusi moduan, turismoak oraingoz ez du aparteko hedapenik izan barrualdeko eremu honetan. Egun, 100 ere ez dira Azpeitian eskaintzen diren ostatu-plazak, etxebizitza turistikoaren eskaintza urria izanik. Azpeitiak balioan jartzeke dauden baliabide ugari eskaintzen ditu, euskara eta euskal nortasunari, dinamikotasun kulturalari, ondareari edota landa-paisaiari begirako eskaintza turistikoa garatzeko. Ildo horretatik, azken urteetan garatutako produktu turistikoaren kopuruak gora egin du, besteak beste, Trenaren museoa, Ignaziotar bidea, 3 tenpluen ibilbidea, 5 geldialdi historian, Izarraizko bira edota Urolako bide berdea aipatu daitezkeelarik. Loiolako santutegiaren erakarpene eta Ignaziotar urtea ate joka izatea ere, gogoan izateko abaguneak izan daitezke.

Turismoak, jarduera osagarri bezala, bide luzea izan dezakeela ulertzen da, berrikuntzak barneratuz eta beste sektoreekiko hibridazioak garatuz, beti ere, jasangarritasuna, iraunkortasuna eta kalitatea ardatz izanik. Etorkizunari begira, albo kalteak sor ditzaketen masa ikuspegi estandarizatuetatik aldentzea eta horren orde, euskal oinarrietan ardaztutako bide selektiboa hautatu izana aproposa izan daitekeela dirudi. Turismoak duen potentziala baliatzeko, erakunde mailan ematen den adostasuna, turismoarekiko kultura hain sakona ez duen jendartearen zabaltzea ere garrantzitsutzat jotzen da.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.



Herriko ekonomia (zeharkako begirada)

1. Ekonomiaren esparruan, indarrean den gobernantza eredua egokia da epe luzerako begirada gorde eta erronkei eraginkortasunez ekiteko:
 - a. Sektore ekonomiko bakoitzari eragiten dioten, maila anitzetako, erakunde eta administrazioen arteko ikuspegiak bateragarriak dira. Gainera, garatu beharreko eginkizun eta jardueren koordinazioa ere, ona da.
 - b. Arlokako mahai sektorialek (1go sektorekoak salbu) funtzionamendu egokia dute eta baliagarriak dira estrategia, plangintza eta ekintza bateratuak zehazteko.
 - c. Udalak jarrera abegikorra mantentzen du, eragile ekonomiko desberdinek mahaigaineratzen dituzten planteamenduekiko, entzute aktiboa garatuz.
2. Jarrera proaktiboan oinarritutako sustapen ekonomiko eredu integrala eratu da:
 - a. Eremu desberdinetako eragileen arteko elkarlana zutabe izanik, herritarren beharrezanek erantzuteko ikuspegia nagusitzen da. Zentzu honetan, Urolanprest bezalako programa espezifikoko abiatu eta zerbitzu konkrituak eskaintzen dira.
 - b. Tokiko ekonomia-sarearen eta herritarren beharrezanek arteko elkarguneak bilatzen dira, ahulezia handieneko eremuetan esku-hartuz. Adibidez, emakumeak industrian barneratzeko programa berezia garatu da, besteak beste.
3. Herriko ekonomiak, jatorrizko oinarri sendo eta egonkorak mantentzen ditu, nolabait:
 - a. Udalerriko enpresa-sarea lurraldean erabat erroturik dago, tokikotasunarekiko lotura azalduz eta kanpo-erabakiekiko menpekotasuna gutxituz.
 - b. Epe luzera, industriaren pisu erlatibo esanguratsuak ekonomiaren nolabaiteko iraunkortasuna dakar, tertziarioarekiko menpekotasunari loturiko ziurgabetasunak saihestuz.
4. Formakuntza eta prestakuntza sistemaren birmoldaketa prozesua garatzen ari da:
 - a. Enplegu zentro eraginkor eta funtzionala garatu da. Orientazio zerbitzu pertsonalizatuaren bitartez, premia espezifikokoak dituzten herritarren laneratzeari aurrera pausuak eman dira.
 - b. Lanbide Heziketa zentroaren berpiztea eta heziketa eskaintza bertako ekonomiaren beharrezanek erantzuna ematera bideratu izana, abantaila baliagarria bihurtu daiteke.
5. Herritarrek duten tokiko-ekonomiarekiko atxikimendua geroz eta nabarmenagoa da, eta geroz eta esparru gehiagotara hedatzeko aukerak eskaintzen ditu:
 - a. Herriko saltoki txikietan erosteko ohitura asko indartu da (bereziki, elikagaiak).
 - b. Azoka Plazak herrian bertan erosteari garrantzia eta abantailak gizarteratu ditu.
 - c. Elikaguneak bertako produktuak erosteari garrantzia balioan jarri du.

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitiko Udala

- d. Azoka Plaza 2.0 ekimenak, ekoizle-erosle mugetarik haratago joatea ahalbideratu du.

Industria

6. Udalerriko azpiegitura industrialaren eguneratzeko urratsak ematen hasi dira:
- Udalerriko industria-guneak eraberritzeko plan berezia sortu da. Honek, tokiko enpresen instalazioak hobetzea eta hauen lehiakortasuna areagotzea ahalbideratuko luke.
 - Industria-gune berrien proiektzioak (Larrin) enpresa berriak erakartzeko eta bertakoak handitzeko bidea irekiko du.

Merkataritza

7. Udalerriri eskaintzen duen erosketa-aukera areagotzeak, fluxu sozioekonomikoak bertan finkatzeko joera ekarri du:
- Udalerriri eskaintzen den merkataritza-aukera zabala eta osatua da, denetik aurkitzeko aukera egonik.
 - Herritarren erosketa-esperientzia errazteko emandako urratsak emankorrak dira. Aipatzekoa da esaterako, etxez-etxeko banaketak egiteko sortu den Enkarguk izandako harrera ona.
 - Alberdieneako hirigintza-garapen berriak aurreikusten duen lur-azpiko aparkaleku publikoa herri-merkataritza sustatzeko baliagarria suerta daiteke.

Nekazaritza

8. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea guztiz jakitun da, etorkizuneko bidea jasangarritasunaren eta ekoizpen eta merkaturatze zirkuitu laburren ildotik emango dela:
- Lehendabiziko sektorea aipatutako norabidean zuzenduz, Azpeitiko Azoka Plaza berrindartzearen aldeko apustu arrakastatsua, sustapen ekonomikorako baleko tresna modura agertzen da.
 - Azpeitiko landa sektorea aitzindaria da eta hartu duen norabidea guztiz bat dator Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) aro berriari markatutako bide-orriarekin.
 - Oraindik gehiengoa izan ez arren, zirkuitu laburren aldeko apustua egin duten baserriak eta ekoizleen konpromezu maila oso altua da.

Turismoa

9. Jarduera osagarriak garatuz, herriko oinarri ekonomikoa dibertsifikatzeko aukerak, oparoak dira oraindik:
- Udalerriri, hizkuntzari eta kulturari loturiko bestelako turismo eredu jasangarri bat abiarazteko oinarri sendoak azaltzen ditu.
 - Lurraldeak eskaintzen dituen, baliabide eta produktu turistikoaren aberastasuna ustiatu gabeko abantaila da, turismoari lotutako jarduerak berriak bultzatzeko.
 - Burdinbidearen euskal museoa eta Loiolako santutegia erakarpenera handiko baliabideak dira, turismoa suspertu eta honekin batera, beste sektore batzuei ere, bultzada emateko.



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Irakurketan azaldu bezala, bere oinarri ekonomikoaren egituraketari dagokionez, Azpeitia eraldaketa epealdi baten murgilduta dago. 2008. urtetik aurrera, zutabe ekonomiko tradizionala izan den sektore industrialak transformazio sakonak bizi ditu. Industriaren pisu erlatiboa, oraindik ere oso esanguratsua izan arren, geroz eta murriztagoa da, bai establezimendu, bai enplegu aldetik. Sektore horretako jardueraren beherakada progresiboak, udalerriko bizilagunen enpleguen kalitatea eta errenta erabilgarria zerbait murriztea, ere eragin du. Dena den, tokiko eragileen artean, hausnarketa hau jada barneratuta dago, ondorio kaltegarrienak epe luzearako begirada batekin deuseztatzeko lanketa abiatuz. Gainera, irtenbideak era proaktiboan bilatzeko ikuspegia finkatu da, jasangarritasuna jomuga izanik, balio erantsia sortzeko gaitasuna duten esparru jakin batzuen aldeko apustua eginez.

Herriko ekonomia (zeharkako begirada)

- Herriko ekonomiaren ikur izan den oinarri ekonomiko sendoa hutsune edo arrakalak antzematen hasia da:
 - Lurraldeari tradizionaliki loturiko enpresa-sarea eduki arren, lan-baldintzek okerrera egin dute azken urteetan, soldaten mugatzearekin edota azpikontratazioen gorako joerarekin, besteak beste.
 - Orokorrean gertatzen den bezalaxe, udalerriko langileek ere prekarietatearen errealitatea bizitzen dute. Hortaz, sektore produktiboa osatzen duten enpresa-eragileen konpromezu maila berrindartzea ezinbestekoa da.
- Ekonomiaren profesionalizazio eta lehiakortasun maila areagotzeko oztopo eta zailtasun desberdinak ageri dira hainbat esparrutan:
 - Lan egiteko era tradizionaletik lotura estua duten negozio-buruek, merkatariek, eta nekazariak aldaketak onartu eta barneratzeko dinamikotasun urria erakusten dute.
 - Zenbait eragilerengan, ekonomiaren digitalizazioak exigitzen dituen, antolaketa-, ekoizpen-, transformazio-, biltegiatze-, merkaturatze-, eta salmenta-prozesuetan eman beharreko eraldaketak ulertu eta barneratzeko nekezia islatzen da.
 - Ekonomiaren digitalizazioa eta trantsizio energetiko-ekologikoa garatzeko baliabide eta inbertsio funtsen desblokeatze eza.
- Balio erantsia sortzeko gaitasuna duen, teknologiari loturiko ekintzailtzak eta berrikuntzak, garapen nahiko mugatua izan du oraindino:
 - Jada lurraldean errotuta dauden enpresen barne-ekintzailtza ez da gehiegi garatu.
 - Bertako ekonomiaren indarguneekin zerikusia duten zentro teknologikoekin eta mundu akademikoarekin orain arte izandako elkarlana optimotik urrun dago.
 - Herriak berezkoa duen dinamikotasun soziokulturalak, ez du oraingoz, alor ekonomikoan, mugimendu sakonik piztarazteko gaitasunik izan.



- Sektoreen eta sektore bereko azpisektore desberdinetako sinergien eraketak eta elkarlanerako kulturak ez dute behar besteko hedapen eta garapenik izan:
 - Merkataritzaren eta ostalaritzaren barne bereizketa eta bateratze kultura txikia.
 - Turismo-eragileen eta merkataritza eta ostalaritzaren arteko zubi-lan falta.
 - Turismo-eragileen eta nekazal ekoizleen arteko elkarlanerako ohitura mugatua.
 - Azpisektore bereko eta desberdinetako baserritarren artean ematen den bereizketa eta lan bateratua egiteko joera eza.
 - Merkataritzaren eta ostalaritzaren eta nekazal ekoizleen artean dauden elkarlanerako aukeren garapen eza.

Industria

- Lurzoru industrialari eta industria azpiegiturei dagokionez, oraindik konpondu gabeko gabezia ugari ditu udalerriak:
 - Enpresa askoren instalazio eta pabilioiak zaharkiturik daude, hedapenerako aukerak urrituz.
 - Badira jarduerarik mantentzen ez duten edota hutsik dauden hainbat instalazio.
 - Udalerriko lurzoru industrialaren zatirik nabarmenena beterik dago jada, balizko ekimen berrien iritsiera zailduz.
 - Azpiegitura industrialen egokitzapen eza, lan sistema eta prozesu berriekin bat etorri ahal izatea oztopatuz.

Merkataritza

- Herri-merkataritzak, biziraupen egoeratik arnasaldi eta garapen egoera batera jauzi egiteko eragozpenak aurkitzen ditu:
 - Covid-19ak eragindako krisialdi sozioekonomikoak, arlo desberdinetako aktibitatearen behinbetiko eteteak eta negozioen itxierak bizkortzea ekar dezake.
 - Erosketak online egiteko ohiturari bertatik pentsatu eta garatutako erantzuna emateko gaitasun murrizta.
 - Negozioen oinordekotza edo erreleboa ez dago inolaz bermaturik (nekazaritza ere).
 - Herrigunearen ertz baten kokatuta egonik, alde zaharraren dinamikotasun eta merkataritza-erakargarritasun urria.

Nekazaritza

- Landa gunearen eta 1go sektorearen garapen optimora iristeko gabeziei erreparatu eta era eraginkorrean erantzuteko beharra dago:
 - Tokiko produktuen eskaintza osatzeke dago oraindik.
 - Zirkuitu laburren dinamikan barnieratzeko prest leudeken baserritarrak falta dira.
 - Landa eremuko dibertsifikazio ekonomikoa gauzatzeko, gunek aurkezten dituen aukeren eta paisaia-balioaren aprobeitxamendua nahiko mugatua da Azpeitian.
 - Nekazal-lurren galera eta eraldaketa artifiziala, eta nekazal jardueren hedapenerako edota

Azpeitia

Denontzat

jarduera berrien garapenerako lurren gabezia eta eskuragarritasun zailtasunak.

- 1go sektoreak betetzen dituen landa paisaia-egituratze eta ekonomia funtzioekiko, sentsibilizazioan sakontzeko premia nabaritzen da.

Turismoa

- Turismoak ez du oraingoz, oinarri ekonomikoa dibertsifikatzeko, jarduera osagarri gisa aurkeztu ditzakeen abantaila guztiak probestu:
 - Turismoarekiko herri-identifikazioa nahiko murrizta da. Ez dago sektore honek zabal ditzakeen aukerekiko eta ekar ditzakeen balizko onurekiko ohitura sakonegirik.
 - Ia kostaldean bertan egonagatik, herriak ez du oraindik, kostaldeko turismo fluxuen zati bat erakartzeko gaitasunik izan.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.





PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Honako hauek dira arlo ekonomiari loturiko erronka nagusiak:

Herriko ekonomia (zeharkako begirada)

1.- Ekonomiaren sozializazioa eta parekidetasuna

Herritarren zerbitzura dagoen eredu ekonomikoa irudikatu, antolatu, garatu eta indarrean jartzeko urratsak ematen jarraitzeko beharrezana nabarmentzen da. Ekonomiak herritarren beharrezan asebetezeko rola jokatu behar du, Azpeitiko bizilagunek herrian bertan lan egitea ahalbideratuz. Ikuspegi horretatik, herriko oinarri ekonomikoa sendotzeaz gain, Azpeitiar guztien bizi-baldintza duinak bermatuko lituzkeen egitura ekonomikoa bultzatzeko premia dago. Parekidetasuna abiapuntu, eredu honek arreta berezia eskaini beharko lieke, lan-munduratzeari zailtasun gehigarriak aurkitzen dituzten herritar eta gizarte taldeei, bereziki, epe luzeko langabetuei, 55 urtetik gorako langabetuei, gazteei, emakumei eta etorkinei.

- Bizilagunei, herrian bertan, bizitza proiektu egonkor eta duin bat garatzea ahalbideratuko dien enplegua mota eratzen laguntzea, balio-erantsi gehigarria sortzeko gaitasuna duten jarduerak bultzatu eta erakarriz.
- Prekarietateari aurre egin eta lan-baldintza duinen aldeko norabideari ekin, arlo publikoaren eta enpresa munduaren arteko akordioak sinatzerako orduan lan-baldintza aproposak ziurtatzeko klausulak finkatuz. Batez ere, sektore feminizatuetan hobekuntzak eragiteko ahalegina egin.
- Herritarren eta enpresen ikuspegi gurutzetatik eratorritako, tokiko beharrezan sozioekonomikoei erantzuna emateko gai den formakuntza eta prestaketa markoa egituratu.
- Elkartasuna, berdintasuna eta erabakitze-partekatua oinarri dituen enpresa ekimen kooperatiboen aldeko autua egin, bereziki, ekintzailatza endogenoari dagokionez.

2.- Gobernantza partekatua

Erakunde arteko irizpide bateratuak gordetzen dituen, herritarren beharrezanekiko sentikorra den, eta eragile ekonomiko desberdinen iritziekiko gertutasuna eta iragazkortasuna erakusten duen egungo gobernantza eredu entzutetsuari jarraipena ematea ezinbestekoa da. Egindako ibilbidean sakontzea funtsezkoa izango da, unean-une sortu daitezkeen beharrezan eta ezustekoei, denon mesedetan, era eraginkorrean erantzuteko gaitasuna lortzeko.

- Helize laukoitza (gizarte – akademia – enpresa - erakundeak) elikatzeko egitura iraunkorra eratu. Herritarren eta gizarte eragileen, heziketa eta formakuntza erakundeen, enpresa-sareen eta tokiko erakundeen komunikazio iraunkorra ahalbideratuko duen tresna eraginkorra sortu.
- Dagokien arloko erakundeekin batera egungo erakunde-arte elkar-eragitea hobetzeko neurriak jarri, mailan igoarazi beharreko iradokizunak zuzenki bideratuz (bereziki nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean).
- Udal mailan, arlo tekniko desberdinen arteko koordinazioa optimizatzeko bitartekoak garatu, ekonomiari dagozkion erabaki-hartze prozesuetan eta proiektuen garapenean, beste zailetako ikuspegiak era ahalik eta egokienean barneratzeko.



3.- **Ekonomia zirkularra, trantsizio energetiko-ekologikoa euskarri**

2030 agendak zehaztutako 17 helburuen lorpenak, herriko indar-ekonomikoen jardunaren abiapuntu eta jomuga bilakatu beharko luke. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da esanetatik ekintzetara igarotzea, udalerriko egitura ekonomikoa iraunkortasun eta jasangarritasun balioekin lerrokatuz. Ibilbide horretan funtsezkoa da, balio kate desberdinetako enpresa-sareak sentsibilizatzea, beraien jardunean sortzen dituzten inpaktu ezkorrenak ahalik eta gehien murriztu eta beraien eraginkortasuna ahalik eta gehien areagotzeko asmoz.

- Maila guztietako erakunde eta eragile publiko eta pribatuak ikuspegiak bateratu eta hauen ekinbiderako norabide lerrokatuak sortzea, elkarlanerako konpromezu irmoak garatuz.
- Sektore ekonomiko desberdinetako antolaketa-, ekoizpen-, eraldatze-, biltegiratze-, garraio-, merkaturatze-, eta salmenta-sistema eta prozesuen egokitzapen progresiboa gauzatzeko bitartekoak jartzea.
- Ekonomia berdearekin eta berrikuntza sozialarekin zerikusia duen ekintzailatza eta berrikuntza teknologikoa piztarazi, honako hauekin zerikusia duten jarduerak bultzatzeko: berrerabilgarriak, birziklatzea, berriztarriak, energia aurrezteak; mugikortasun iraunkorra; hirigintza jasangarria; zaintza aurreratua etab.
- Ikuspegi horretatik, era guztietako ekintzailentzako azpiegituren egokitze mailan ere lan egin beharra dago, besteak beste, lanerako espazio kolektibo ("coworking") publikoen edota puntako Internet hornidura bermatuz. Azpiegituz gain, ekimenak abiatzeko garaian bidelagun suertatu beharko dira gertuko erakundeak, aholkularitza zerbitzu sistema osatuak (muntaketa, kudeaketa, salmentak, komunikazioa, izapideak...) eskaintzeko aukera baloratuz.

4.- **Profesionalizazio eta lehiakortasun maila areagotu**

Egitura ekonomikoak jasaten dituen inter-dependentsiak geroz eta nabarmenagoak diren testuinguru globalean, garrantzia handia bereganatzen dute profesionalizazioak eta lehiakortasunak. Barne eta kanpo erronka anitzek aurre egiteko, nahitaezkoa da lurraldeko egitura ekonomikoa ardazten duten euskarri desberdinek, lanaren optimizazio maila ahalik eta nabarmenena lortzea, beraien, balio, baliabide, bitarteko, eta lan egiteko erak moldatuz.

- Bakarkako begiradak gaituz, balio-kate desberdinetan, elkarren arteko elkar-elikatzeak eratzea, sektore eta azpiesektore desberdinen artean eman daitezkeen sinergiak identifikatuz eta elkarlanerako bideak zabaltuz.
- Lurraldean erroturik dauden espezializazio-arloen indarguneak baliatu eta barne-ekintzailatza garatu, bertako aukerak optimizatuz.
- Beharrezko azpiegitura eta zerbitzuen eguneratzea eta kalitatezko hornidura orokortua bermatzea, eragile ekonomikoak egungo beharrezko erantzun egokia emateko.
- Tokiko ekonomia ardazten duten sektore guztien digitalizazioaren lehenbailehen eragitea.

5.- **Tokiko formakuntza eredu indartzea**

Herriaren ekonomiaren hobekuntza jomugan, tokiko enpresa-sarearen beharrezkoetara egokitutako formakuntza eta prestaketa eredu propioa antolatu eta indartzeko garaia da. Formakuntza eredu garatu eta egokitu bat izatea, ezinbesteko tresna da, lanerako aukera aproposak eskaintzeaz gain, herritar guztien gizarteratzea bermatzeko. Jada abiatu den lanketa horretan sakontzea oso



garrantzitsutzat jotzen da, baldin eta Covidak sortutako testuinguru berriak ekarriko dituen erronka sozial eta ekonomiko anitzei ziurtasunez heldu nahi bazaie.

- Heziketa zentroen, enpresen, eragile teknikoen (garapen agentzia, enplegu zentroa...) eta erakundeen arteko komunikazio egitura eta kate iraunkorrak bultzatzea.
- Prestakuntzaren alorrean, lanbide heziketa zentroarekin abiatutako elkarlana indartzea eta herritarrei tokian bertan lan-aukerak eskaintzeko baliatzea.
- Lurraldean dauden bestelako eragile akademiko eta teknikoekin egon litezkeen elkarlanerako aukerak aztertzea eta tokiko beharrianetara egokitutako sinergien eratzea.

Industria

6.- Industria eta lurzoruen transformazioa eta jardueren biziberritzea

Industria, udalerriko oinarri ekonomikoa egonkortzeko lehentasunezko sektoretzat ulertzen da. Udalerriko bizilagunei, kalitatezko lanpostuak eskaini eta ibilbide profesionala herrian bertan burutzea erraztuko lieke, bilatzen den, jarduera industrialaren berrabiatzeak. Finean, industria berri baten aldeko apustuak, herritarrei kalitatezko bizi-baldintzak izateko aukerak ematea izango luke helburu. Agerikoa denez, etorkizuneko industria horrek, garbia eta balio sortzailea beharko du izan, halaberharrez.

- Udalerriak dituen azpiegitura industrialen eguneratze eta garapena egikaritzea, 2030. urtera begira potentzialtasun osoz funtziona dezaten. Azpeitiko gune industrialen egokitzapenerako eta instalazio eta pabilioien eraberritze lanetarako oinarriak jartzea, baliabide eta bitartekoak zehaztuz.
- Lurzoru industrial berria garatu eta merkaturatzea, jada lurraldean dauden enpresei zein etor daitezkeenei, beraien negozioen hedapenerako puntako baliabide eta zerbitzuak eskainiz.
- Izaera teknologikokoa izanik, tokiko espezializazio eta trebakuntza esparruekin lotutako industria-negozio berrien barne-garapena eta kanpo-erakarpina sustatzeko lana biderkatu.

Merkataritza

7.- Herri-merkataritza babestu eta osatu

Herri-merkataritzak rol oso garrantzitsua jokatzeko du herri bizitzaren dinamizazioan eta tokiko ekonomian. Bizi dugun ziurgabetasun egoerak, hamarkada bat dela abiatutako okerrerako joera areagotu dezake, sektorearen biziraupena kolokan jarritz. Kale bizitzaren oparotasuna eta harreman eta elkartruke sozialen aberastasuna mantentzeko funtsezkotzat jo daiteke herri-merkataritza. Zentzu honetan, egungo mailari eustea eta ahal den neurrian osatzen joatea da, aurrera begirako erronka nagusia.

- Herriko merkataritza-sarea laguntzeko bitartekoak jarri, sortu daitezkeen ekimen berrien inplementazioa lagundu eta unean-unean beharrian konkretuei erantzuteko gaitasuna garatu.
- Eskariaren aldetik sortzen diren beharrian berrietara egokitzeko aukerak esploratu, bezeriaren erosketa-esperientziak hobetzeko egindako ahaleginak (Enkarguk, DENDAg...) baloratu eta baliatuz.
- Jada arazo larria bilakatu den, negozioen oinordekotza sustatzeko aukerak aztertu eta ekimen berritzaileak frogatzea.

Nekazaritza

8.- Zirkuitu laburrak lehenetsiko dituen ereduak

Azpeitiak jada berea egin duen tokikotasuneko kultura sendotzeko momentua da, azken urteetan abiatu duen bideari eutsiz eta dinamika hau, ekonomiaren azpisektore ahalik eta gehienetara zabalduz. Zirkuitu laburren aldeko olatuak nekazaritzako ekoizleen eta norbanako kontsumitzaileen arteko harremanetik haratago jauzi egiteko potentziala dauka. Hedapen prozesu horren lehen lerroan zerbitzuak, eta bereziki, tokiko merkataritza eta ostalaritza egon beharko lirateke, baina gainontzeko sektoreetan ere zeresana izango luke.

- Jada nabaritzen hasi den herritarren kontzientziazio maila indartu, bai nekazaritzan zein beste arloetan, tokiko ekoizpen eta merkaturatzearekin bat egitea bizi-kalitatearen hobekuntzarekin lotuz.
- Baserritar gehiago erakartzea Okm-ko ekoizpen eta merkaturatze zirkuitu laburren dinamikara.
- Tokiko produktuen ekoizpena eta eskaintza indartzea eta osatzea, zain dagoen bezeriaren beharrianak asetzeko asmoz.
- Gorantz doan, tokiko produktuen kontsumorako ohitura indartzea, "from farm to fork" kultura oinarritzat hartuz.
- Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lur emankorrenak balizko hirigintza-garapenetatik babestea.
- Egungo ekoizpena moldatu, osatu eta zabaltzeko dauden lur eskuragarritasun arazoei irtenbidea emateko urratsak ematen hastea.
- Bertako ekoizleek eskaintako produktu berriak ezagutarazi eta balioan jartzea, Urola gustagarri bezalako ekimenak baloratuz.
- Jasangarritasunaren eta kontsumo zirkuitu laburren aldeko apustua egiten duen Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) aro programatiko berriak irekitzen dituen aukerak aprobetxatzea.

Turismoa

9.- Turismoa oinarri ekonomikoaren dibertsifikaziorako bidelagun

Beti ere, udalerriko egitura ekonomikoaren oinarri diren sektore eta jardueren garrantzia gordez, hauek egiten duten ekarpen sozioekonomikoa osatuko duten jarduera osagarriei arreta jartzeko beharra azalarazten da. Helburua, herriko ehun-sozial eta ekonomiko propioa desitxuratu gabe, eskura dauden baliabide eta aukerei ihes egiten ez ustea izango litzateke.

- Euskal nortasunari, kultur sormenari, ondareari edota paisaiari lotutako baliabide material eta immaterialak balioan jarri eta hauen ustiaketa edo erabilera-ekonomiko jasangarria eta arduratsua egitea.
- Burdinbidearen Euskal Museoak eta Loiolako santutegiak izan dezaketen erakarpina baliatu, bertaraten diren bisitariak herrigunera bideratzeko estrategiak garatuz eta horretarako bitartekoak jarritz. Tren museoen eta santutegiaren eta herrigunearen arteko loturak sendotzea, alegia.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



GIZARTE-ZERBITZUAK


DIAGNOSTIKOA

BILAKAERA

DEMOGRAFIKOA

- Azpeitiak 15.220 biztanle ditu 2020an. Haietatik, 7.549 (% 49,6) emakumeak dira, eta 7.671 (% 50,4), gizonak.
- Biztanleriak hazkunde handia izan du azken 10 urteetan: % 8,5ekoa.
- Eskualdeko herri nagusia da Azpeitia. Urolako azpieskualdeko biztanleriaren % 47,4 hartzen du, eta Urola-Kosta eskualdeko biztanleriaren % 20.
- Gipuzkoak baino biztanleria-dentsitate txikiagoa du: 220 biztanle km²-ko. Bietan ere gora egin du dentsitateak azken 10 urteetan.

EAEko biztanleria-dentsitatea, lurralde-eremuaren eta urtearen arabera



Biztanleen Udal Estatistika, urtarilaren 1ean.

- Biztanleriaren egitura Gipuzkoakoaren antzekoa da: % 21ek 20 urte baino gutxiago du, % 58k 20 eta 64 urte bitartean, eta ia % 22k 64 urte baino gehiago
- Zahartze-indizea 2010eko % 16tik 2020ko % 21,75era igo da.
- Gainzahartze-indizea (74 urtetik gorakoak) % 9,5ekoa zen 2017an (guztira 1.409 biztanle ziren). 2010ean, berriz, % 8,4koa zen (1.209 biztanle).
- Emakumeen artean gertatzen da batez ere gainzahartzea (% 57,5). Sexu-ratioa nabarmen alderantzikatzen da adinaren arabera, beraz: 0,95ekoa da 75 urteraino, eta 1,35ekoa adin horretatik aurrera.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,

Azpeitiko Udala

IDAZKARIA

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





Ongizate-zerbitzuetan diagnostiko eguneratu eta zehatza egin dute joera soziodemografiko nagusiei buruz eta zerbitzu horien onuradun diren pertsona eta familiengan joera horiek sorrazten dituzten eragin eta beharrei buruz¹. Hala, 2031ra arteko ikerketa egin dute, biztanleriak zer bilakaera izan duen eta etorkizuneko premiei erantzuteko zer baliabide beharko diren jakiteko.

Biztanleria hazteko eta dentsitatea handitzeko joera ikusita, zerbitzuak etengabe eguneratzeko beharra dagoela ematen du: zerbitzu gehiago eta espezializatuak behar dira, biztanleriaren eta horren beharren egiturazko aldaketa gertatzen den kolektiboetan. Premia nagusi hauek, bereziki, 80 urtetik gorako pertsonen eragiten diete.

Batez ere, hirugarren adineko herritarrek beharko dituzte zerbitzu horiek, biztanleriak zahartzeko duen joera ikusita. Hauek dira ondorio nagusiak:

- Aurreikuspenen arabera, 2031n 15.894 biztanle izango dira Azpeitian. 2018an baino %7,5 gehiago.
- 2031n heriotza tasa gordina %9,3koa izatea espero da, 2019an, %9koa izanik.
- 65 urtetik gorako biztanleak 3075 izatetik 3914 izatera igarotzea espero da, 2018 eta 2031 bitartean. Hau da, %27ko hazkundera izatea.
- 65 urtetik gorako biztanleak Azpeitiko biztanleen % 20,8 ziren 2018an. 2031n berriz, %24,6 izan daitezke.
- 75 urtetik gorako biztanleak 1439 izatetik 2005 izatera igarotzea espero da, 2018 eta 2031 bitartean. Hau da, % 39ko hazkundera izatea.
- 65 urtetik gorako emakumeen ehunekoa egonkor mantenduko da 2031n. Gutxi gorabehera, %54 izango dira, 2018an %55a izanik.
- 80 urtetik gorako emakumeen ehunekoak nagusi izaten jarraituko du (%58), baina 2018an baino gutxiago (%63).
- Adina medio, mendekotasuna duten pertsonen kopurua 2018an 522 izatetik, 2031n 691 izatera igaroko da, hau da, %32,5 gehiago.
- Balizko Zaintzaileen Indizea murriztu daiteke, 2018an 2,2 izatetik 2031n 1,8 izatera.
- Kalkuluen arabera, bakarrik bizi diren pertsonen tasa %1,1 igo daiteke 10 urterik behin. Hortaz, 2018an %35 izatetik 2031n %37 izatera pasako liratekeela, gutxi gorabehera.

Txostenaren arabera, Azpeitiak egoitza plazen defizita agertzen du: egun 101 dira zerbitzu horren beharra duten Azpeitiarrak, plazak ordea, 86 baino ez dira. Hau da, ez dago behar beste plaza, mendekotasuna duten adineko pertsona guztiak artatzeko. Aldaketa demografikoen eragin nagusietako bat, adineko herritarrentzako arreta eta zerbitzu gehigarrien beharrezana da.

Datozen erronkei eraginkortasunez heltzeko, udalak elkarlanerako hitzarmen bat sinatu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Hitzarmen honek, egun Azpeitiak islatzen dituen gizarte zerbitzuen beharrezan detektatzea bilatzen du lehendabizi. Bigarren urrats baten, azterketa horrek adierazitako emaitzekin, tokiko premiei erantzuteko prest egongo liratekeen irtenbideak bilatzea da helburua. Mendekotasuna duten adinekoei dagokionez, hitzarmenak ez du bere horretan, egoitza plazen zehaztapenik egiten, nahiz eta, gai hau ere barneratzen duen.

¹ Azpeitiko Adinekoen Beharrak. Analisi Prospektiboa 2031. SIIS Gizarte-Ikerketa eta -Informazio Zerbitzua. 2020.

Azpeitia

Denontzat

Mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako, eguneko zentro eta bestelako zerbitzu mota batzuk ondo beteta daudela ageri da. Indargune gisa, hauskortasun-egoeran dauden eta mendetasunen bat duten 3. adineko pertsonen laguntzeko sortutako eguneko unitatea nabarmentzen da.

Hala ere, eguneko unitate horretatik harago, beharrezkoa da adinekoen jarraipena egiteko eta etxeko laguntza eskaintzeko sistema bat antolatzea. Lana, batez ere, 70 urte edo gehiago dituzten biztanleekin burutu behar da. Pertsona horien bizi-baldintza orokorrak hobetzen lagundu behar da, adibidez, bakardade-egoerei aurre eginez eta eguneroko beharrak kudeatzeko gaitasunak garatuz. Horrekin batera, beñe egoeraren eta bilakaera emozionalaren kudeaketa ere barneratu beharko litzateke. Ekimena, prestazio-programatik kanpo dauden pertsonen zuzendutako litzateke.

Egun, gai horri heltzeko ekintza zehatzak definitzen ari dira, hala nola arreta soziosanitarioko eta gizarte-arretako erdi-mailako lanbide-heziketako zikloetako ikasleei zuzendutako praktika-sistema bat.

Esku hartzea eskatzen duen beste asistentzia-mota bat tutoretzapeko etxebizitzetarako plaza gehiago egokitzea da. Gaur egun, bost solairuko eraikin bat dago, behar asistentzialen arabera banatua: hirugarren adinekoak, tratatu txarren biktimak, egoera arriskutsuak eta gizarte-bazterketako egoerak. Eraikina eraberritu eta birgaitu egin da, baina ez dirudi nahikoa denik dauden beharrak asetzeko.

Eguneko zentroa eta mendekotasunerako asistentzia ondo instalita daudela uste da. Indargunetzat hartzen da egoera ahulean dauden eta mendekotasunen bat duten adinekoei laguntza emateko eguneko unitatea.

Nolanahi ere, gai horren inguruko ekintzak zehazten ari dira. Ekintza horietako bat praktika-sistema bat martxan jartzea da lanbide-heziketako arreta soziosanitarioko eta gizarte-arretako erdi-mailako zikloetako ikasleentzat.


Aurretik esandakoekin batera ezin ahaztu daiteke, etxeko zaintzaren errealitatea. Gaur gaurkoz, ez dago dimentsioa hau barneratzen duen udalerrri mailako azterketarik. Ezinbestekoa da, feminizatua eta ezkutukoa den sektore hau formalki aitortzea, bai zerbitzuaren onuradunei zein bereziki, hura emateaz arduratzen diren emakume immigranteei begira. Orduan baino ezingo da zaintzaren gaineko irudi osatu bat eduki eta publikoki esku hartu.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



HEZKUNTZA ETA LANA

- Biztanleen % 22,1ek goi-mailako ikasketak ditu (goi-mailakoak eta goi-erdiko mailakoak). Gipuzkoan, indize hori handixeagoa da: % 25,4koa. Bigarren mailako ikasketetan ere, txikiagoa da Azpeitiko ehunekoa: 19,5ekoa, eta % 21,5ekoa Gipuzkoan.
- Azpeitiko 5.754 herritarrek dute lanpostua. Kopuru hori % 15 txikiagoa da 2010ekoarekin alderatuta. Dena den, 2015etik aurrera susperraldia izan du enpleguak urtez urte. Hala, 2015etik 2019ra bitartean, % 6,5 hazi da enplegua.
- Bai enplegu-galera eta bai ondorengo susperraldia Gipuzkoan baino motelagoak izan dira. 2019an, lurraldeak 2010eko enplegu guztia berreskuratu du jada (+% 1), eta 2015etik aurrera indar handiagoz hazi da (% 7,2).



Enpleguaren bilakaera Azpeitian eta Gipuzkoan

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Iturria: 2020ko JEGIDa

- Azpeitiko langabezia-tasa % 7,6koa izan zen 2019an. Gipuzkoako tasa (% 8,8) baino pixka bat hobea izan zen. 2008-2009ko finantza-krisiaren eragina jasan ondoren, lurraldean baino positiboagoa izan da bilakaera.

Langabezia-tasaren bilakaera Azpeitian eta Gipuzkoan

Azpeitia


Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitia Udalak

IDAZKARITZA



Iturriak: EUSTAT eta Lanbide (2020ko 1go hiruhilekoa).

- Sexuaren arabera, ordea, desoreka handia dago langabezia-tasan: emakumeen artean % 13koa da, eta gizonen artean, berriz, % 7,7koa, 2020ko lehen hiruhilekoan.

COVID-19aren krisia heldu arte, langabezia-tasa bereziki txikia zen Azpeitiko herritarren artean. Hala, langabezian zeuden kolektiboen profil bereziki ahulak eta laneratzeko zailtasun handiak zituzten.

COVIDa bitarteko, langabezia-tasak gora egin du berrir, % 36 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2020ko hirugarren hiruhilekoaren artean. Hauek dira kaltetuenak:

- Sexuaren arabera: gizonak (+% 52).
- Adinaren arabera: 25 urtetik beherakoak (+% 83).
- Jarduera ekonomikoaren arabera: Nekazaritza (+% 70), Garraioa (+% 57), Merkataritza eta Ostalaritza (+% 54).
- Lanbide-taldearen arabera: makina-operadoreak (+% 62), nekazaritza (+% 60) eta laguntza-teknikariak eta -profesionalak (+% 58).

Hezkuntza, enplegu eta langabezia ratioek antzeko joera dute Azpeitian eta Gipuzkoan. Hala ere, nolabaiteko geldialdia hautematen da Azpeitiko enpresetan enplegu-sorrerari dagokionez, gainerako lurraldearekin alderatuta. Era berean, generoaren araberako desoreka ikusten da laneratzeko orduan.

Egun oinarritzko ikasketak baino ez dituzten bizilagunak, epe luzeko langabetuak eta 55 urtetik gorako langabetuak dira, herrian, laguntza premia nabarmenenak dituzten kolektiboak. Hala ere, egungo laguntza sistema, oinarritzko beharrezan asebetezko zailtasunak dituen edozein pertsona asistitzeko pentsatua dago.

Gauzak horrela, gizarte-zerbitzuetan ekimen batzuk jarri dituzte abian lan-munduratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzat. Biztanleria talde honen zati handi batek pertsonak zaintzen egiten du lan, baina langile horiek batzuetan ez dute oinarritzko titulaziorik lanbidea modu arautuan betetzeko. Guzti hau gogoan, herriko erdigunean ekipamendu bat prestatzen ari dira, profilak zehaztuz eta langile horiei bideratutako ikastaroak antolatuz. Lan-eskema hori martxan jartzea garrantzitsua da herritar horien laneratzeko hobetzeko.

Helburua, bazterketa-arriskuan dauden herritarrentzat, lan egokiak eta kalitate handienekoak aurkitzea da. Horretarako, haien kualifikazio-profilak, dauden aukera eta posibilitateetara egokitu behar dira.

Azpeitia

Denontzat

Azken urteotan, gizarte beharrian larrei erantzun bateratua emateko asmoz, gizarte eragileekin batera garatzen den elkarlana indartu da. Elkarlan hau lan-munduratzearen ikuspegitik osatzeko, garapen agentziarekin eta lanbiderekin batera enplegua zentroa sortu da, behar duten pertsonen, lan-orientazio zerbitzua eskainiz. Era berean, herriaren erdigunean (Basazabal Zentroa), ikastaro profil eta beharrian zehatzei erantzuteko ekipamendu berri bat eratu da.

Arriskuan dauden familietako adin txikikoentzako jardunari dagokionez, hiru faseko protokoloa ezarri da, beharrezko esku-hartzearen mailaren arabera:

- Arazoak eskolan aurkitu eta prebenitzea.
- Udalak esku hartzea laguntzaile eta psikologo batekin.
- Adin txikikoa Foru Aldundiaren esku-hartzeko zerbitzuetara bideratzea.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,



MENDEKOTASUNA ETA LAGUNTZAK

- 2019-12-31ra arte, gizarte-larrialdiko laguntza hauek banatu ziren: 621 herritarrentzako guztizko laguntzak eta 445entzako diru-laguntzak. Emakumeek jasotzen dute guztizko laguntzen % 68 eta diru-laguntzen % 59.
- 2019-12-31ra bitartean, mendeko 96 pertsona artatu zituen etxez etxeko laguntza-zerbitzuak. Haietatik 61 emakumeak izan ziren, 2018an baino bi gehiago. Mendeko pertsonen tasa milako 34 pertsonakoa izan zen (41 emakumeen artean), Gipuzkoakoa (22) eta Urola Kostakoa (24) baino handiagoa.


Menpekotasuna duten adinekoak. Gizarte-zerbitzuen erabilera, graduaren arabera (2019/12/31)

	Pertsona kopurua				Gradu bakoitzeko %tan			
	1 gradua	2 gradua	3 gradua	Guztira	1 gradua	2 gradua	3 gradua	Guztira
Zerbitzurik ez	43	10	4	57	19,5%	6,2%	3,5%	11,5%
Zaintza zerbitzuren bat	172	148	109	429	77,8%	91,9%	96,5%	86,7%
<i>Zerbitzu 1</i>	147	115	84	346	66,5%	71,4%	74,3%	69,9%
<i>2 zerbitzu</i>	18	26	22	66	8,1%	16,1%	19,5%	13,3%
<i>3 zerbitzu</i>	7	7	3	17	3,2%	4,3%	2,7%	3,4%
Zerbitzu osagarriak soilik	6	3	0	9	2,7%	1,9%	0,0%	1,8%
Guztira	221	161	113	495	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte politika departamentua. Azpeitiko adinekoen beharrak

Oharra: Zaintza zerbitzuak dira: egoitza, eguneko zentroa, etxez etxeko laguntza, FIZPE eta LPPE. Zerbitzu osagarriak dira laguntza teknikoak, egonaldi laburrak egoitzetan, tutoretza zerbitzua eta kotizazio gabeko pentsioak.

- Azpeitiko **274** familiak kobratzen dute DSBEa (2020ko irailean). Jasotzaileen artean, emakumeak gehiago dira gizonak baino. Espainiatik (EAE barne), Magrebetik eta Hego Amerikatik datozen herritarrak dira onuradunak.



Azpeitian DSBEa jasotzen duten biztanleak, sexuaren eta jatorriaren arabera

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





gizona.

Iturria:
Lanbide

- Bestalde, 858 lagunek jaso dute langabeziako sorospena 2020ko irailera arte. Haietatik % 45 emakumea da, eta % 55, gizona.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.

Iturria: Lanbide

Azpeitian biltzen dira eskualdeko mendeko pertsonen arreta emateko zerbitzu gehienak. Era berean, orientazio egokia du sexuaren arabera eskaintako baliabideetan, mendeko pertsonen artean dauden sexu-ratioak kontuan hartuta.

Ekintza eta prestazioen bidez eskaintako baliabideek ondo estaltzen dituzte Udalaren gizarte-zerbitzuek antzemandako beharrak. Etorkizunean, baliabide horiek berrantolatu egin beharko dira, egoitzako asistentzia hobetzeko, prestaziorik jasotzen ez duten mendeko pertsonen zaintza kudeatzeko eta tutoretzapeko etxebizitzetako plaza-kopurua handitzeko.

Udalak laguntza batzuk jarri ditu azken urteotan herritarren eskura, Eusko Jaurlaritzak eta GFAK eskaintakoen osagarriak. Laguntza-eskaintza hori bereizgarri bat da beste udal batzuen aldean, oinarritzko gizarte-beharrak eta etxebizitza-beharrak asetzeko politikari dagokionez. Adibidez, etxebizitza-arloan, 250 euroko ohiko laguntzak 400 eurora handitu dira zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat, hala nola gazteentzat eta 70 urtetik gorakoentzat.

COVID-19aren egoerak argitara atera ditu mendeko herritarrentzako tratamenduaren eta baliabideen aldetik dauden gabeziak, aurreko plangintza estrategikoetan hain agerikoak ez zirenak. Alokairua ordaintzeko zailtasunek ere etxebizitzaren arloko beharrak azaleratu dituzte. Gaur egun, gizarte-larrialdiko laguntzen bidez estaltzen dira premia horiek.

Azkenik, ez dago kalean bizi diren pertsonen arazoa konpontzeko bitartekorik. Alde batetik, arazo horrek garrantzi txikia duelako Azpeitian eta eskualdean. Eta, beste aldetik, tokiko arazoa soilik ez

Azpeitia

Denontzat

delako; aitzitik, gaueko zentro bat sortzeko eskualde-mailako adostasunaren zain dago, Aldundiarekiko obligazioak betetzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,




MIGRAZIOA

K

- 2020an, EAetik kanpo etorritako 895 biztanle eta atzeritik etorritako 1.443 biztanle ditu Azpeitiak.
- Atzeritarren ehunekoa % 9,5koa da Azpeitian, eta % 11koa Gipuzkoan. Ehuneko hori igoz joan da azken urteotan; hala, 2010ean % 6koa zen.

Atzeritarren ehunekoaren bilakaera. Udalerriko biztanleriaren gaineko %-a



Iturria: Biztanleen Udal Estatistika.

- Nazionalitateari erreparatuta, hauek dira atzeritarren jatorrizko herrialde nagusiak: Maroko (% 25,5), Pakistan (% 14,6), Portugal (% 7,6), Errumania (% 7,2), Aljeria (% 6,1), Nikaragua (% 5,5) eta Txile (% 4,6). *Iturria: Azpeitiko Udala, 2017ko apirila.*
- Nazionalitate-taldeen arabera, berriz, honako hau da banaketa, 2017an: Afrika iparraldea-Magreb (% 32,3), EB (% 19), Latinoamerika (% 22,3), Asia (% 14,9), Europako beste herrialde batzuk (% 3) eta Afrikako beste herrialde batzuk (% 2,7).
- Migratzaile atzeritarren artean gehiago dira gizonak (% 55) emakumeak (% 45) baino.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Arrazoi desberdinengatik, biztanleria migratzailea arretagune nagusien artean baneratzen da. Biztanle migratzaileen kopuruak hazteko joera nabarmena du, eta, hazkunde horrekin batera, beste hainbat arazo sortzen dira: lan-merkatuan sartzeko zailtasunak —hezkuntza-maila eta tituluak balioztatzeke zailtasunak—, genero-berdintasunari lotutako arazoak —komunitate batzuetan, emakumeak familia zaindu beharra dauka— eta gizarte-orekari lotutako arazoak etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, besteak beste.

Komunitate horietako batzuetan, gizonak dira gehientsuenak.

Dena dela, herritar horien taldeak heterogeneoak izaten dira. Hala, Latinoamerikako etorkinentzat eta, neurri batean, Europako beste herrialde batzuetakoentzat, errazagoa da Azpeitiko komunitatean gizarteratzea eta laneratzea, honako arrazoi hauek direla eta: kualifikazio handiagoa, partekatutako kultura-osagaiak eta hizkuntza.

Heldu beharreko erronka espezifikoak ere badira, bereziki, Afrikatik eta Asiatik etorritako herritarren zati bati dagokionez. Arrazoiak: kualifikazio txikia, gizon eta emakumeen arteko zereginen banaketa eta bestelako parekidetasun gaiak, eta hizkuntzarekiko zailtasunak. Kolektibo horien artean emakumeak ahalduentzeko behar sendoa sumatzen da.

Bestalde, hezkuntza sisteman desoreka sortzen hasi da, etorkinen banaketari dagokionez. Sare publikoan, itunpeko ikasketa zentroetan baino, kanpoko jatorriko ikasle gehiago dago. Honek aurrera begira, problematika sozial gehigarriak sor ditzake. Ahalegina egin behar da, etorri berrien eskolaratzea, zentro mota desberdinen artea, era orekatu baten eman dadin.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

1. Ondo finkatutako lan- eta zerbitzu-eredu bat dago, herritarren beharrei eraginkortasunez erantzuten diena, batez ere zailtasun handienak dituzten herritarren beharrei.
 - Lan egiteko ikuspegia: herritarrengandik hurbila, familiekin harreman zuzen eta estuan oinarritua, haien beharrei egokitua eta lehen mailako arretarekin koordinatua.
 - Dagoeneko finkatuta dauden jarduketa-protokoloak daude zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat, hala nola adin txikiko babesgabeak dituzten familietan esku hartzeko jarduketa-protokoloa.
2. Askotariko baliabide espezializatuen hornidura handia dago, eta, horiei esker, dauden problematika eta kolektibo desberdinek nahikoa estaldura ona dute.
3. Udal-laguntza- eta prestazio-sistema zabala dago hirugarren adinekoak, migratzaileak, etxebizitza eta bazterketa artatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta GFAk finantzatutako prestazioa osatu eta handitu ere egiten duena.
4. Biztanleria zahartzearen arazoak datozen urteotan ekarriko duen funtsezko erronkaren aurrean:
 - a. Jarraipenerako eta ekintzarako hitzarmen bat eratu da Foru Aldundiarekin, etorkizunean mendekotasunarekin loturiko beharrianak eta egoitza-beharrak kudeatzeko. Gaur egun dauden egoitza-plazen arazoa bideratu da.
 - b. ... eta zerbitzu eta unitate osagarriak, esaterako 3. adinerako eguneko unitatea.
 - c. Lankidetzeta estua dago profesionalak prestatzeko, tokiko hezkuntza-sistemearekin sinergiak sortuz. Adibidez, lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak ematen dituzten zentroekin, ikasleen praktiken barruan adinekoen arrisku- eta bakardade-egoerei arreta emateko.
 - d. Aniztasuna kudeatzeko lanpostu tekniko bat sortu da, besteak beste, immigrazioak planteatutako erronkei irtenbide egokiak bilatzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat



GUNE KRITIKOAK

- Gizarte-zerbitzuen sistema sendoa izan arren, hobetzeko moduko alderdiak daude, sortzen ari diren premia berriei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei hobeto erantzuteko:
 - Ezkutuan jarraitzen duten etxeko zaintza lanak eta langileak aitortzea, ekonomia formalera, ekimen publikotik ekarriz.
 - Tutoretzapeko etxebizitzetako plaza-kopurua handitzea.
 - Hirugarren adineko eta mendeko pertsonentzako egoitzako plaza-kopurua handitzea.
 - Prestazioak eta bestelako zerbitzuak eskatu ohi dituzten adinekoen jarraipena hobetzea.
 - Eskualde-mailako lankidetza hobea lortzea, kalean bizi diren pertsonentzat eskualde-mailako gaueko zentro bat eraikitzeke.
- Kanpoko jatorriko biztanleen hazkunde bizkorra ematen ari da. Hainbat erronka sortu dira honekin lotuta:
 - Kolektibo honetako herritarren lan-munduratzeko zailtasuna.
 - Ekitaterik eza eta parekotasun falta emakumeen gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez.
 - Aniztasunari loturiko erronka desberdinei era integralean erantzuteko gaitasun mugatua. Dena den, arazo hau, aniztasun teknikari baten kontratazioarekin arinduko da.
- Nahiz eta krisiaren eragina gaur egun lurraldeko beste udalerri batzuetan baino txikiagoa izan, honako arlo hauek jorratu beharko lirateke:
 - Krisiak familia ahulenetan duen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa.
 - Arazo handienak dituzten kolektiboak laneratzea, eta bazterketa-arriskuan dauden herritarren lan-kualifikazioko sistemak hobetzea.
- Udalerri inklusiboa izatera iristeko, oraindik ere, ibilbide luze dago egiteke. Aniztasun funtzionalaren gaia zerbait zokoratuta gelditu dela dirudi. Herria eta bailara zertxobait atzeratuta doaz gai honetan. Hobetzeko aukerak aztertu eta martxan jartzeko beharra dago.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,





PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Azpeitiko gizarte-zerbitzuen arloan planteatzen diren erronkak atalka tratatzeko beharra dagoen arren, ezin daiteke ahaztu ikuspegi bateratua jarraitzen duen gizarte-zerbitzuen politika integrala garatzea dela erronka espezifikoak era egokian aurrera eramatea ahalbideratuko duen gakoa. Zentzu horretan, jada burutu den hausnarketa gogoan izatea eta hura etengabe (sortzen diren beharrezan arabera) berregokitzeko gaitasuna lantzea presente izan beharreko elementuak dira.

1.- Adinekoen beharretara egokitutako gizarte-zerbitzuak eta -baliabideak (bilakaera demografikoa)

Prestazioen eta arretaren maila handia da. Besteak beste, kontuan hartzen dira dagoeneko bai bilakaera demografikoa eta bai emakumeek zaharkitutako biztanleriaren gainean duten pisu gero eta handiagoa. Hala ere, bilakaera demografiko horrek hainbat ekimen eskatzen ditu udalerrian:

- Adinekoen arretarako plaza-kopurua egokitzea. Plaza gehiago sortu eta dauden plazak kudeatzeko ereduak aldatzea, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko. Horretarako, beharrezkoa da Foru Aldundiarekin dagoen lankidetzaren indartzea, besteak beste, egoitza plaza berriak sortzeko.
- Tutoretzapeko etxebizitzetako plaza-kopurua handitzea, dagoen eskariari erantzuteko. Horri esker, dauden plazak arloka banatu ahal izango dira, sortzen diren premien arabera.
- Nahitaezkoa da hirugarren adineko eta mendeko herritarren jarraipena egiteko sistema egituratua ezartzea. Horren oinarria izan daiteke lanbide-heziketako zentroekin lankidetzaren sistema bat edo gizarte-zerbitzuekin elkar hartuta jardungo duten boluntarioak aktibatzearen eskema bat.
- Zahartze goiztiarraren ondorio kaltegarrienak prebenitzeko jardueraren eskema bat abian jartzea: kirolak, irakurketa, gizarte-harremanak sustatzea, kultura- eta gizarte-eztabaidetan integratzea. Pertsonen autonomia ahalik eta gehien luzatzea ekar dezaketen bitartekoetan eta baliabideetan inbertitzea da gakoa, mendekotasun egoera beranduago eta era hobeto azaldu dadin. Alde horretatik, garrantzitsua da eguneko unitatearekin jarraitzea eta ahal den neurrian zerbitzua indartzea.
- Etxeko zaintza aitortu eta alde publikotik erregularizatzea. Lehenik eta behin, errealitatearen benetako pisua ezagutzeko udalerrin mailako azterketa burutu beharko litzateke. Horrela zerbitzuaren onuradunen eta emaitzen zentsua osatuko litzateke, lan-baldintzen errealitatea ere argitara ekarri. Hortik abiatuta, egoerak erregularizatu eta lan-baldintza duinak bermatzeko neurri espezifikoak hartu beharko lirateke (lan-orduak, hobariak, etenaldiak, homologazioa, formakuntza...).

2.- Pobrezia eta bazterketa sozioekonomikoa erazteak

Gizarte-prestazio propioak eta besterenak —Eusko Jaurlaritzarenak eta abar— kudeatzeko sistema egituratua dago. Lehen helburua da, beraz, eskema horri eustea. Udalak bikoiztu egiten du maila orokorrean eskaintzen diren laguntzen kopurua, erronka nagusia beraz, laguntza eta prestazio bide-orri propio horri jarraiera ematea da.

Hala ere, bazterketa-arriskuan dauden biztanleak gizarteratzeko ekintzak behar dira:

- Jada indarrean dagoen, bazterketa-arriskuan dauden eta laneratzeko arazoak dituzten herritarrek trebatzeko kualifikazio-ikastaro sistemari jarraipena ematea.



- Herriar guztien integrazioa eta oreka ekonomikoa errazteko oinarritzko urrats gisa sortutako gizarteratze eskolaren bitartez garatzen den lanketa ahalik eta gehien sendotzea.
- Udalerriko pobrezia buruzko azterlana. Azterketa horrek, beharrianak zeintzuk diren eta baliabideak ondo bideratuta ote dauden jakitea ahalbideratuko luke, emaitzen arabera neurri eraginkorrak hartzea erraztuz. Prestazioen banaketari eta hauen erabilera egokiari buruzko analisia barneratuko luke, zuzenketak eta hobekuntzak barneratuz, udalerriaren garapen orekatuaren alde, zerbitzu ahalik eta eraginkorrena eskaintzeko.
- Hirugarren sektore sozialaren parte diren gizarte eragileekin dagoen harremana sendotu eta elkarlanerako bide berriak eraikitzea.

3.- Kanpoko jatorriko biztanleriaren integrazioa

Azpeitian bizi diren migratzaileen gaineko diagnostikoaren arabera, gero eta etorkin gehiago daude udalerrian. Herriar horiei arreta emateko neurriak jarri behar dira orain.

- Integrazio eta harrera plana garatzea, zeinak, ikuspegi sistemiko bat ezarri eta aurrera begira beharreko politika eta ekimenei koherentzia bat emango lieken.
- Aniztasuna kudeatzeko lanpostua sortzeak etorkinen etorreran izandako hazkunde azkarrarekin bat datozen arazoak konpontzen lagunduko du. Arduradunak, hainbat arlotako jarduketak koordinatu beharko ditu, besteak beste, pobrezia, etxebizitzaren kalitatearen eta laneratzearen eta gizarteratzearen inguruan eraginez.
- Euskara etorkinen integrazioarako mekanismoa da. Erronka horren aurrean, plan bat eratu behar da kolektibo horiek euskararen ikaskuntzara eta erabilera erakartzeko.
- Kultura eta kirola kanpoko jatorriko pertsonen integrazioarako baliabide aproposak izan daitezke baldin eta migrazioa eta alor hauek propio uztartzen dituen begirada eta planteamendu espezifiko bat garatzen bada. Hori da hain zuzen ere, alor honetan eginbeharreko lanketa nagusietako bat.

4.- Aniztasun funtzionala duten pertsonen udalerrirako inkusioa

Aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako laguntza sistema osatu bat existitzen da. Hala ere, pertsona hauek laguntza-hartzaile soiltzat kontsideratzeari utzi eta beraien autonomia bere osotasunean garatzeko zeharkako begirada bat ezartzeko unea da.

- Ideia, planteamendu eta beharrianen elkartrukeko foro egonkor bat eratzeko beharra adierazten da. Helburu horrekin, aniztasun funtzionalaren mahaia eratu ahalko litzateke.
- Ardura duten eragile guztiak bateratu eta gaia zeharkako ikuspegi batetatik lantzea da gakoa, irigarritasunari, kulturari, hezkuntzari, kirolari, aisialdiari, lan-munduratzeari, eta bestelako dimentsioei ere, alde inklusibotik helduz.
- Kolektibo horrekiko prestakuntza edo sentsibilizazioa indartzeko beharra dago; izan ere, zuzenean harekin bizi diren pertsonen edota prestakuntza dutenen jarrera irekiagoa, naturalagoa eta positiboagoa da, eguneroko jardueretan integrazioa erraztuz.
- Eredu edo espazio komunetan ere, aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrianak kontuan hartzea ahalgaita burutzea funtsezkoa da, bai ergonomiari dagokionez (egokitzapena, irigarritasuna...), bai maila kognitiboari dagokionez (argibideak, kartelak...).
- Aisialdi eta kirol baliabideak eta jarduerak aniztasun funtzionala duten kideak barneratzeko moldatzeko premia azalarazten da.
- Aipatzekoa da, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gautena elkarrekin kudeatu eta erabiliko dituen

lokal batzuk utzi dizkiola. Bertan eguneko zentro bat eta etxebizitzak garatuko dira.

5.- Bestelako dependentzia eta gizarte beharrianak artatzea

- Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari eta horiek familiengan eta pertsonengan dituzten eraginei buruzko azterketa bat egitea komenigarria izango litzateke, bigarren urrats batean aurkitutako arazoei Ekintza Plan baten bidez heltzeko.
- Haur eta gazteen hazkunde orekatua: eskolekin eta gazte-erakundeekin batera, garrantzitsua da haurtzaroari eta nerabezaroari informazioa eta laguntza emateko eskuhartze-proiektu bat abian jartzea, hainbat arazoren aurrean, hala nola harremanak, parekotasuna, alkohol- eta droga-kontsumoa, sare sozialak eta jokia eta apustuak.
- Babesik gabeko adingabeak: dagoeneko diseinatu diren hiru fasetan jarri behar dira martxan babes-protokoloak, eta Azpeitiko gizarte-zerbitzuek eta Aldundiak esku hartu behar dute esku-hartze premien balorazioak muturrekoagoak diren kasuetan.
- Mendekotasunik ez duten adineko pertsonen beharrianekiko gertutasuna erakusten duen herria izateari eutsi behar zaio. Adinekoen eta hauen eta gizarteko gainontzeko taldeen arteko elkartrukerako espazio eta aukerak irekiz. Arreta berezia eskaini beharko zaio isolamendu eta barkardadearen gaiari.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalararen "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalararen idazkariak,



PAREKIDETASUNA

DIAGNOSTIKOA

BILAKAERA

DEMOGRAFIKOA

- Azpeitiak 15.220 biztanle ditu 2020an: 7.549 emakume (% 49,6) eta 7.671 gizon (% 50,4).
- Gainzahartze-indizea (74 urtetik gorakoena) 9,5ean zegoen 2017an; hau da, 1.409 lagun ziren. 2010ean, berriz, % 8,4an kokatu zen —1.209 lagun—.
- Gainzahartzeak emakumeei eragiten die batez ere —% 57,5 dira—, eta sexu-ratioa alderantzikatuta dago, argi eta garbi: 0,95ekoa da adin horretara bitartekoena eta 1,35ekoa 75 urtetik gorakoena.
- Goi-mailako ikasketak (goi-mailakoak + erdi- eta goi-mailakoak) dituzten biztanleak % 22,1 dira, Gipuzkoakoak (% 25,4) baino zertxobait gutxiago. Bigarren mailako ikasketetan ere txikiagoa da proportzioa: % 19,5ekoa Azpeitian eta % 21,5ekoa Gipuzkoan.
- 2019an, 5.754 langile zeuden. Beraz, 2010eko kopuruekin alderatuta, % 15eko beherakada gertatu zen, nahiz eta 2015etik aurrera urtean-urtean gora egin apur bat: 2015aren eta 2019aren artean, % 6,5 hazi zen.
- Langabezia-tasan desoreka handia dago sexuen artean: emakume langabeak % 9,4 dira eta gizonak % 6. Eta emakumeen muturreko zaurgarritasun ekonomikoa ere agerikoa da, diru-sarrerak bermatzeko laguntzen hartzaileak ere andrazkoak direlako gehiago. Halere, emakumeek pisu txikiagoa dute langabezia-prestazioetan; hain zuzen, prekaritaterako eta lanpostu informaletarako joera handiagoa dutelako.
- Kalkuluen arabera, 2019ko abenduaren 31n 96 lagunek dute etxeko laguntza-zerbitzuarekiko mendekotasuna —61 emakumeak dira—, 2018an baino 2 pertsona gehiagok. Mendetasuna dutenen tasa, beraz, milako 34 lagunekoa da (41ekoa emakumeengan), handiagoa Gipuzkoakoa (22koa) eta Urola Kostakoa (24koa) baino.



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udaltzaz 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

Langabezia-prestazioak kobratzen dituztenak eta DSBEn kobratzen dutenak Azpeitian, sexuen

Azpeitia

Denontzat

arabera

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzako 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.



Iturria: Lanbide

Europa iparraldeko herrialdeetan ere ohikoa den egiturazko genero desoreka adierazten digute kopuru makro horiek. Erakundeek eta eragile ezberdinek, urtean daramatzate adierazle horiek aldatzeko ahaleginetan lanean, batzuetan bakoitza bere lan eremuan eta beste batzuetan aldiz elkarlanean. Azpeitia horren adibide da, Azpeitiko Udalak urteak baitaramatza berdintasun politikak sustatzen, eta mugimendu feministarekin elkarlanerako zubiak eraikitzen, Emakumeen Mahaiaren bitartez.

Tokiko jardunari buruzko adierazle horiek eta beste batzuk (eta horien inguruan gauzatutako politikak eta ekintzak) operazionalizatzearen bidez argiago ikusiko dugu Azpeitiaren egoera. Kasu honetan, Azpeitiko udaleko Parekidetasun Sailarekin egindako elkarriketaren bidez lortu dugu informazioa.

DINAMIKA ETA PARTE-HARTZEA UDALERRIAN

Azpeitiko Udalak urtean daramatza berdintasun politikak sustatzen, bai zeharkako izaera dutenak, eta baita espezifikoak dutenak ere, azken horiek bereziki emakumeek gaur egun oraindik pairatzen dituzten desoreka egoera horiek desagerraraztera bideratuak.

Azken urteotan, Udalaren ildo estrategiko bat izan da emakumeen parte hartzea indartzea, eta horretarako ahalduzko prozesuak sustatzea lehentasuna izan da. Norabide horretan pausu garrantzitsuak eman dira. 2011 urtean Emakumeen txokoa ireki zen, kolektibo ezberdinetako emakumeen ahalduzko prozesuak sustatzeko gunea. Azken urteotan bultzada handia eman zaio bertako teknikari eta dinamizatzaile kopurua handitzearen bitartez, eta baita bertako zerbitzu eta baliabideak indartzearen bitartez. Emaitza modura:

Herrian aurrerapauso handiak egin dira parekidetasunean oinarritutako parte-hartzea eta lana sustatzeko dinamikan. Proiektu ezberdinak martxan jarri dira, eta guztietan emakumeen ahalduzko eta parte hartzea lehentasunezko ardatz izan dira. Hezkuntza Komunitatean hezkidetzatza txertatzea helburu duen Hezkidetzatza Programa azpimarratu dezakegu, Eskolekin eta Hezkuntza ez formaleko eragileekin elkarlanean garatzen dena.

Herriko eragile asko ari dira emakumeen ahalduzkoan sakontzen arlo ezberdinetan gainera. Nabarmenezkoa da, bereziki, hirugarren adinekoak aktibatzeke egin den lana; eskulanean, jostintzaren eta yogaren inguruko tailerrak antolatu dira, adin-talde horretako jendea aktibatzeke

diseinatutako beste hainbat eta hainbat jardueraz gain. Zentzu horretan, azpimarragarriak dira erretiratuen Baigera elkarteak antolatutako aktibatze- eta ahalduntze-ekintzak.

Kirolean handia da emakumeen parte-hartzea, eta goraka doa. Hain zuzen, Azpeitian abiatu ziren emakumeen artean kirola sustatzeko gaur egun EAEko udalerrietan ohikoak diren jardura batzuk.

Arazoak

Mugimendu feministak eta emakumeen elkartegintzak urte askotan egindako sentsibilizazio lanari esker emakumeak kulturalki maskulinizatuak izan diren sektoreetan parte hartzen ari dira gero eta indar handiagoarekin, eta gero eta sektore gehiagotan. Hala ere oraindik ere emakumeen esku jarraitzen dute zaintza lanek eta horrek erabat baldintzatzen du parte hartze hori.

Hori dela eta, ordainpeko jardueretan sartzekotan, etxeko lanekin eta zaintza-jarduerekin bateragarri egitea emakumeen ardura izatean jarraitzen du. Egoera hori aldatu ezean, zaila izango da aurrerapauso nabarmenik egitea desberdintasunak deuseztatze bidean.

GAIA LEHENESTEA

Parakidetasun Sailak esku-hartze eraginkorra izango badu, aurrena, gaiak, gizarte aldaketarako mekanismo gisa duen indarraren garrantzia aintzat hartu behar du. Lehenik eta behin, emakume eta gizonen arteko egiturazko desorekak daudela onartu behar da. Eta, bigarrenik, baldintza egokietan jarduteko aukera eta beharra aintzatetsi behar da.

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, Udalek ardura handia dute emakume eta gizonen berdintasun politikak sustatzen. Azken urteotan, Azpeitiko Udalak aurrera pausu handik eman ditu norabide horretan. Alabaina, aintzatespen horrek, osoa izateko, jada lantzen ari diren elementu batzuen sakontzea exigitzen du:

- Aliantza politiko eta teknikoak.
- Udal-sail guztien koordinaziorako lan guneak.
- Zehaztutako planak eta ekintzak bideratzeko baliabideak, hala pertsonen alorrean nola aurrekontu erabilgarrienean.
- Arazoari zeharkako begirada eskaintzea. Onartzea berdintasunaren arazoa konpontzekotan batera aritu behar dugula, sail eta gizarte-sektore ugari elkar hartuta. Eta, beraz, baterako parte-hartze eta ardura horretatik landu behar direla proiektuak.

Baliabideetan eman den gorakada sendoa izan den arren, oraindik ez da lortu, berdintasun-planen ebaluaziorik egitea. Edonola ere, ebaluazio informal batean oinarrituz esan liteke urrats handiak eman direla udalaren jarduketan. Nabarmengarria da, bereziki, mainstreaming estrategiaren abiatzearekin batera eman diren urratsak, batik bat prozedura administratiboetan genero ikuspegia txertatzera bideratuak. Hala ere etorkizunerako erronka nagusi bat izango da lan guzti hau planifikatu eta sistematizatzea.

GENERO INDARKERIA

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



2020an, genero-indarkeriako 7 kasu identifikatu dira. Hala ere uste da errealitatea larriagoa dela, eta genero indarkeriaren eragina hori baino handiagoa dela: kasu ugari daudela salaketarik gabe eta laguntza-eskaerarik gabe.

Garrantzitsua da kolektibo ezberdinetan genero indarkeriak dituen ezaugarritzeak kontuan hartzea, prebentzio, arreta eta erreparaziorako esku hartze eraginkor bat diseinatzeko.

HEZKUNTZA

Hezkidetza Programa integrala da arlo honetan esku hartzeko **zutabe nagusietako bat**:

- 2008an martxan jarritako programa da. Tratu onak oinarri dituen programa da eta Hezkuntza komunitate osoan garatzen da. Ikasleak dira eskuhartzearen ardatza, baina guraso eta irakasleekin ere lan egiten da.
- LH6tik Batxilergo lehenengo maila arteko eragileekin lan egiten da.
- Sexuen hezkuntza, hezkidetza eta tratu onak lantzen dira.
- Hezkuntza komunitatea hezkidetzaille bihurtzeko baliabideak eskaini eta lan dinamika komunak adosteko lan guinea Hezkidetza Foroa da.
- Neska gazteen ahalduntzea sustatzeko auto-antolaketa taldeak martxan jartzen dira ikasturtez ikasturte.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udaltzatzen 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

Jendarte parekide bat eraikitzen joateko ezinbestekoa da Azpeitiko Udalak berdintasun politikak sustatzea bi norabide hauetan:

- Emakumeen ahalduntzea bermatuko duten politika espezifikokoak: Emakume Txokoa indartzea estrategiakoa izango da, eta horretarako bertan eskaintzen diren zerbitzuak indartzen jarraitu behar da, kolektibo ezberdinetako emakumeak ahalduntzeko.
- Genero ikuspegia txertatzen joatea Udaleko beste sailetan. Horretarako mainstreaming estrategia txertatzen jarraitu beharko da, era planifikatu eta sistematizatu batean. Alde batetik prozedura administratibo orokorretan genero ikuspegia txertatu dadin, eta beste alde batetik bakoitzaren arloko politikan genero ikuspegia kontuan hartu dezaten.



GUNE KRITIKOAK

1. Emakume eta gizonen parekidetasun eza gaur egungo jendartearen arazo bezala ez identifikatzea. Udalak egindako lanari esker lortutako aurrerapenak oso garrantzitsuak badira ere, helburuak erdibidean daude oraindik. Giza baliabideak eta diru-baliabideak indartu behar dira, eta sailen arteko lankidetzak eta hori lortzeko ekinbide politikoa indartu behar dira.
2. Harreman-eredu ez-parekideak betikotzea: emakumearen karga areagotu egin da, aurrez kulturalki gizonezkoei zegozkien jardueretan sartzearen ondorioz, euren gain daudenak banatu gabe. "Zaintza sistema"-ren inguruko hausnarketa bultzatzea, eta aldaketak txertatzea ezinbestekoa da.
3. Genero-indarkeria ikusgarri egitea, egoera, itxura, fase eta intentsitate guztietan. Kolektibo ezberdinetan duen ezaugarritzeak kontuan izanda esku hartze integral bat diseinatzea.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





Azpeitiko Udala

PLANGINTZA ESTRATEGIKOAKO ERRONKAK

Alor honetako irizpide-egituratzailatzat eta eginbeharreko nagusitzat jotzen da, parekidetasuna zeharkako ikuspegi batetatik ulertu, landu eta garatzeko erronka. Hortaz, parekidetasunak printzipio-zuzentzaile bat izan beharko luke Azpeitiko aurrera begirako ibilbidean eta egitekoen garapenean, edozein alorretako (ekonomikoan, gizarte, zerbitzuetan, gazterian, kulturean...) plangintzan presente egonez.

1.- Genero-berdintasunari balioa emateko dinamika sortzea

Parekidetasunaren beharra ikusarazteko dinamika bat sortzea eta sektore guztietako sail, erakunde eta elkarten artean lankidetzan oinarritutako zeharkako jarduketa bat gauzatzea. Kontzientzia sortzeko, esparru hauetan esku hartu behar da:

- politikoa
- teknikoa
- lan-munduan
- jendartearen (norbanakoak, gazte-taldeak, talde soziokulturalak, kirol taldeak, ekintzaileak...)

2.- Udal-plangintza genero-berdintasunean oinarritzea

Garrantzitsua izango da gaur egun genero-ikuspegia aintzat hartzen ez duten sailen plangintzetan eta jardueretan genero ikuspegia kontuan hartzea. Estrategikoa da ulertzea egiturazko ezberdintasunaren aurrean itxuraz neutroa den jokabidea badugu berdintasunik eza sustatzen jarraitzen dugula. Plangintza hau eraikitzeari dagokionez, garrantzitsuena, asmo oneko parte-hartze asistentzial batetik, eredu egituratu eta planifikatu batera igarotzea da.

Alde batetik prozedura administratibo orokorretan genero ikuspegia txertatu beharko da, eta beste alde batetik bakoitzaren arloko politiketan genero ikuspegia kontuan hartu. Norabide honetan martxan dauden programa ezberdinak mantendu eta indartzeaz gain, beste batzuk abiatu beharko dira. Gaur egun erronka garrantzitsu baten aurrean gaude eta urgentziaz erantzun egoki bat diseinatu beharko da: indarrean dagoen "Zaintza sistema"-ren inguruko hausnarketa bultzatzea, eta aldaketak txertatzea.

3.- Matxismoa eta genero-indarkeria bistaratzea eta esku-hartzea

Matxismoari eta genero-indarkeriari loturiko errealitateak eremu guztietan bistaratzeko ekimena abiatzea. Gainera, eremu bakoitzari egokitutako plangintza eta burutzapen espezifikoak beharko lirateke. Hauen artean, hezkidetzaren programari eutsi beharko zaio prebentzioan jokatzeko duen papera aitortuz.

Kolektibo guztien matxismo-agerpenetan esku hartzeko dinamika aldatzea. Laguntzan oinarritutako dinamika gaindituz, dinamika proaktiboagoa jorratzea, emakumeen ahalduntze eta harreman-

aukerak sustatzeko; adibidez, alfabetatze-ikastaroen, irakurketa-lantegien, oinarrizko eskubideen gaineko eztabaiden eta abarren bidez.

4.- Emakumeen Txokoaren jarduera indartzea

- Zerbitzua gutxi erabiltzen duten emakume-kolektiboetara iritsiz.
- Ahalduntzea bilatzen duten bestelako aholkularitza-zerbitzu batzuk eskainiz: psikologikoa, adibidez.
- Gizarte Zerbitzuen Sailarekin harreman koordinatuak eta egonkorrak ezarriz, eta, aldi berean, parekidetasun Sailak berak diseinatzen dituen zerbitzuak indartuz.
-

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua, Udalaren idazkariak,



HEZKUNTZA

DIAGNOSTIKOA

Azpeitiko hezkuntza-eskaintza nahiko zabala da, eta ikastetxe publiko (4) eta pribatu (3) hauek osatzen dute:

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak, titulartasunaren arabera

IKASTETXEAK	Titulartasuna
AZPEITIKO IKASTOLA-KARMELO ETXEGARAI HLHI	Publikoa
IRAURGI HLBHIP	Pribatua
JUAN DE ANTXIETA MEPR	Pribatua
AZPEITIKO IKASTOLA-IKASBERRI KOOP. HLBHIP	Pribatua
UROLA IKASTOLA AZKOITIA-AZPEITIA BHI	Publikoa
AZPEITIKO HAURRESKOLA-UZTARO PHE	Publikoa
AZPEITIKO HAURRESKOLA-URRESTILLA PHE	Publikoa

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

Gainera, musika-kontserbatorioaren eta helduentzako hezkuntzaren eskaintza aipatu behar da.

Zentro horiek, gainera, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-maila guztiak hartzen dituzte barne:

Azpeitiko hezkuntza-eskaintza

	Hezkuntza-eskaintza
Haur Hezkuntza	5 zentro
Lehen Hezkuntza	3 zentro
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	3 zentro
Batxilergoa	3 zentro
Erdi Mailako Heziketa Zikloak	4 zentro
Goi Mailako Heziketa Zikloak	Zentro bat

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

Azken ikasturtean (2018-2019) 2.950 matrikulazio erregistratu ziren Azpeitian. Hau da, % 3,1 handitu zen matrikulazio-kopurua 2010-2011 ikasturtearekin alderatuta.

Ikastetxe pribatuek eta publikoek ikasle-kopuru berdintsua dute; dena den, 2010-2011 ikasturteaz geroztik, ikastetxe publikoetako ikasle-kopurua apur bat handiagoa da pribatuetakoa baino.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,






Azpeitia Udala

IDAZKARITZA


Matrikula-kopurua, ikastetxearen titulartasunaren arabera



Iturria: Eustat. Hezkuntza-jardueraren estatistika

Ikasleen banaketa duela hamarkada bateko berbera da; premiak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan banatuta daude batez ere. Ez dago heziketa-zikloetako ikaslerik, nahiz eta industriak garrantzia handia izan Azpeitiko enpresa-sarean eta ekonomian.

2018-2019 ikasturteko ikasleak



Iturria: Eustat. Hezkuntza-jardueraren estatistika

Eskola-adinean dauden biztanleak (unibertsitate-ikasketak izan ezik)

	2012	2020	Δ%
Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-2 urte)	542	409	-24,5
Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3-5 urte)	483	452	-6,4
Lehen Hezkuntza (6-11 urte)	929	1123	+20,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	690	814	+17,9
Unibertsitate aurreko hezkuntza (17-18 urte)	262	334	+27,5
Guztira	2.906	3.132	+7,8

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika

Azken zortzi urteetan, biztanleria-egitura aldatu ahala, hezkuntza-beharrak ere aldatuz joan dira. Lehen eta bigarren hezkuntzako beharrak areagotu egin dira, baina haur-hezkuntzakoak murriztu. Badirudi joera horiek areagotu egingo direla.


Hezkuntza eskaintza eta eskari potentzialaren arteko balantzea

	Hezkuntza eskaintza 2019	Eskari potentziala 2020	Eskaintza-eskari diferentzia
Haur Hezkuntza (0-5 urte)	745	409	+116
Lehen Hezkuntza (3-11 urte)	1120	452	
DBH (12-16 urte)	808	1123	+3
Batzilergoa / L.H. (17-18 urte)	277	814	+5
Guztira	2.950	3.132	+182

Iturriak: EIN, Biztanleriaren udal errolda eta Eustat. Hezkuntza-jardueraren estatistika

Biztanleriaren hezkuntza-maila

Hezkuntza-maila



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren udal estatistika

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat

Azpeitiko hezkuntza-mailaren egitura Euskadikoaren eta Gipuzkoakoaren antzekoa da. Hala ere, bi gai dira aipatzekoak:

- batetik, goi-mailako eta bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen proportzioa txikiagoa.
- bestetik, lanbide ikasketak eta goi-mailako ikasketak dituztenen proportzioa oso antzekoa da, industriak biztanleriaren ekonomian pisu handia duen arren.

Nolabaiteko kezka dago Azpeitiko itunpeko eskolaren eta eskola publikoaren artean egon daitezkeen kalitate eta baliabide desorekengatik. Desoreka horiek, hautatutako eskolatzearen araberrako desberdintasunak ekar litzakete, etorkizuneko belaunaldien aukerei dagokionez.

Bestalde, eskaintzaren diseinua, Eusko Jaurlaritzako sail egokiekin batera, amankomunean eta berdintasunetik abiatuta burutzen ari da. Hitzarmen horiei esker, populazioaren bilakaera demografikoaren eta etorkizuneko beharren araberrako eskaintza ematea kontrolatzen ari da.

Lanbide heziketari dagokionez ere, aurrera pausuak eman dira azken urteetan bailarako formakuntza aukerak zabaltzeko ekinbidean. Dena den, formakuntza eskaintza osatzea falta da, ikasketa zikloen eskaintza ezagatik, urtero ematen baita inguraldeko eskualdeetarako ikasle-fluxuen ihesa.

Hezkuntza egitura honez gain, udalerriko hezkuntza sailak herritarrentzat interesgarriak diren zenbait jarduera eskaintzen ditu:

- Udalerriko ikastetxeen buruzko informazio- eta koordinazio-zerbitzua.
- Udalerriko prestakuntza-erakunde formalek eta informalek katalogoa.
- Hiru koadernoko proiektu pedagogikoa, Azpeitiko historiaren, kulturaren eta gertaerarik garrantzitsuenen berri emateko.
- Izarraitz Lanbide Heziketa. Udalerrian lanbide-heziketako zentro bat dago. Hala eta guztiz ere, Elgoibarrera eta Arrasatera joaten diren gazteen kopurua handia da, besteak beste, lanbide eta unibertsitate mailetako prestakuntza osatzeko. Baliteke ikasle fluxuen ihesa murriztea, udalerrian bertan eskaintza zabaltzea lortuko balitz.
- Martxan dagoen Basazabal zentroak, helduentzako hezkuntza-eskaintza osatuko du.

Gazteriaren sailetik ere hainbat dira hezkuntzaren alorrean eskaintzen diren aukera eta zerbitzuak. 6 eta 12 urte bitarteko azpeitiarrentzako ludoteka zerbitzua eskaintzen da. Azpeitiak bi ludoteka ditu, bi hezitzaileekin. Ludoteketan, bi programazio-mota diseinatzen dira: programazio arrunta, haurrei jarduera-aukera zabala eskaintzen diena, eta programazio berezia, jaiegunetarako prestatua.

Kultura eta hezkuntzaren esparruak lotuz gazteriaren sailetik bultzatutako gaztelekuak betetzen duen funtzioa ere aipatu beharra dago. 13 eta 18 urte bitarteko gazteentzat zuzenduta egonik, bereziki, 15 urte bitarteko gazteengan jartzen du arreta. Zentroan bi hezitzaile daude. Gazteen aisialdia sustatzen da, lau egitura-programek osatutako arreta-zerbitzu baten bidez. Hona hemen programok: informazioa, aisialdia eta arautu gabeko hezkuntza, sustapena eta emantzipazioa. Horretarako, hainbat zerbitzu, programa eta ekintza garatzen dira, gazteen ekimenak, beharrak eta nahiak kontuan hartuta.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat

Izaera irekia duen bitarteko bat da, erabiltzaileen arteko interakzioa bilatzeko batik bat. Hori dela eta, batik bat larunbat arratsaldean burutzen diren, tailerrak, irteerak, zinema, ikastaroak eta beste jarduera batzuk programatzen dira. Hilean behin hezitzaileen eta gazteen arteko hitzaldi bat antolatzen da, gazteen interesak, proposamenak, kezkak eta irtenbideak birdefinitzeko helburuarekin.

Urrestillan ere badira haur eta gazteentzako bi baliabide. Teknikari bat arduratzen da, gurasoekin lankidetzan, baliabide horien jarraipena egiteaz.

Hauez gain, Gazteria Sailak beste jarduera batzuk ere garatzen ditu:

- Ikastaroak. 18 urtetik gorako biztanleentzako ikastaroak dira.
- Mahai-inguruak. 18 urtetik gorakoentzat antolatzen dira.
- Txiki biran. Hurrei zuzendutako ikuskizunak edo tailerrak dira. Hilean behin egiten dira herriko hainbat txokotan: Herriko plazan, Sanjuandegin eta Urrestillako auzoetan. Gaur egun, bi hilean behin antolatzen da, baliabideak murriztu baitira.
- Antzerki-tailerra. 5 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeentzat. Ikasturte osoko iraupena du, eta parte-hartzaileak bi taldetan jartzen dira, adinaren arabera.
- Hainbat eragilerekin batera egindako ekintzak.

Gazteriaren sailetik garatzen den lanketari dagokionez, 29 urte bitarteko pertsonen zuzendutako informazio-bulegoa ere, azpimarra daiteke, herriko gazteen eskura jarritako informazioa, ikerketa, eskaerak eta proposamenak bildu eta eskaintzen dituen.

Zeharkakotasunez, aipagarria da, haur, nerabe eta gazteei dagokienez, elementu bereizgarria eta egituratzailea bilakatu dela, hauek, herriko gobernantzan zuzenean partehartzen duten eragile aktibo bezala kontsideratzeko burutzen ari den lanketa. Horretarako garatu da hain zuzen ere herri hezitzailearen ikuspegia, herria eremu hezitzailetzat ulertzeko eta herri-balioen eraikuntza partekatu eta aktiboa sustatzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzako 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



- Azpeitiak derrigorrezko hezkuntzaren egitura osoa du, bigarren hezkuntzara arte. Halaber, udalerriko eta eskualdeko egungo eta etorkizuneko beharretara egokituz doan lanbide-heziketako eskaintza abiatu du. Hori guztia Eusko Jaurlaritzarekin batera eta berdintasunez egindako lanaren emaitza da.
- Hezkuntza-erakundeek eta haietako langileek udalarekin, hartako sailekin eta udalerriko gizarte-sareko beste erakunde batzuekin egiten dituzten hitzarmenak funtsezkoak dira hainbat esparrutan proiektuak garatzeko: jardunbide egokien adibide gisa, gaur egun horrelako hitzarmenak egiten ari dira gizarte-zerbitzuekin edo Berdintasun Sailarekin.
- Azpeitian, hezkuntza-ereduen batasuna nabarmentzen da prestakuntza-ibilbidean; izan ere, udalerriaren euskararen aldeko apustuaren puntu garrantzitsu bat da, esparru guztietan komunikazio-hezkuntza gisa ezartzeko erreferentzia izateko.
- Nerabe eta gazteei dagokienez, hauekiko harreman eta entzute aktiboa lantzeko jardunbidea existitzen da, beraien elkartze-gune eta -momentuak baliatuz.
- Prestakuntza ez-formalari funtsezko garrantzia eman dakioke udalerriko hezkuntza-planetan. Eskatzen diren profilek eta beharrezkoak diren profilek bat egitea lortu behar da, bai eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden biztanleentzako ikastaroak eta prestakuntza-esparruak zehaztea ere, segmentu bakoitzerako.



GUNE KRITIKOAK

- Goi-mailako erakundeekiko mendekotasuna izatea, bai prestakuntza-planak zehazteko, bai hezkuntza ez-formalerako edo ikaskuntza jarraiturako azpiegiturak eraikitzeke, asmo handiko planak garatzeko aukera ere bada.
- Zenbait arrisku demografiko hartu behar dira kontuan udalerriko prestakuntza-beharrak zehazterakoan.
 - Demografia-profilen aldaketak bizkortzea, migrazio-fluxuen ondorioz. Horri dagokionez, udalerriak, kanpoko jatorria duten haurren ezarpenari buruzko erabaki-maila indartzea behar du.
 - Bat-bateko aldaketak gertatzea jaiotza-tasetan, jaiotza-tasa handiagoak dituzten kulturetatik datozen pertsonak udalerrian finkatzean.
 - Komunikazio-hezkuntzaren ereduaren uniformetasuna aldatzeko beharrari buruzko



eztabaidan sartzea.

- Lanbide heziketako formakuntza mailan aurrera pausuak eman diren arren, oraindik ere, inguraldeko eskualdetarako ikasle-fluxuen ihesa nabaritzen da, formakuntza eskaintza guztiz osaturik ez dagoen seinale.

PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Zenbait erronka planteatzen dira Azpeitiko hezkuntzaren arloan.

1.- Azpeitiko biztanleriaren bilakaera demografikoaren eragina barneratzea

Biztanleriaren bilakaera demografikoa bat dator eskualdekoekin eta lurraldekoekin. Ezinbestekoa da udalerrian zenbait ekintza egitea:

- Plazen eskaintza aldaketa demografikoetara egokitzea; aldaketa horiek erakusten dute haur-hezkuntzako premiek behera egin dutela, baina derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako plazez gora egin dutela.
- Haurrak hainbat eskolatan birkokatzeak hitzarmenak ezartzea, gune getizatuak sortzea saihestuz, edo kolektibo jakinen pisu handiegia dela eta, heziketa-maila orokor mugatua duten eskolak sortzea saihestuz.
- Haurrak eskoletan zehar banatzeko plan eta hitzarmenek euskara komunikazio-hizkuntza gisa maximizatzea bilatu eta sustatu behar dute.

2.- Bizi osoko etengabeko formazioa eta prestakuntza garatzea

- Eskatutako profil profesionalak zehazteko eta adin aktiboan dagoen biztanleriaren kualifikazioa profil horien arabera egokitzeko plana. Bereziki, gizarte- eta lan-bazterketako arriskuan dauden biztanleei erreparatu. Helduentzako ikastaroei buruzko plan bat egitea, espazioak, baliabideak, helburuak eta metodologiak barne hartuko dituena.
- Eskaintako prestakuntza udalerriko zein eskualdeko bilbe ekonomikoaren beharretara egokitzea. Lanbide hezkuntza eta etengabeko hezkuntza indartzea, bai eta helduentzako hezkuntza ere. Basazabal zentroak jardun horren erdigunea izan behar du, eta erkidego mailan helduentzako hezkuntzan egin diren aurrekontu-murrizketak gainditzeko balio behar du.
- Halaber, badirudi beharrezkoa dela udalerrian dauden kualifikazioak aztertzea, enpresek erabil ditzaten. Gainera, prestakuntza-eskaintzak udalerrian finkatu behar ditu beste herri batzuetara joaten diren gazteak, eta lortu behar du, zuzenean edo hitzarmenen bidez, eskatutako premien araberrako lanbide-heziketako eta unibertsitate-ikastaroetako eskaintza-sare bat osatzea.
- Eskoletan orientazio-zerbitzu bat definitzea ikasle gazteentzat. Udalerriko enpresa eta enpleguen, beharrezko kualifikazioen eta horiek lortzeko bideen mapa definitzea.

3.- Hezkuntza bitarteko, herritarrek sortutako "herri hezitzailea"

Hezkuntza formala eta ez-formala baliatuz gobernantza partehartzailearen eremura jauzi egiten duen ikuspegia barneratzeko momentua da. Herritar guztiak sujetu aktibo modura integratzen dituzten agertokiak garatuz.

- Herritarrei oro har eta haur, nerabe eta gazteei bereziki erabaki-hartze partekatuen bidean aurrera egitea ahalbideratzen dien egitura garatzea. Honetarako, balioen heziketak funtsezko rola jokatzen du.
- Eskolekin lankidetzan, ikastaroen, tailerren eta bestelako hezkuntza-formatuen eskema bat gara daiteke, herritar mota guztiek, oro har, azpeitiarrek, dituzten ezagutza- eta eragite-jakinminei erantzuna emateko.
- Azterlan bat egin beharko da, herri bezala eta baita biztanleriaren artean zer beharrian mota azaltzen diren eta zer ikasketa formaturen bidez erantzungo zaien zehazteko.

4.- Nerabe eta gazteen aktibazioa eta aintzakotzea

Sailen arteko koordinazioa eskatzen duen zeharkako egiteko espezifiko bezala azaltzen da erronka hau. Haurrei, nerabeei eta gazteen beharrianeraino erreparatzeaz gain, kolektibo hauek herrigintzan era aktiboan integratzea da gakoa, herri-politiken "onuradun" pasibo soilak izatetik, agente aktibo izatera igaro daitezela bilatuz. Horretarako:

- Gazteria saila gairatzen duen zeharkako ikuspegia antolatu.
- Arlo desberdinen arteko plangintza bateratua eta baliabideen koordinaketa zaindu.
- Gazteen premien identifikazioan era proaktiboan jokatu, gazteen aisialdi eta harreman esparruetara era zuzenean iritsi daitezkeen metodologia eta baliabideak proposatuz.
- Nerabe eta gazteen arazo eta kezak jorratzeko mekanismoak bilatu eta landu.
- Gazteen ekimenean eta partaidetza zuzenean oinarritutako gazteriaren mahaia eratu.
- Adin talde bakoitzeko gazteei berariak egokitutako ikuspegia barneratu eta dinamika espezifikoak garatu.
- Gazteen eta, bereziki, nerabeen premien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna indartu, berehalako esku-hartzea behar duten kasuetan era eraginkorrean erantzun ahal izateko.
- Gaztelekuaren erabilera suspertu, gazteen arteko harremanerako eta elkartrukerako topagune gisa.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.



EUSKARA

DIAGNOSTIKOA

Azpeitia herri euskalduna da argi eta garbi. Euskararekin duen harremana biziagoa da eskualdeko eta Gipuzkoako batezbestekoa baino. Euskararen maila eta erabilera 10.000 biztanletik gorako herrien artean nabarmentzen da bereziki.



Euskaldun-kopuruak gora egin du XXI. mendean zehar.

Azpeitiko euskaldunen kopuruak gora egin du: 2001ean, 11.289 euskaldun zeuden, eta, 2020an, 12.057.

Hala ere, euskaldun-kopuruaren hazkunde-erritmoa biztanleria-hazkundearena baino zertxobait txikiagoa da, batik bat azken urte hauetan biztanleria immigrantea gero eta pisu handiagoa hartzen ari baita. 2001ean, euskaldunak biztanle guztien % 88 ziren, eta 2016an, berriz, % 84.

2016an, % 13 erdalduna edo erdi-euskalduna zen, alfabetatze-maila txikikoa eta, oro har, pasiboa.

Euskararen ezagutza-maila



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Iturria: Eustat

Iturria: Eustat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat

Euskararen erabilera, lehen aukerako hizkuntza gisa, ezagutza-mailen azpitik dago. Erabilitako hizkuntza aldatzen dutenak ere kontuan hartuta, euskara etxean erabiltzen duten biztanleen proportzioa % 77koa da, ezagutzen dutenena (% 84) baino txikiagoa. Hori lan- eta gizarte-esparruak kontuan izan gabe, haietan euskaldunen artean euskararen erabilera are gehiago murriztu bailiteke.

Azpeitian, eskolaurreko eta lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza D ereduan egiten da oso-osorik.

D ereduan ikasten duten ikasleen kopuru handiagoa du eskualdeak eta Gipuzkoak baino.

	A-X eredia		B eredia		D eredia	
	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%
Gipuzkoa	5.472	4,8	8.756	7,6	100.819	87,6
Urola Kosta	29	0,2	48	0,4	13.326	99,4
Azpeitia	-	0,0	-	0,0	2.950	100,0

Gainera, Azpeitiko euskaltegiak 125 ikasle ditu 2020-2021 ikasturterako; aurreko ikasturtean, 91 izan ziren (% 31ko hazkundera).

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Euskara ezinbestekoa da Azpeitiarentzako. Biztanleriaren arteko harreman-hizkuntza naturala delako da garrantzitsua. Aktibo horrek bereizi eta berezi egiten du Azpeitia, eskualde, lurralde eta Euskal Herri mailan euskalgintzaren erreferente bihurtuz. Horrek, euskalgintzarekin loturiko proiektu ugari eratzea edota ekimen anitzetan parte hartzea ahalbideratu dio herriari.

Hartara, sailaren helburua, hizkuntzaren naturaltasuna sustatzea eta harreman-arlo guztietan integratzea da. Azpeitiko Euskara Sailaren helburu estrategikoa udalerriko gizarte-, erakunde, eta enpresa-bizitza euskaraz egituratzea da. Erabilera-maila handia izan arren, gakoa, esparru desberdinetan, herritarrei euskaraz hitz egitea eragozten dieten trabak eta inertiak gainditzea da: epaitegietan, dendetan edo lan-eremuan.

Hizkuntza ezagutzen ez duten edo behar bezala erabiltzen ez duten biztanle-multzoak ere erakarri behar dira erabilera naturalaren dinamika horretara.

Helburu horren barruan, EtorkiZun programa sortu zen duela 14 urte, eskolen lana koordinatzeko eta atzeritik etorritako haur eta gazteak hizkuntzan integratzeko. Programak honako hauek hartzen ditu barne:

- Lehenengo sarrera bat, komunikazioaren eta ulermenaren oinarriak emateko, hasierako uneetan baztertuta gera ez daitezen eta erakundeen oinarritzko mailetan nola moldatu uler dezaten.
- Harreman-dinamika konplexuagoetan sakontzen laguntzen dien atal bat, eta euskaltegien bidez ikaskuntza arautuan sartzeko bultzada bat.
- 6.000 haur baino gehiago sartu dira programan urte hauetan.

Azpeitia erreferentzia izan da eta bada hizkuntza-politikan Euskal Herri osoan.

- Azpeitiko Udala eta hartako teknikariak aholkulariak dira Foru Aldundiaren planetan, euskararen erabilera eta ezarpena sustatzen lortu duten esperientziagatik.
- Aholkulari gisa agertzen dira Foru Aldundiaren planetan, euskararen erabileraren eta ezarpenaren sustapenean duten esperientziagatik.
- Duela 11 urte zehaztu zituzten, egun, EAEko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuan azaldutako jardueraririzpideak.
- Udalak eta teknikariek hainbat udalerriri laguntzen diete euskara erabiltzeko planak zehazten, udalerrihorietatik euren esperientzia partekatzeko gonbidapena jasotzen baitute.
- Azpeitiak foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren TiketBai proiektuan jardun du lanean, fakturak euskaraz ere emateko betebeharra txertatzeko.

Euskararen erabilera integrala lortzeko helburu horretan, euskararen erabilera jarduera-eremu guztietan dagoen eskarira egokitu nahi du Azpeitiak. Hau da, normalizazioa lortu nahi du enpresetan, erakundeetan eta merkataritza-jardueran, bai eta, azken horren barruan, aire zabaleko merkatuetan eta ostalaritzan ere. Azpeitian esperientzia handia dago enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

- Euskararen ezagutza- eta erabilera-maila masiboa da udalerri osoan. Berezkoa da harreman sozialetan eta talde informaletan. Euskararen arnagunea da Azpeitia, eta horregatik naturala da euskaraz egitea eta bizitzea. Hala ere, erakundeekiko, merkataritzarekiko edo enpresarekiko harremanetan dauden oztopo batzuek erabilera orokortua eragozten dute.
- Hizkuntza ezagutzen duten eta euskararekiko konpromezua azaltzen duten belaunaldi berrien bultzadaz baliatzea, erakundeetan eta enpresetan belaunaldi-txandaketa izango baita. Epe laburrean esparru horietako langileen % 50 ordeztu beharko dela uste da.
- Euskara palanka bikaina bilakatu daiteke udalerrian integratu nahi duten immigranteak gizarteratzeko. Honetarako euskara balioan-jarri eta etorri berriei balio horren garrantziaz jabetzeko lanaketa garatzea da gakoa.



GUNE KRITIKOAK

- Euskara berezkoa eta berea duen udalerri bat izatera, ez dago hizkuntzarekiko kontzientziario aktiborik. Euskara naturala denez, gizarte mailan, ez zaio duen balioari erreparatzen.
- Haur, nerabe eta gaztetxoaren artean, beste adin tartetan bezala, euskara da hizkuntza erabiliiena komunikaziorako eta lagunarterako. Dena den, erreferentzetan dituzten bitartekoak (teknologikoak, batik bat) eta pertsonak erdaldunak dira, oro har. Hezkuntza formalek haragoko esparruetan igartzen da hori.
- Enpresetan, merkataritzan eta ostalaritzan dagoen erabilera-maila ez dator bat herritar gehienek duten ezagutzarekin eta euskaraz hitz egiteko joerarekin. Erabateko normalizazioa eragozten duen arazoa da. Lan-munduko izapideak, dokumentazioa eta komunikazioa erdaraz jasotzeak ez du batere laguntzen.
- Nahiz eta udalak euskararen erabilera sustatzeko politikak eta araudiak diseinatu, politika eta araudi horiek oraindik ez dira harreman-eremu guztietara behar bezala iristen.
- Erakunde-lana ez dago osotasunean eta zeharkako ikuspegitik antolatuta, euskarari dagokionez.
- Euskara ama hizkuntza ez duten udalerrietik kanpoko biztanleen etorrera erronka bat da herriarentzat. Izan ere, haiek euskarara hurbiltzeko ahalegina egitea eskatzen du, euskara eremu guztietan eta herritar guztiekin erabili ahal izateko.

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,





PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Zenbait erronka planteatzen ditugu Azpeitiko euskararen arloan.

1.- Euskararen erabilera sustatzea eta haren inguruko kontzientzia hartzea

Aipatu da Azpeitia arnagune bat dela, eta naturaltasunez egiten dela euskaraz bertan. Dena den, naturaltasunez egiteko horrek ekar dezake hizkuntzarekiko kontzientzia galtzea, eta euskara munduko beste hizkuntzen pareko bezala ulertzea. Horregatik, beharrezkoa da herritarrek garbi ikustea euskara hizkuntza gutxitu bat dela, eta arnagune bateko herritar bezala, hizkuntza zaintzeko eta zabaltzeko aukera ezin hobea dutela.

Horrez gain, kontzientzia hartu eta zabaltzearen baitan, honako esparru zehatzak lantzea beharrezkoa da:

- Haur eta gaztetxoengan eragitea:

Kontzientzia herritar guztien artean lantzea komeni da, baina haur eta gaztetxoei bereziki erreparatuta. Eskolen bidez landu daiteke, hezkuntza formalean, eta aisialdiaren bidez ere bai. Diagnostikoan ikusi den bezala, adin-tarte horietan ikusten da hainbat erreferente kulturak eta sozial erdaretan dituztela. Eragin beharreko eremua da.

- Etorri berriei harrera egitean, euskarara hurbiltzeko erraztasunak eman eta hizkuntzari balioa ematea:

Azpeitira iristen diren biztanle berriei harrera egitean, udalerri euskaldun batera iritsi direla azaldu beharko zaie. Euskara herrian bizitzeko eta gizarteratzeko aukera bezala aurkeztu, eta erraztasunak eman behar zaizkie euskara ikasteko eta euskal mundure hurbiltzeko. Horretarako, plangintza zehatz bat behar da, lehen unetik pertsona horiek euskararekin kontaktuan jartzeko.

- Lan mundua euskalduntzea:

Euskara lan-munduan normalizatzeko saiakera berezia egitea. Enpresetan, merkataritzan, azokan eta lantegietan. Horretarako, euskara planak egitea sustatu beharko da, eta langile zein nagusiak motibatu, hizkuntzaren normalkuntzan eragiteko.

- Hitanoaren erabilera indartzea:

Kontzientzia hartzearen baitan, hizkera informalak garrantzia handia du. Estrategikoa da hitanoan erabilera indartzea eta belaunaldi berrien artean indarra ematea. Noka formari bereziki erreparatu beharko litzaioke.

2.- Udalaren sail guztietan euskara zeharkakotasunez hartzea eta EL Eren sistematizazioa

Udalaren departamentu guztietan euskara zeharkakotasunez lantzea. Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izateaz gain, sail guztietan euskara sustatzeko neurriak hartzea eta hizkuntzaren

Azpeitia

Denontzat

normalkuntzaren helburua barneratuta izatea. Horretarako, euskara kontuan hartu beharko da proiektuen diseinuan, arauen aplikazioan, dirulaguntzen kudeaketan eta abar.

Euskarari dagokion pisua aitortzeko lanean, barne-mailako plangintzan, udal-proiektu orok izan beharko du hizkuntza-inpaktuari buruzko txostena, eta lorpenen eta gomendioen balorazio bat. Horretarako, beharrezkoa da:

- Sail guztiek zeharkako helburu horretan parte hartzea, puntu hori euren jardueraren oinarrietako bat izanik.
- Giza baliabide eta baliabide materialen berrantolaketa definitu eta bideratzea, sail guztien ekintzetan euskarari buruzko alderdiak koordinatu ahal izateko, eta egungo planekin eta ekintzekin jarraitzeko.

Azterlan horien barruan, garrantzitsua da udalerriko euskararen erabilerari buruzko diagnostiko-txosten zehatza egitea: irismena -hitz egiteko gai den biztanleria- eta erabilera-ereduak -gertatzen diren eta saihesten diren egoerak-. Azterlanak, gauzatu beharreko ekintzak berariaz diseinatzeko balioko du.

3.- Euskara-mahaiaren eraketa

Beharrezkoa da euskararen mahai bat eratzea, adierazitako erronka estrategikoen arabera eduki espezifikoak eraiki eta etengabe berritu ahal izateko. Mahaiak arlo hauetako ordezkariak jaso beharko lituzke:

- Hezkuntza
- Kultura
- Kirola
- Osasungintza
- Merkataritza
- Turismoa
- Ostalaritza
- Enpresa
- Gazteria
- Aisialdia
- Biztanleria, oro har.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak.





KULTURA

DIAGNOSTIKOA

Dinamikotasun kulturalari dagokionez, Azpeitiak aise gainditzen ditu bertako biztanleriaren edo eskualdeko biztanleriaren mugak, eta erreferente nagusietako bat da kultura-sorkuntzari eta -erakusketari dagokienez. Udalerriko kultura-jarduera maila hiri batek erakusten duenaren bestekoa da. Gainera, Azpeitiak kultura arloan duen eraginari dagokionez, Euskal Herri osora hedatzen da, eta esparru horretan euskarazko sorkuntzaren erreferente gisa ageri da.

Garrantzitsuak badira ere, Azpeitiaren kultura garapen maila ezin da neurtu ekipamenduei eta instalazioei dagokienez. Aitzitik, kulturarekiko herri-atxikimendu eta orientazio kolektibo sendoarekin du zerikusia, "kontsumoari", eta bereziki sorkuntzari dagokienez islatzen dena.

Kulturari dagokionez, tradizioz, Azpeitia beti izan da herri oso aktiboa, beti ere, euskara abiapuntu, katalizatzaile eta jomuga gisa ulertuz. Egungo dinamikotasunaren zehaztapenaren eta garapenaren iturburua 2006an, Kultur Mahaiaren eraketarekin bat dator.

KULTURA MAHAIA:

Azpeitiko kulturaren mahaia Azpeitian kulturaren interesa duten pertsona eta erakunde guztien parte hartzeko topagune gisa sortu zen, proiektua bere horretan, eta haren lan-ildo estrategikoak zehazteko helburuarekin. Horretarako, dinamizazio talde baten eta batzar batzuk antolatu ziren, lerro estrategikoen sorkuntza- eta lan-taldea definitzeko asmoz. Kultura mahaia honako hauek osatzen dute:

- Herriko 22 kultur taldeak.
- Udal-gobernuko taldeak.
- Kultura eta udal kultura mahaiko teknikariak.
- Norbanakoak. Mahaiak 380 bazkide inguru ditu eta banaka parte hartzen dute.

Espazio horren eraketak, kulturaren alorreko ideia, ardura, kezka eta zalantzak mahai gainean jarri, eta irtenbide bateratuak aurkitzeko balio izan du: Kulturaz kooperatiba, agenda partekatua, sailen arteko lankidetzak hitzarmenak, edo San Agustin Kulturagunea abian jarri, bestak beste. Mahai horretan sortutako ekimenak funtsezkoak izan dira Azpeitiak azken urteotan bizi izan duen kultur garapenerako.

Elkarlanean oinarritutako kultura ereduaren baitan, urrats bat gehiago emango da 2021. urtean, Udalak hitzarmen berri bat sinatuko baitu Kulturaz kooperatibarekin, zeinaren arabera, kooperatibak hitzarmen bakar eta integral bati esker kudeatuko dituen kultur eraikin publikoak (San Agustin, Soreasu, Dinamo). Horretarako, elkarlanean eratutako proiektu bat hartzen da oinarritzat, herritarren beharrianak eta ekintzailerak erdigunean jartzea helburu dituen proiektua, hain zuzen ere.



SAN AGUSTIN KULTURGUNEA ETA KULTURAZ KOOPERATIBA:

Kultura-proiektuak bultzada hartu zuen 2011. urtean, San Agustin Kulturgunearen proiektua definituz eta gaur egun Kulturaz Kooperatiba dena eratuz (aurretik, Sanagustin kooperatiba izena zuen). Kooperatiba herri-erakunde gisa sortu zen hasieratik, udalerriko estamentu desberdinen eta banakako bazkideen partaidetza oinarri izanik. Ondoren, lehiaketa publiko bidez San Agustin Kulturgunearen kudeaketaren ardura jaso zuen. Izaera soziala du eta ez du irabazi-asmorik. 28 langile inguru ditu. Kulturaren Mahaia da bere bazkide nagusietako bat. Beste bi zutabe nagusiak langileak eta aipatutako bazkide laguntzaileak dira.

Kulturgunea azpeitiarren kultur proiektu osoaren gune neurgarriko gisa eratu da, sorkuntza-, topaketa- eta erakusketa-leku gisa. Kudeaketa kooperatibaren esku dago eta autofinantzaketaren ahaleginetan, ostalaritza-zerbitzua ere barneratzen du. Proiektuaren funtzionamenduaren mugari azpimarragarri eta adierazgarri gisa, autofinantzaketarako gaitasuna aipatu behar da, % 85-90era iresten dena, 1.300.000 €-tik gorako aurrekontu baterako.

Ereduaren alderdirik azpimarragarrienetako bat azpeitiarren parte-hartzera eta mobilizaziora bideratuta egotea da. Horretarako bide hauek zabaltzen zaizkio:

- Kultura-eskaintza bideratzea, eskaera-orrien, posten eta iradokizunen bidez.
- Komunikazio parte-hartzailea, barne-komunikazioko tresnen edo buletinen bidez.
- Arloka antolatutako lantaldeak, programazioaren % 80 baino gehiago definituz.
- Lan-taldeak, eremu edo proiektu zehatz bakoitzeko.
- Formatu irekia duten partaidetza-batzarrak.

Erakusketa-gune gisa, guneak 300 lagunentzako lekua du eserita, eta 600 zutik.

Gainera, herriko kultura-proiektuak bi zutabe gehigarri ditu, Kooperatibak, hurrenez hurren, 2014tik eta 2016tik kudeatzen dituenak. Hauek dira:

SOREASU ANTZOKIA:

800m²-ko auditorio modernoa da, 540 laguneko edukiera duena, Azpeitiko Kultur Mahaiko kide guztien bultzadarekin osatua. Gainera, erabilera anitzeko aretoak ditu, herriko elkarteek erabil ditzaten. Zinema-programazio komertziala eta ez-komertziala du, eta musikan, antzerkian eta dantzan oinarritutako programazioa.

DINAMOA SORMEN GUNEA:

2016tik, proiektu eta prozesu sortzaileei laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkien tailer gisa konfiguratuta dago. Ekoizpen eta sorkuntza gune bat da, Azpeitia Euskal Herri mailako kulturaren eta euskarazko adierazpenaren erreferente bihurtzeari begira, hitza, irudia, soinua eta gorputza oinarri hartzen dituen. Eragileekin, beste udalerri batzuetako ordezkariekin, beste sorkuntza-gune batzuekin eta haien sortzaileekin eta erakunde publikoekin etengabe komunikatzen den lekua dugu.

Dinamoa proiektuak herriaren kultur sorkuntzarako gaitasuna muturreraino eramane du. Ordutik, sortutakoa komunikatzeko eta zabaltzeko gaitasun egokiak bilatzeko ahaleginetan ere murgildurik dago. 2016an, adibidez, 180 proiektu gauzatu ziren, batzuk Kultura Mahaia zuzenduak eta beste



batzuk kooperatibaren bitartekaritzarekin garatuak. Dinamika honen baitan, soinuaren eremua gauzatzeko epe laburrera abiatuko diren lanen garapena mugari gehigarri bat izatea espero da.

Dinamoa agertokia baino gehiago, sormen prozesuei irekitako espazio bat da. Ekintzaileen sormen prozesuetan bidelagun izateko asmoz, udalak urtero 20.000€ko beka bat esleitzen du kultura proiektuen dinamikotasuna indartzeko. Besteak beste, Dinamoa egitasmo hauek garatzeko espazio bezala eskaintzen da.

Eskaintza kulturalaren alorrean, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak nabarmendu behar dira, dagoeneko 38 edizio ospatu baitira. Jaialdi honek Euskal Herrian egindako onena dakar eta ekoizpen propioa zabaltzeko plataforma gisa ere balio du.

Azpeitiko kultura-jarduerak inguruko udalerrietako biztanleei ere ematen die zerbitzua. Jarduera horretarako instalazio nagusiak honako hauek dira:

BESTE KULTURA-EKIPAMENDU ETA -JARDUERA BATZUK:

Aurrekoez gain, Azpeitiak ahalegin handia egin du azken urteotan bestelako kultur ekipamendu eta jarduera batzuk egituratzeko.

Hauek dira helburu honetarako lagungarri diren instalazio nagusiak:

- **Udal-liburutegia.** Gazte eta helduentzat. Ohiko jardunaz gain, programazioa eta jarduerak ere baditu, hala nola ipuin-kontaketa.
- **Jesuiten liburutegia.** Erabilera publikokoa eta 16 urtetik gorakoentzat.
- **Betharram aretoa.** Ikastaroak, hitzaldiak eta bilerak antolatzeko.
- **Betharram erakusketa-aretoa.** Erakusketak, tailerrak eta hitzaldiak egiteko lekua.
- **Trenbidearen Museoa, Ingurumenaren Etxeak** eta beste proiektu batzuek udalerriko kultura-eskaintza aberasten dute.
- Musika-taldeentzako eta dantza-taldeentzako **entsegu-gelak** daude.
- Azkenik, **abesbatzen eta organo-kontzertuen programazio egonkorra** dago, eta, horretarako, eliza erabiltzen da, kontzertu-areto gisa.

PARTAIDETZA ETA JAIK

Jai-partaidetza ere, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko tresna egokia izan daiteke gizarte dinamikotasuna pizterako orduan. Kultur sorkuntzaren kasuan bezala, jaien kudeaketa-eredu parte-hartzaileari heldu nahi zaio Azpeitian. Horren arabera, jai-jardueren antolaketa eta finantzaketa publikoak herri-erakundeek planteamenduei eta ekintzaileari erantzungo lieke: taldeek, elkarteek, klubek eta norbanakoek plazaratutakoei. Eskema hori baliatu nahi da, halaber, parekidetasunaren balioak balioesteko eta inplementatzeko.

Hortaz, jaiak antolatzeko orduan festa mahai eraginkor bat osatzea litzateke gakoa, festa bakoitzerako mahai bat, alegia. Jai anitz eta partehartzaileak denon artean antolatzeko, udala, festetan parte hartzen duten talde, norbanako eta elkarerekin batera arituko litzateke elkarlanean.

IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

- Azpeitiko Kultur Mahaiak, elkarlanean burututako eztabaidaren gidari gisa eta Azpeitiko kulturaren ildo estrategikoen sustatzaile modura duen indarra. Era berean Kulturaz kultur kooperatibak ardazten duen kudeaketa eredu kooperatiboa nabarmentzen da. Kooperatiba azaltzen da, San Agustin kulturgunean, Soreasu antzokian eta Dinamo tailerretan, Azpeitiko sorkuntzaren, ekoizpenaren eta dinamizazioaren alde egiten den lanaren sustatzaile nagusi modura.
- Kulturaren lanketa estrategikorako, sorkuntzarako eta aktibaziorako jarraitzen den lankidetzaren eredu parte-hartzailea. Abiatutako elkarlan ereduak, etengabe, kultur-ikuspegia aberasteko, ideia berriak barneratzeko, sortzaile, ekintzaile eta kudeatzaile berriak erakartzeko eta herritarrek inplikatzeko aukera ematen du.
- Lortutako ekipamendu-maila. Ekipamendu hori funtsezkoa da, arte-ekoizpenean jarduten duten eragileen ekoizpen propioa sustatu, eragileek arte-jardueran parte hartzea eta eragile gehiago sortzea bideratu, eta programatutako jarduera artistikoetara erakarri baititu biztanleak oro har.
- Euskara biztanleriaren indargune bat da, tokiko ekoizleei aukera ematen baitie aktibo espezializatu gisa jokatzeko eta euren produktua Euskal Herri osoan erakusteko.
- Garatzen den kultura programazioak eta planteatzen diren jarduerak harrera ona dute herritarren artean. Gazteek ere aktiboki parte hartzen dute burutzen diren ekimenetan, bereziki jai eta kontzertuekin zerikusia dutenetan.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





GUNE KRITIKOAK

- Azpeitiak oso kultur-ekoizpen handia du (esaterako, antzerkigintzan indartu daiteke). Hala ere, jarduera horren komunikazio eta hedapen zuzena egitea nahiko zaila azaldu da, eta oraingoz ez du bide eta estrategia egonkorrik aurkitzen. Honekin loturik, euskal-programazioa udalerritik kanpoko interesdunei ireki eta hauek erakartzeko lanketa indartzeko premia ageri da.
- Mantentzea ezinbestekoa den, kultura eta artea sortzeko eta erakusteko prestatu diren instalazioen kudeaketak aurrekontu handia eskatzen du:
 - Instalazioak mantentzeko eta hobetzeko.
 - Jarduera arrunta eta administratiboa kudeatzeko.
 - Udalerriko ekoizpen jarduera kudeatzeko. Koordinazioa, hedapena eta bultzada.
- Herritarrek kulturean duten parte-hartzea handitu behar da etengabe. Halaber, herritarrek —batez ere nerabe eta gazteek— kultura-jardueran duten konpromisoa finkatu eta zabaltzeko behar da, erabaki-hartze prozesuetan barneratuz, ekarpenak egiteko mekanismoak arinduz (web bidez, esaterako) eta planak egitean aktiboki inplikatzeko aukerak irekiz. Gainera, badira oraindik, Kultur Mahaian eta parte-hartze kolektiboaren eskeman integratu gabeko herritarrak, sortzaileak eta jarduera-kudeatzaileak.
- Herriko jaietan parte hartzen duten, talde, elkarte eta norbanako guztiek antolaketan eta erabakiguneetan aktiboki parte hartzeko festa mahai eraginkorrak osatzea, festa bakoitzeko mahai bana, alegia. Mahaiak baliatuz, jai parte hartzaileago, euskaldunago, parekideago eta inklusiboagoak osatzen joatea izango litzateke helburua.
- Kulturaren zeharkako ikuspegian sakontzeko beharrezana somatzen da, kultur dinamikotasunaren onurak eta potentzialtasunak beste esparru batzuetara era integratuz zabaltzeko eta hauek elikatuz. Esaterako, adinekoen zahartze aktiboa, edota nerabe eta gazteen aktibazioa landuz.
- Gaur gaurkoz, kultur ekitaldiak herriguneko aretoetan eskaintzen dira, batik bat. Zentzu horretan, garrantzitsua izango litzateke programazio kulturala auzoetara iristeko ahaleginak areagotzea.
- Haur eta gaztetxoenei begirako kultur eskaintza, beraien eskaera eta behar espezifikoetara egokitzeko urratsak ematen jarraitzeko premia adierazten da.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA



PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Zenbait erronka planteatzen ditugu Azpeitiko kulturaren arloan.

1.- Azpeitia Euskal Herriko kulturgintzan erreferentzia izateko erronka

Azpeitia eskualdeko kulturaren erreferentzia bat da eskualde- eta lurralde-esparruan. Bide horri eutsi behar zaio, eta are gehiago sustatu, euskaraz ekoiztako kulturaren erreferentzia izan dadin Euskal Herri osoan.

- Lortutako ekoizpen propioaren mailari eutsi behar zaio, bertako ekoizleen jarduera Euskal Herriko txoko guztietara eramanez.
- Egun dagoen ekoizpena aprobetxatu behar da beste udalerri batzuekin sare bat osatzeko, ekoizpenak trukatu eta beste ekoizpen batzuk erakartze aldera. Sare horren bidez, udalerriko kultura-arloko jarduera eta eskaintza aberastuko dira.
- Arretaz erreparatu behar zaie kanpoan egiten diren arte-eraldaketa eta -joerei. Horri esker, ekoizpen propioan txertatu ahal izango dira, eta hori, beraz, udalerria aberasteko lagungarria izango da. Ekoizpen propioak sareak sortzea eragingo du, eta hori garrantzitsua izango da aipatutako helburua lortzeko.
- Udalerraren kultura-garapenean funtsezkoa denez, garrantzitsua da aurrekontu-partida handia bideratzen jarraitzea, baina baita ere, kooperatibak eta kultura guneek lortu duten autofinantzaketa mailari eustea.

2.- Oinarri partehartzailearen zabalpena eta egindako lanaren komunikazioa

- Hedapen-prozesu horretan, beharrezkoa da proiektu egonkor bat bilatzea, ekimenak eta proiektuekiko zein horien kudeaketarekiko interesa belaunaldi berriei transmititzeko. Proiektuak honako hauek izan behar ditu helburu: kulturen ahalik eta parte-hartzerik handiena izatea, eta artisten, ekoizleen eta jardueraren hedatzaileen multzoan beste pertsona eta eragile batzuk ere sartzea. Bereziki, nerabe eta gazteen ikuspegia barneratzea eta hauek era aktiboan inplikatzeko ezinbestekotzat jotzen da.
- Herriko sortzaile eta ekoizle guztiak elkarlanerako esparru amankomunera erakartzea ere, aurrera begirako erronka nagusietako bat da.
- Azpeitiak duen jarduera, ekoizpena eta programazioa jakitera emateko lan egin behar da. Arte-jarduera agerian jartzea ezinbestekoa da, egindako ekoizpena babesteko eta Azpeitia kulturaren erreferentzia izan dadin laguntzeko. Komunikazio eta hedapenari dagokionez, egindako lanaren berri emateko, erakusketa telematikoko eskaintza bat garatu daiteke, esate baterako, ikusle gehiago — bertakoak nahiz beste udalerri batzuetakoak — erakartzeko palanka gisa. Besteak beste, streamingeko emanaldiak, egindako produktuen liburutegiak, elkarrizketak ekoizle eta artistekin, eta Azpeitiko kultura-eskaintza zabaltzen lagundu dezaketen beste produktu batzuk.
- Kultur jarduerak eta ekintzak udalerriko auzo guztietara zabaltzeko estrategia bat pentsatu behar da, eskaintza, sormena eta ekoizpena ez daitezen soilik herriguneko espazio zentralera mugatu.
- Herriko jaiak, hauetariko bakoitzari dagozkien interesdun eragile, elkarte, talde eta norbanakoekin batera elkarlanean antolatzeko, festa-mahaiak eratzea, funtsezkoa izango da, jai parte-hartzaile,

Azpeitia

Denontzat

euskaldun, parekide eta inklusiboak lortzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.



3.- Dinamoa Sormen Gunea bultzatzea, Azpeitiko kultura-proiektuaren zutabe gisa

Erakustaldiaren kontzeptuan soilik oinarritzen den ikuspegi kulturalaren ikuspegi "instituzionalizatu" edo estatikoen aurrean, Dinamoa sorkuntzara, irakaskuntzara eta biztanleria jarduera artistikoan integratzera bideratutako herri-proiektu partekatu baten ernamuina da. Ekoizpen artistikoa eta kulturala, sorkuntza tailerrak, elkar-eragiteak, jatorri eta sormen ezberdinetako artisten arteko harremanak ezartzea... Horiek guztiak dira herriaren etorkizuneko dinamismo kulturala bermatzeko funtsezko elementuak.

4.- Azpeitiko kultura-dinamikotasuna beste esparru batzuk indartzeko ardatz

- Euskara funtsezkoa da Azpeitian diseinatutako programazioan eta arte-ekoizpenean. Horri esker, euskararen erabilera handitu egin daiteke, normalizazioaren bidez, euskara erabiltzeko kanalak eta kalitatezko edukiak ematen baitira.
- Kulturaren potentzialtasun osoa baliatuz eta sailen arteko sinergiak bultzatuz, zahartze-aktiboa bezalako gaietan benetako inpaktu positibo bat garatzea lortu daiteke.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





KIROLA

DIAGNOSTIKOA

Udala ahalegin handia egiten ari da gero eta instalazio eta jarduera gehiago jartzeko herritarren eskura.

- Kiroldegia (saskibaloiko, futboleko eta eskubaloiko pista nagusia; squash-a; spinning-aretoa, gimnasioa, muskulazio-aretoa, mahai-tenisa, rokodromoa, bulder-a, sauna lehorra eta sauna hezea).
- Igerileku estalia (igerileku luzea eta igerileku laburra, sauna, muskulazio-gela, bizikleta-gela, aerobica, gimnasio-gela...).
- Aire zabaleko igerilekua.
- Kirolgunea: tenis- eta padel-pistak, eta futbol-zelaiak.
- Beste futbol-zelai, pilotaleku eta kirol-jarduerarako espazio batzuk.

Gune eta jarduera horiek kudeatzen dituzten organoak Azpeitiko Kirol Saila eta Kirol Patronatua dira.

Kirol Saila jarduera koordinatzen eta kudeatzen saiatzen da udalerrian dauden hiru kirol-baliabide handietan eta horiek gauzatzeko ardura duten erakundeetan: ikastetxeetan (eskola-kirola), klubetan (errendimendu-kirola) eta Kirol Patronatuan (kirol-aisialdia).

Kirol Patronatua herriko kirol-baliabide nagusien kudeaketaz eta mantenuaz arduratzen da, eta aisialdiko kirola bideratzeaz ere bai. Kirol Sailarekin harreman estuan egiten du lan.

- Azpeitiko Kirol Mahaian hainbat kirol-eragilek hartzen dute parte, eta Azpeitiko kirolzale eta kirol-klub guztientzat irekita dago. Mahai horretan, herriko kirol-esparruarekin zuzenean lotutako alderdiak aztertzen dira, eta, besteak beste, udalerriko kirol-jardueren urteko egutegia koordinatu nahi da, tokiko kirol-eskaintza eragotzi edo bikoiztu dezaketen jarduerak saihestuta.
- Kirolaren Eskola Kontseiluak, Azpeitiak eta Azkoitiak elkarlanean dihardute esparru horretan. Kirol Sailak aholkularitza-zerbitzu bat abiarazi du Kirol Plana egiteko, eskola-kirolaren arloan gaur egun dauden gabeziak kontuan hartuta.
- Udaleko gainerako sailekin koordinatuta egindako ahaleginak gorabehera, ez da lortu koordinazio-mahaia egonkorra izatea; izan ere, askotan, arlo estanko baten gisa funtzionatzen du. Gainera, kasu batzuetan, bikoiztasunak, deskoordinazioa, ekimenak antolatzeak kostu gehigarriak eta abar gertatzen dira normalean.

Kirol-dinamika biztanlerian:

- Azpeitian ia 20 kirol talde inguru daude, eta hainbat arlotan jarduten dute. Hauek dira, besteak beste: atletismoa, karatea, saskibaloia, judoa, igeriketa, mendia, pilota, sokatira, txirrindularitza eta futbola. Hona hemen kirol-elkarteak: Azkoitiko eta Azpeitiko Xeye Atletismo Kirol Elkartea, Azpeitiko Amue Kirol Elkartea, Azpeitiko Karate Kirol Elkartea, Lagun-Artea Kirol Elkartea, Iraurgi Saski Baloia, Kimura Judo Kluba, Izarraitx Igeriketa elkarte, Lagun Onak Futbol taldea, Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ikasberri Kirol Elkartea, Ilunpe Pilota Elkartea, Lagun Onak Txirrindulari Taldea, Sokaitz Eskalada taldea, Erritmika taldea, Xaputarrak Xake taldea, Bolo taldea, eta Koadore Judo taldea.
- Herritarrek Udalaren kirol-politikan parte har dezaten sortu zen Azpeitiko Kirol Mahaia. Hartan, Azpeitiko kirolariak, kirol-elkarteak, Eskola Kontseiluko kideak eta Azpeitiko Udaleko ordezkariak biltzen dira, eta kirola maite duten guztien eta parte hartu nahi duten kirol-elkarteen partaidetzarako ere irekita dago. Hala ere, bileren maiztasuna txikitu egin da.

Kirola arautzen duten oinarriak etengabe berrikusi eta berrezarri behar dira; izan ere, kirol-espezialitate berriak agertzen dira etengabe, edo espezialitate horietako batzuk praktikatzen dituzten herritarren kopurua handitu egiten da.

Sailen arteko lanak, denek ezagutu eta partekatuko duten, agenda komun bat ezartzea eskatzen du. Premia horren arrazoietakoa bat eskola-kirolaren eta errendimendu-kirolaren arteko elkarlanerako beharra da. Instalazioak, ordutegiak eta helburuak ez gainjartzeko konponbideak ezarri behar dira. Adibidez, egun, instalazioak erabiltzeko ordutegien gorabeheran ematen diren zenbait tirabira ez dira egokiak haur eta gazteentzako.

Kirol arloko lanak informazioa eskatzen du:

Alde batetik, azterketa-katalogo bat behar da, informazio argia emango duena espezialitate guztietan kirola egiten duten klub- eta pertsona-kopuruari buruz, haien beharrian espezifikoen ebaluazioa eginez, parte-hartzaile kopuruaren, lortutako mailaren eta behar espezifikoen arabera. Bestetik, beharrezkoa da zehatz-mehatz jakitea errendimenduko kirolak zer eragin duen maila guztietan (emaitzetan, ekonomikoan, praktiken hazkunderan), inbertsioak eta helburuak behar bezala bideratu ahal izateko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



- Kirol instalazio- eta azpiegitura-sarearen oinarriak jarrita daude, era guztietako ekimenak eta jarduerak egiteko aukera emanez.
- Giza baliabide eta baliabide fisikoak oinarritzko kirol-jarduera bermatzeko egokiak dira.
- Planak eta jarduketak finkaturik daude eskola, aisialdi eta kirol-errendimendu (klubak) mailetan.
- Elkarte-sare zabala (klubak) dago, eta herritarren dedikazioa eta parte-hartzea handiak dira.
- Gazteek eta herritarrek orohar erantzun positiboa dute, diseinatutako eta garatutako jardueretik. Biztanleria oso dinamikoa da kirolaren jarduerari dagokionez.
- Kirol-orientazioko zerbitzua garatzea herritarrek kirola erakartzeko aukera izan daiteke.
- Kanpoko lankidetzaren protokoloak – Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Zerbitzuak.
- Eskaintzaren aniztasuna eta eskuragarritasuna (prezioa eta baliabideak) ondo bermaturik daude.
- Hezkuntzaren, integrazioaren edota osasunaren eta kirolarena arteko zubiak eraikiz, hauek bakoitzaren eragingo duen, zeharkako ikuspegia duen kirol eskaintza osatzea, aurrerapauso handi bat emateko aukeratzat uler daiteke.
- Kirola ikuspegi inklusibotik lantzeko aukerari heldutako funtsezkoa izango da, adineko herritarrek edota mendekotasunen bat dutenak kirol-jardueran integratuz.



GUNE KRITIKOAK

- Kirol batzuetan espazio- eta koordinazio-beharra ageri dira kirol jarduna ondo burutzeko, azpiegituren eraberritze mailan eta kirol-antolaketa mailan hobekuntzak eskatuz.
- Kirol-eskaintzaren zeharkako ikuspegia, zehaztutako oinarritzko zutabeetatik —aisialdia, forma, eskola eta lehiaketa—harago, ahula da oraindik ere. Joera kultural eta beharrian soziodemografiko berriek sortutako premia berrietara egokitzeko nolabaiteko gabezia hautematen da. Kirol-egokituari eta oro har kirol-praktikari buruzko ikuspegi berriak txeratzeko beharra somatzen da; adibidez, hirugarren adineko biztanleak edota aniztasun funtzionala dutenak kirol-jardueran integratzeko.
- Badira, kirol-beharrezkoak, estaldura-mailari, kirola egiteko moduei eta kirolaren proiektuari erantzun holistikoa eta sail artekoa emateko zailtasunak. Oraindik ere nekeza da proiektuak aurrera eramateko beharrezkoa den sailen arteko ikuspegi, baliabide eta jarduketak elkarrekin adostu eta koordinatzea.
- Baliabide teknikoaren funtzioen berrantolaketa eskatzen duen kirol-plangintza administratiboa.
- Klubak eta kirolean inplikaturik bestelako elkarte batzuk antolatuta ez egotea. Kirol Mahaiko

lanaren irismen mugatua. Nolabaiteko arriskua dago parte hartzen duten erakundeek eta pertsonak, soilik euren interesei begirako erantzunak bilatzeko.

PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Zenbait erronka planteatzen dira Azpeitiko kirolaren arloan.

1.- Kirol-jardueraren plangintza estrategikoa

Beste kirol-plan bat egin behar da, eta haren bidez kirola beste ikuspuntu batetik aztertu. Egin beharreko lana bideratzen lagunduko duen plangintza estrategiko bat egitea da helburua: helburu eta irizpide berriak bilatzea, kirola biztanle guztiei hurbiltzea eta premia guztiei erantzutea, aisialdia, sasoian egotea, lehiaketa eta errendimenduaz harago doana, alegia. Plangintzaren bidez lortu behar da herritarrek kirola bizi-kalitatea hobetzen duen ekosistematzat hartzea, kirola bere baitan kapsulatu gabe. Sailen artean erabili beharreko hobekuntza-tresnatzat hartu behar da kirola, planifikatutako helburuetan oinarritutako jarraibideak izan behar ditu, eta ohiko helburuei ez ezik bestelako premiei ere erantzun behar die. Kirol-plangintzak honako hauek hartuko ditu barne:

- Kirolean lan-paradigma berriak sartzea. Kirolaren arloko lanak bete behar dituen helburu berriak. Bizi-kalitatea irizpide definitzaile eta integratzaile gisa.
- Helburuen plangintza estrategikoa, politikoki eta orokorrean zehaztua. Zehazki, gaikako lan-mahai bat aktibatu daiteke, kolektibo jakin bakoitzarentzat jarduera espezifikoak diseinatzeko. Mahaian honako hauek definituko dira:
 - kolektiboaren irismena,
 - kolektibo horrekin lortu beharreko helburuak,
 - egin beharreko jardueren diseinua –
 - Kirol mota egokiak,
 - Kolektibo horien erakarpena gidatuko duten elkarteak eta erakundeak, eta
 - Horiekin egingo diren jarduera zehatzak.
- Kirola biztanle guztien esku jartzea. Kirola egiteko modu berriak txertatzea.
- Kirola parekidetasunaren aldeko urratsak ematen jarraitzeko elementu egituratzailatzat ulertzea. Emakumeen kirola indartzeaz gain, kirola bera balio parekideen hedapenerako bitarteko legez baliatu.
- Kirol-jardueraren ikuspegi inklusibo, holistikoa eta integratua txertatzea, beste helburu batzuk (osasun fisikoa eta mentala, gizarteratzea, bazterkeria, narko-ohiturak, hirugarren adina, mendekotasun fisikoa edo neuronala, ekonomia edo kultura) betetzeko euskarri integratu gisa.
- Ezarritako helburuak betetzeko, sailen arteko helburuak eta lan-protokoloak ezartzea.
- Proiektuak, azpiegiturak eta agendak planifikatzeko, aktibatze eta gauzatzeko hausnarketarako oinarriak eta baliabideak prestatzea.
- Beharrezkoa da Azpeitiko kirolari buruzko azterketa bat egitea: klubak, pertsonak, espezialitateak, beharrak, behar diren inbertsio-mailak, inpaktua-izulera, osasuna, parte-hartzaile berriak kualitatiboki eta kuantitatiboki.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,





ETXEBIZITZA

DIAGNOSTIKOA

ETXEBIZITZA-PARKEAREN BILAKAERA


XX. mendean, Azpeitiko biztanleria gehiago hazi zen Gipuzkoako batezbestekoa baino

- 2013tik 2020ra bitartean, % 3,8 hazi da Azpeitiko biztanleria (15.000 herritar pasatxo erroldan), eta handixeagoa izan da emakume-kopuruaren igoera (+% 4,6) gizonetzkoena baino (+% 3,1).
- Neurri handi batean, igoera hori bat dator 2013ko Plan Orokorraren aurreikuspenekin; hauxe zioten: 2020an 15.500 inguru biztanle izan ditzake Azpeitiak; 2008ko ekonomiaren atzeraldiaren eta dinamika demografikoaren eraginez, zaharkitu egingo da gizarte-egitura, eta behera egingo du ugalkortasun-tasak, gutxitu egingo baita umeak izateko adin-tartean dauden emakumeen kopurua.
- Epe luzera begiratuta, berriz, % 12 baino gehiago hazi da Azpeitiko biztanleria XXI. mendean, Gipuzkoa osoan baino portzentajezko 5 puntu gehiago. Egun, 42 urte ingurukoa da azpeitiarren batez besteko adina.

Biztanleriaren zahartzea eta adineko biztanleriaren garrantzi geroz eta handiagoa: funtsezko erronka datozen urteetako gizarte- eta etxebizitza-politikarako.


- 19 urte baino gutxiago ditu populazio osoaren % 21ek (Gipuzkoa osoan baino 2 puntu gehiago); 65 urtetik gorakoak, berriz, % 21,1 dira, Gipuzkoa osoko batezbestekoa baino gehiago.
- Hurrengo hamarkadan, nabarmen egingo du gora adinekoen kopuruak. 2030ean, 65 urte baino gehiago izango ditu Azpeitiko hiru biztanletik batek, eta asko igoko da populazioaren batez besteko adina, immigrazioak hazkunde aipagarria izan ezean behintzat.
- 20 urtez beheko populazioaren pisu erlatiboa ere igo egin da 2013az geroztik, % 18,5etik % 21,1era. Populazio immigrantearen ekarpenak gutxitzen du, hein batean, biztanleria zahartzearen eragina, batezbesteko adin txikiagoa dute eta, Euskadi osoan gertatzen den antzera.

Azpeitiko biztanleriaren bilakaera 2001-2020 epean




Biztanleriaren bilakaera, adin-tarteka, 2001-2020 epean: 20 urtez behekoak eta 64 urtetik gorakoak biztanleria osoarekiko duten pisu erlatiboa

20 urtez behekoak



64 ur

tetik gorakoak



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak.





ETXEBIZITZA-ESKARIA

1. Etxebizitza-beharrak eta -eskaria

- Lehenbiziko etxebizitzaren eskariaz eta etxez aldatu nahi zuen herritarren kopuruaz informazio fidagarria izatearren, ikerketa egin zuen Azpeitiko Udalak 2016ko amaieran.
 - o **Lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia**
Lehenbiziko etxebizitzaren beharra zeukaten 371 lagun zeudela detektatu zuen azterketak, eta hurrengo urteetan 22 etxebizitza berri behar izango zirela.
 - o **Etxebizitza aldatzeko premia**
Etxebizitza aldatzeko beharrari zegokionez, kalkuluen arabera 110 familiak zeukaten horretarako premia epe labur eta ertainean. Lagina hain txikia izanik, ezin izan zen jaso informazio esanguratsurik behar horren zergatiei buruz.
- Halaber, ez zen informaziorik eskuratu **egun udalerrian alokairu libreko etxeetan bizi ziren familiei buruz**. Bestalde, joera hau atzematen da Euskadi osoan COVID-19ak eragindako krisia dela medio: gainerakoek baino egoera ahulagoa jasaten dute alokairuko etxeetan bizi diren familia ugari (askok laguntzak jasotzen dituzte, hala nola EGPOak, LGak...), eta arazoak ari dira izaten errenta ordaintzeko. Hori dela eta, gizarte- eta etxebizitza-politiken arduradunek erne egon behar dute familia horien epe labur eta ertaineko premiak direla eta.

2. Etxebizitza babestuaren eskaria

- Etxebideren 2020ko datuen arabera, **Azpeitian erroldatutako 588 lagunek eta familiak eskatu dituzte etxebizitza babestuak**. Horietatik, 314k alokairukoak hautatu dituzte (% 53k); 274k, berriz, erostekoak (% 47k). Honenbestez, Azpeitiko **alokairuko etxebizitzaren eskaria txikiagoa da Euskadi osokoa baino, non 10 eskaritik 8 baitira alokairurako**.
- Bestalde, Azpeititik kanpo erroldatutako 103 familia-unitateren eskaerak ere jaso dira, eta horien artean are handiagoa da erosteko etxebizitzaren eskaria (% 57koa).
- Euskadi osoan ere atzematen da joera hori, eta Azpeitiko kasuan begiratu beharko litzateke ea ote den **salmenta libreko etxebizitzetan bizi diren geroz eta familia emantzipatu gehiagok eskatzen dituztelako alokairuko etxebizitza babestuak**. Euskadin, 4 eskaeretatik 3 dira horrelakoak, hau da, alokairu libreko etxeetan bizi diren herritarrenak eta familienak. Eskatzaile horiek alokairuko etxeetan bizi dira jada (asko, alokairuko BPE-en onuradunak dira edo EGPOak nahiz antzeko prestazioak jasotzen dituzte).



Azpeitia Udala

IDAZKARITZA

2020
an



erregistratutako eskaria, edukitza-erregimenaren eta egungo erroldaren arabera

%53,4

%46,6

%42,7

%57,3

- Euskadi osoko datuekin alderatuta, kaudimen ekonomiko handiagoa du Azpeitiko eskariak, udalerrri horretan handiagoa baita diru-sarreraren maila ertain-altua (18.896 euroko batez besteko sarrerak) dituzten herritarren eta familien ehunekoa, Euskadiko etxebizitza-eskatzailen batezbestekoa baino.

Kopuru absolutua	691	% 100,0
% GUZTIRA		
DIRU-SARRERAK		
Diru-sarrera haztatuen batezbestekoa (€)	18.896	
>=0 / <3000	43	% 6,2
>=3000 / <9000	59	% 8,5
>=9000 / <12000	91	% 13,2
>=12000 / <20000	192	% 27,8
>=20000 / <=25000	106	% 15,3
>25000 / <=32000	116	% 16,8
>32000 / <=39000	48	% 6,9
>39000 / <=50000	20	% 2,9
Egiaztatu gabe	16	% 2,3
TITULARREN SEXUA*		
Gizonezkoa	280	% 40,5
Emakumezkoa	255	36,9%
Biak	156	22,6%
KIDEAK		
1	474	%68,6
2	81	%11,7
3 / 4	96	%13,9
5 / +	40	%5,8

Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak;



- Etxebizitza babestuen alorrean egon daiteke, agian, estali gabeko nolabaiteko eskaria, kontuan izanik egun martxan daudela zenbait sustapen; aldiz, etxebizitza tasatuak esleitzea gehiago kostatzen da.
- Egun, 120 eskatzaile dira babes ofizialeko etxebizitza publikoa eskuratzeko itxarote-zerrendan daudenak. Hauei, etxebizitza tasatuko eskaintzaren zain dauden 9 eskatzaile gehigarri batu behar zaizkie.
- Aurreikuspenen arabera, 2019tik aurrera 120 bat etxebizitza eraikiko dira, gehienak babestuak eta batzuk tasatuak. Hurrengo urteetarako kalkuluek diotenez, neurrizko sustapen-maila izango litzateke gaur gaurkoz ageri den herritarren eskariari aurre egiteko.
- Bestalde, alokairu libreko etxeetan bizi diren familiak dira COVID-19aren eragina gehien jasan dezaketenak. Horrenbestez, garrantzi berezia dute Eusko Jaurlaritzaren prestazio eta laguntzen osagarri Udalak berak alokairurako ematen dituen laguntzen irismenak eta estaldurak. Gazteei eta 70 urtetik gorakoei eman zaizkien laguntzei dagokienez, 250 eurotik gorakoak dira.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,




ETXEBIZITZA- PARKEA


2013az geroztik, gehixeago hazi da Azpeitiko populazioa etxebizitza-parkea baino.

- 2010etik, % 5,8 hazi da Azpeitiko etxebizitza-parkea, Gipuzkoako batezbestekoa baino gehixeago, eta 6.770 zituen 2019an.
- 2013tik, % 3,1 hazi da etxebizitza-kopurua, epe berean populazioak izan duen igoera (+ % 3,8koa) baino zerbait gutxiago. Nolanahi dela ere, **apenas egon den desorekarik biztanleriaren eta etxebizitza-parkearen hazkundeen artean.**

Etxebizitza-parkearen bilakaera, 2010-2019



Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua, Udalaren idazkariak,



2019-2010 epeko bilakaera | % 5,8


Batez beste 41 urte ditu Azpeitiko eraikin-parkeak, Gipuzkoako batezbestekoak baino 4 gutxiago.

- 2019ko urtarrilean, 581 eraikin eta 6.770 etxebizitza zituen Azpeitiko eraikin-parkeak. Batez beste, 41 urte dituzte eraikinek, Gipuzkoako parkekoek baino 4,8 urte gutxiago, zeinen batez besteko antzinatasuna 45,9 urtekoa den.
- Bestalde, nabarmen egin dute aurrera birgaitze-prozesuek. Azken bi urteotan, asko igo da EITen kopurua: 2019an, adibidez, 239 egin ziren.
- Igogailua duten Azpeitiko eraikinen ehunekoa % 75,9 da (lau etxetik hiru), Gipuzkoako batezbestekoa baino portzentajezko 4 puntu altuagoa. Familiarrak ez diren etxebizitzaren portzentajea, berriz, % 15 da, Gipuzkoako parkearena bezalakoa.

	Eraikineko etxebizitza-kopurua						Batez besteko antzinatasuna (urteak)
	1	2	3-10	11-20	21-40	>=41	
Gipuzkoa	23.722 % 6,9	8.775 % 2,5	116.147 % 33,6	110.203 % 31,9	63.780 % 18,5	22.697 % 6,6	45,9 % 0,0
Azpeitia	581 % 8,6	234 % 3,5	2.862 % 42,3	2.484 % 36,7	421 % 6,2	179 % 2,6	41,1 % 0,6

	Batez besteko azalera erabilgarria (m ²)	Gela-kopurua					Bainugela-kopurua		Igogailua
		1-3	4	5	6	>=7	1	2 edo gehiago	
Gipuzkoa	86,9 % 0,0	24.824 % 7,2	89.846 % 26,0	173.888 % 50,4	39.846 % 11,5	16.920 % 4,9	231.943 % 67,2	110.895 % 32,1	247.353 % 71,6
Azpeitia	103,8 % 1,5	123 % 1,8	726 % 10,7	3.958 % 58,5	1.623 % 24,0	331 % 4,9	3.826 % 56,6	2.880 % 42,6	5.132 % 75,9

	Guztira	Familia-etxebizitzak			Familia-etxebizitza nagusien ezaugarriak				Igogailua (%)
		Guztira	Nagusia	Gainerakoa	Bizilagune n batez best. kopurua	Batez besteko antzinatasuna	Batez best. azalera erabilgarria	Berogailua (%)	
Azpeitia	6.770	6.761	5.712	1.049	2,6	40,0	102,2	79,4	79,7
0001 Azpeitia	6.231	6.225	5.326	899	2,6	39,5	101,1	80,3	82,2
0002 Loiola	178	175	116	59	2,6	52,1	121,6	71,6	37,1
0003 Nuarbe	35	35	23	12	2,3	60,0	89,9	60,9	34,8
0004 Urrestilla	326	326	247	79	2,8	44,5	118,7	65,2	50,2



- Badirudi HAPOak aurreikusitako erritmoari jarraitu diotela bai bilakaera demografikoak, bai emantzipatu gabeko populazioaren beharrek. Ez da beharrezkotzat jo une honetan HAPOa berrikustea etxebizitza berrien eraikuntza-aurreikuspena presio demografiko handiago bati egokitzeko.
- Birgaitzeari dagokionez:
 - o Kontsultatutako arduradunen eta teknikarien iritziz, orain arte arrazoizkoa izan da EITak egiteko erritmoa, inguruko udalerrietakoaren parekoa.
 - o Oro har, ez da jotzen berariazko arazo esanguratsurik dagoenik birgaitze-prozesuei ekiteko, alde batera utzita obra handiak egin behar diren eraikin zahar batzuetako jabeen komunitate batzuek dituzten arazo ekonomikoak.
 - o Dena dela, gerta daiteke Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak nahikoa ez izatea obra handi samar batzuetarako. Hain zuzen ere, hori da hurrengo urteotan jorratu beharreko alorretako bat, batez ere eraikin jakin batzuetan: egoera edo antzinatasuna dela eta inbertsio-premia handia dutenak eta lanei ekiteko arazoak dituztenak.
 - o Alde Zaharrean, Nuarben eta Urrestillan nabari da gehienbat arazo hori, bai eraikinen egituragatik, bai eraikineko biztanle-kopuru txikiagatik.


Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



ALOKAIRUA ETA ETXEBIZITZA HUTSAK

2013az geroztik, intentsiboagoa izan da Azpeitiko etxebizitza-parkearen erabilera, eta areagotu egin da etxebizitza nagusien kopurua eta pisu erlatiboa.

- 2013koa baino intentsiboagoa da egun etxebizitza-parkearen erabilera: 2013tik 2019ra, % 2,5 igo zen Azpeitiko etxebizitza nagusien pisu erlatiboa, eta etxebizitza-parkearen % 84,4ra iritsi.
- Sasoiko etxebizitzaren eta etxe hutsen erabilera, berriz, proportzio berean jaitsi zen, % 15eraino; hots, Gipuzkoakoaren parera.
- Zenbaki absolutuetan adierazita, 336 etxebizitza nagusi gehiago zeuden 2019an, 2013an baino % 6 gehiago. Beraz, 2013an baino 300 familia gehiago bizi dira, egun, Azpeitiko etxebizitza-parkean.



etxebizitza-parkearen bilakaera, etxebizitza-motaren arabera (2013-2019)

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzatzen 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Alokairu libreko etxebizitza-kopurua handiagoa izateari lotuta egongo da, seguruenik, parke eraikiaren erabilera handiago hori.

- Eusko Jaurlaritzaren Alokairu Merkatuari buruzko Inkestak argi erakusten du zein diren alokairuen batez besteko prezio errealak. Azpetiari dagokionez, **270 fidantza baino gehixeago gordailutu dira Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako Ordezkaritzan**. Estatistika horren arabera, 2019ko ekainean indarrean zeuden kontratuen batez besteko errenta 515 eurokoa zen, 5.000 biztanletik gorako EAEko udalerrietako batezbestekoa baino

160 euro merkeagoa. 2016tik 2019ra, 20 euro besterik ez zen igo hileko errenta, hots, % 4 hiru urteko epean.

Azpeitiko alokairu-kontratuen batez besteko prezioa, 5.000 biztanlerik gorako EAeko udalerrietakoekin alderatuta.

Hileko batez besteko errenta (€)	2016 Euro/hil	2017 Euro/hil	2018 Euro/hil	2019 (1) Euro/hil	2019-06-30ean indarrean zeuden alokairuak (*) Euro/hil
5.000 biztanletik gorako udalerrietako batez besteko prezioa	643,4	654,3	679,3	696,0	678,6
Azpeitia	500,2	499,0	522,7	519,2	515,4

(*) Honela eguneratzen da aurreko urteetako kontratuen hileroko errenta: kontratua sinatu zen dataren eta EAeko erreferentziako dataren artean KPlak izandako igoeraren arabera.

- Beraz, Euskadiko gainerako udalerrietan bezala, Azpeitian ere alokairuko etxe merkeen eskasiak eragiten du **neurritzko errenten urritasuna, bai eta horrelako etxebizitzak eskatzen dituzten herritar eta familia gehienen diru-sarreraren apaltasunak ere.**
- Azpeitiko daturik ez daukagu, baina alokairu-erregimenean bizi diren EAeko familien batez besteko errenta 20.000 euro ingurukoa da, batezbestekoa baino askoz txikiagoa; hori dela eta, % 30 ingurukoa edo hortik gorakoa da alokairua ordaintzeko erabiltzen den diru-sarreraren ehunekoa, hots, egokitzat jotzen den gehieneko mugaren parekoa.

...eta hutsik dauden etxebizitzaren kopuruaren gutxitzea azken hamarkadan


- Aipatutako adierazleekin bat eginik, Azpeitian gutxituz joan da etxebizitza hutsen kopurua, eta 2019an udalerriko etxebizitza-parkearen % 12 ingurukoa zen, 2013-2020 Plan Estrategikoaren jarraipen-adierazleen arabera.
- Azpeitiaren tamaina bertsuko udalerriei buruzko (2.5000-10.000 biztanle) Eusko Jaurlaritzaren datuekin alderatuta, nabarmen txikiagoa da ehuneko hori EAEn (% 6,4koa).
- Nolanahi dela ere, 2015eko ekainaren 18ko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen definiziora hurbiltzen bada etxebizitza hutsen eraginaren azterketa eta hark agintzen dituen baldintzak aplikatzen badira, litekeena da nabarmen jaitea % 12ko portzentaje hori.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,



Azpeitia

Denontzat



Hutsik dauden etxebizitzaren ehunekoa, parke osoarekiko, ur-kontsumoaren datuak kontuan hartuta

Unitateak: %

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

- Etxebizitza hutsei dagokienez, udalak lehendik egin zuen ikerketa bat aipatzen dute. Dena dela, litekeena da etxebizitza horiek profil konplexukoak suertatzea merkatura bideratu nahi izanez gero, etxe arruntak baino zaharragoak izaten baitira eta birgaitze-premia handiagoak izaten baitituzte.
- Bestalde, nabarmena da Bizigune programak udalerrian duen eragina. Gaur egun, 70 etxe baino gehiago daude programan erregistratuta; beraz, ahalegin handia egin dute erakunde publikoek etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzeko eta etxebizitzak eskuratzeko zailtasun handienak dituzten taldeek udalerrian bizitzeko aukera izan dezaten.
- Euskadiko udalerri gehienetan bezala, urria da Azpeitian ere alokairuko etxeen eskaintza, eta urritasun horrek zaildu egiten die etxebizitza eskuratzeko premiarik handieneko taldeei eta etxea erosteko zailtasunik handienak dituztenei.

2013-2020 EPERAKO EKINTZAK ETA PROIEKTUAK

2013-2019 EPEKO EKINTZA NABARMENAK

ETXEBIZITZA-POLITIKA

- Lehentasuna eman zaio **behar handiko** egoeran dauden **taldeak eta gazteak** babestutako etxebizitzaren merkatura bideratzeari. Era askotako jendeari eta taldeei eman zaizkie dirulaguntzak.
- Zenbait neurri sustatu dira **hutsik dauden etxebizitzak** merkatura ateratzeko (Bizigune Programaren bitartez 70 bat alokairu bideratu dira).
- **Azpeitia Berritzen-ek kudeatzen du programa guztien informazioa.**

EOIN GABE GERATU DIREN EKINTZAK

- BOE-etatik egitea etxebizitza-erreserba, arazo berezietarako (larrialdietarako etxebizitzak, babespekoak...).
- Etxebizitzetan material ekologikoen eta energia aurrezteko baliabideen erabilera sustatzea eraikinak birgaitzeko eta egiteko obretan.
- Alde Zaharra suspertzeko hobari-sistema bat ezartzea.
- Etxerik ez dutenentzako eskualdeko aterpetxea egitea.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





IRAKURKETA

GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

1. Kontsultatutako teknikariak bat datoz honetan: epe labur eta ertainera, lehenbiziko etxebizitzaren eskariari erantzuteko udal-lanketak, beharrianak osatzen joatea ahalbideratu du. Etxebizitza-premiari buruz 2016an egindako azterketak berretsi egin zuen baieztapen hori; dena dela, Etxebiden izena eman dutenen kopuruak adierazten du badagoela zer hobetua gune kritikoei dagokienez.
2. Neurri handi batean bete egin diren hazkunde demografikoko aurreikuspen batzuen arabera diseinatu zen 2013ko HAPOa, egun indarrean jarraitzen duena, eta ez da ikusten hura berritzeko premiarik, epe laburrera behintzat.
3. Alokairu libreko merkatuan ez da aparteko tentsiorik nabari, baina urria da horrelako etxebizitzaren eskaintza:
 - a. Bizigune programak ezarpen handia izan du, eta Etxebiden izena emana duten herritarrek bizi dira erregistratutako 70 etxebizitzetan. Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen du programak.
 - b. Erkidegoko egoerarekin alderatuta, alokairuen batez besteko prezioak ez dira bereziki garestiak (batez beste, 519 euro, 2019an sinatutako kontratuei buruzko AMEaren arabera). Gainera, prezioak nahiko egonkor mantendu dira azken urteotan.
 - c. Udalak osatzen du berez ere nahikoa trinkoa den Eusko Jaurlaritzaren laguntza- eta prestazio-sistema (EGPOak). Kasu batzuetan (baldintza jakin batzuk betetzen dituzten gazteak eta 70 urtetik gorakoak), hileko 400 eurokoak izaten dira laguntza horiek.
4. Etxebizitza hutsen eragina:
 - a. Euskadi osokoarekin alderatuta, handi samarra ematen du Azpeitiko etxebizitza hutsen kopuruak, baina antzeko tamainako udalerrietakoaren parekoa da, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera.
 - b. Dena dela, laster onartzekoa den etxebizitza hutsen gaineko kanona erronka handia izango da udalentzat, etxe hutsen inbentarioa egin beharko baitute eta metro karratuko 10 euroko kanona kobratu.
 - c. Etxebizitza horien jabeekin hitz egiteko aukera ona izan daiteke egoera berria, eta hutsik dauden etxeak alokairuko merkatura bideratzeko neurriak hartu beharko dira (esate baterako, egoerarik txarrean dauden etxeetarako berariazko programak, etxebizitza horiek Bizigunen 5 edo 10 urtez edukiko direla bermatzen dutenak).



GUNE KRITIKOAK

1. Oraindik ere badago etxebizitza-eskaria, bistakoa ez bada ere, batez ere diru-sarrera txikieneko herritarren artean.
 - 1.1. Etxebidek ematen duen informazio eguneratuaren arabera, oraindik ere nabarmena da erosteko etxebizitza babestuaren eskaria: BOEak erosteko 274 eskaera egin dute Azpeitian erroldatutako herritarrek, eta beste 59 erroldatu gabekoek. Eskatzaileen % 40 inguru 30 urtez behekoak dira.
 - 1.2. Eskari osoaren erdiak dira horiek, gutxi-asko, eta Euskadiko batezbestekoa baino gehiago (eskaeren % 80 alokairurako dira Euskadin).
2. Alokairuko etxebizitzetan bizi diren eta normalean egoera ekonomikorik eskasena pairatzen duten herritarrentzako eta familientzako laguntzei dagokionez, laguntza-maila nabarmena dira Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren prestazioak. Hala eta guztiz ere:
 - 2.1. Gogoan izan behar da, alokairuen prezioa erlatiboki eskuragarria izan arren, alokairuan bizi diren edo bizi nahiko luketen herritarren errenta mailarentzat, erlatiboki, pisu astuneko gastua suerta daitekeela. Gainera, alokairurako etxebizitzaren eskaintza mugatua da, gaur gaurkoz.
 - 2.2. Udal laguntza gehigarrien banaketa sistema berrikustea aztertu daiteke, prestazioak batera eman beharrean, hilerio emateko aukera aztertuz.
 - 2.3. Komeni da argitzea zertan den etxebizitza babestuaren eskaria, Etxebiden erregistratutako eskariak aztertu eta laginketa xume bat eginez, jakiteko eskatzaileetatik zenbat bizi diren alokairu libreko etxeetan eta zenbateko laguntzak jasotzen dituzten.
 - 2.4. Azterketa labur honek, bestalde, aukera emango du jakiteko COVID-19aren krisia zenbaterainoko zailtasunak ari den sortzen familiei alokairuak ordaintzeko, barne direla Bizigune programaren onuradun direnak. Hartara, alokairuen ez-ordaintzei eta etxegabetze-aginduei aurrea hartzeko moduan litzateke Udala.
3. Birgaitzeari dagokionez, berriz, martxa onean ari dira egiten EITak, baina oraindik ez dakigu zenbat obra egin diren, batez ere premiazko kasuetan. Interesgarria litzateke, beraz, birgaitze-lanen kudeaketa integratua egitea, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzei Udalarenak gehituz eta PFEZaren kenketan obrak justifikatzen lagunduz. Izan ere, adineko jendeak ezin ditu eskatu laguntza horiek hesi burokratiko hori dela medio.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





Azpeitia Udala

DAZKARITZA

PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Hona hemen erronka nagusiak, 2016ko txostenaren arabera:

1. HAPO: hirigintza-politikaren jarduera-esparrua

2013an onartu zen indarrean dagoen Plan Orokorra, eta harrezkeroztik hark zuzentzen du udalerriko hirigintza- eta etxebizitza-politika. Plan Estrategikoaren 2016ko eguneratzeak berariaz proposatzen du honako hau hirigintzaren alorreko erronka nagusi gisa:

Hiri-antolamenduak denon premiak ase behar ditu. Azpeitiko Udalaren Hirigintza sailaren helburua da Azpeitia ahalik eta egokien eraikitzea, azpeitiarren beharrak ahalik eta ondoen asetzeko, azpiegiturak ahalik eta eraginkorrenak izateko eta, finean, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Halaxe dio Udalak bere webgunean. Eta hiri-antolaketa horretan kontuan hartzekoa da adinekoen ikuspegia, espazio publikoa haien premietara egokituz, irisgarritasuna erraztuz eta hainbat baliabide ezarriz (eserlekuak, komun publikoak...). Beraz, horrek guztiak dakar ekipamendu eta eraikin publikoen mapa egitea eta horien erabilerak birpentsatzea, herritarrekin batera.

Etxebizitza berriak eraikitzeko planifikazioari eta aurreikuspenari dagokionez, hau proposatzen zuen Planak: *etxebizitza berri gehiagoren (1.371 etxeren) eskaintza egitea*, proposatutako antolamenduari jarraikiz. EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Plan Orokorrerako proposatutako tartean sartzen da proposamen hori (1.037-1.586 etxe). Dagokion legediaren arabera, zenbait tipologiatako etxebizitzetara dagokie etxebizitza-eskaintza hori, bai babes publikokoei (BOEak eta etxebizitza tasatuak), bai salmenta librekoei. Etxebizitza horietatik, nolabaiteko babes publikoko erregimenena dagokio % 50i. Plan Orokorraren berrikuspen-prozesuan gutxieneko helburu gisa proposatutakoa (500 etxe) baino askoz handiagoa da kopuru hori.

2016an Udalak egindako azterketak eta Etxebiden erregistratutako erosketa-eskariak, berriz, adierazten dute neurritzkoa dela lehenbiziko etxebizitza eskuratu nahi duten herritarren eta familien kopurua. Orotara, 275 etxebizitzatik beherakoa da eskaria.

Alokairuko etxebizitza babestuen sustapenari dagokionez, komenigarria litzateke zehazki jakitea zenbatekoa den egungo alokairuko etxebizitzaren parkea eta Etxebiden izena emana duten eskatzaileetatik zenbat ari diren jada alokairu libreko etxe batean bizitzen.



2. Etorkizunak ekar ditzakeen erronkak:

Aurrera begirako lanketan, etxebizitzaren alorrean sortzen ari diren erronka desberdinen garrantziaz jabetzeko eta hauei eraginkortasunez heltzeko, ikuspegi partekatu eta zuzentzailea izango duen **etxebizitza-politika integral** bat diseinatzea, eratzea eta adostea izango litzateke lehendabiziko erronka.

2.1. Emantzipatzeko zailtasunik handienak dituzten taldeei laguntzen jarraitzea etxebizitzak arrazoizko prezioan eskura ditzaten, batez ere gazteei eta etorkinei, eta etxebizitza eskuratzeko diskriminazio-egoerak murriztea

Komenigarria litzateke Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea, dauden laguntza-mota ugariak aztertzea, sinergiak egiten saiatzea eta eraginkortasunez jardutea aipatutako taldeen alde.

Alor horretan eta aurrekoan, erreferentziako udala da Azpeitiko, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen osagarri beste batzuk ematen baitizkie alokairua ordaintzeko zailtasunik handienak dituzten taldeei (gazteei eta adinekoei, adibidez).

Jabetza-erregimeneko etxebizitzetan, berriz, neurrizko prezioko etxebizitzak (babestuak, tasatuak) ekoizteko edo eraikitzeako erritmo bat sortu behar da hurrengo urteotan, eskatzaileak gazteenen egiazko eskari-mailari eta eskatzen den etxe-motari egokituia.

Konkretuki gazteen emantzipazioa atzeratzen ari den prozesua da, eta horrek beste arazo batzuk badakartza, hala nola gazteen laneratzearekin eta gizarteratzearekin lotutakoak. Gazteen emantzipazioa errazteko sustapen lanek foku berezia eskatzen dute.

Ikuspegi horretatik, alokairuko etxebizitzaren alorrean eskaintza sendotzearen aldeko pausuak ematea lehentasunetako bat bilakatu beharko litzateke. Eskaintza areagotzearekin batera etorri beharko litzateke errenta-mailaren eta alokairua ordaintzera bideratzen den gastuaren arteko balantza orekatuago bat lortzeko ahalegina.

2.2. Etxebizitza hutsen kopurua gutxitzea eta hauek alokairuko merkatura bideratzea

Etxebizitzari buruzko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak zenbait neurri proposatzen ditu etxebizitza horiek merkatura bideratzeko, eta udalei ematen die protagonismo nagusia. Hauek dira neurrietako batzuk: hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa sortzea, Legeak proposatzen duen etxebizitza hutsen definizioari jarraikiz, eta metro karratuko 10 euroko kanona ezartzea etxe hutsei. Udalek kobratu behar dute kanona, lege horren arabera.

Gutxienez 2 urte hutsik daramaten etxebizitzak, salgai edo alokagai ez daudenak eta ezinbestean hutsik ez daudenak (lan- edo osasun-arrazoiak eta abar).

Udalak erreġargua ezartzen dio hutsik dauden etxebizitzaren OHZri, eta alokairu-politikak hobetzeko erabiltzen du erreġargu horren bidez jasotzen duen dirua.

Eusko Jaurlaritzak 2021aren erdi aldera indarrean jarriko duen etxebizitza hutsen gaineko kanonaren dekretu berriak zenbait betekizun ezartzen dizkie udalei, hutsik dauden etxebizitzaren inbentarioa egin eta hainbatean behin egunera dezaten, eta baimena ematen die etxebizitza hutsen gaineko kanona kobratzeko (10 euro/urte metro karratuko) eta alokairu-merkatura etxebizitzak bideratzearen beste zenbait neurri hartzeko.

Aukera egokia da tresna berri hori etxebizitza hutsak merkaturatzeko politika trinkoagoa eta iraunkorragoa ezartzeko, araudi oso sendoa baitu oinarri (Etxebizitzari buruzko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legea, adibidez); horrez gain, etxebizitza hutsen definizioa egiten du, eta alor horretan Euskadiko udalek bete ahal (eta behar) dituzten neurriak finkatzen.

2.3. Udalerriko birgaitze- eta berritze-prozesuei laguntzea, eta eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea

Etxebizitza-kanonari buruzko EAEko araudi berria lagungarri izan daiteke honetarako ere: alokairu-merkatura bideratu aurretik inbertsio bat behar duten etxebizitza hutsak birgaitzeko programak martxan jartzeko. Horretarako, laguntzak eskain dakizkieke jabeek, eta horren truke etxebizitza horiek Bizigune programan edo antzekoetan hainbat urtez edukitzeko eskatu.

Adinekoen artean, berriz, funtsezkoa dirudi eraikinen eta etxebizitzaren birgaitze-, irisgarritasun- eta egokitze-politikak sustatzea, eta erraztasunak ematea ahalik eta luzaroen eta independentziaz bizi daitezen euren etxeetan. Politika horietatik gehienak beste erakunde batzuek erabakitzen dituzte, baina Udalak ere lagundu dezake, lehendik banatzen diren dirulaguntzak nola eskuratu eta PFEZn horrelako obren gastuen kenketa nola egin erakutsiz. Egun, gutxi baliatzen da kenketa hori.

Besteak beste, aholku eman dakieke adinekoei etxe barruko —logelak, bainugelak...— irisgarritasuna hobetzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak eska ditzaten, eta PFEZren aitortzearen babesgarri gisa sailkatutako obra horien kenketa automatikoa nola egin jakin dezaten, dirulaguntza jaso ondoren.

Halaber, prozesu horiek errazteko neurriak ere azter daitezke; adibidez, JHLaren aukerak areagotzea (tamaina handiko etxeak banantzea, adibidez), jabeen erkidegoei laguntzea EITek agintzen dituzten premiarik handieneko obrak egiteko bitartekaritza- eta aholkularitza-prozesuetan, eta irisgarritasunari dagozkion beste zenbait, betiere jarduera-lerro horien kostu finkoak optimizatuz.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



2.4. Laguntzei buruzko komunikazio- eta hedapen-sistemak indartzea, bai eta haien gaineko aholkularitza ere.

Etxebizitza arloan dauden laguntza, aukera eta abarri buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzea herritarrei.

Alor hori eraginkortasunez kudeatzen dute Udalaren gizarte-zerbitzuek. Informazio- eta laguntza-eskaerak kudeatzeaz gain, herritarren artean horien berri zabaltzeaz ere arduratu behar lukete zerbitzu horiek. Garrantzi berezia dute birgaitze-lanei dagozkien laguntzek eta zerga-kenketek, antza denez ez baitaude oso errotuak Udalaren arreta-zerbitzuen eguneroko jardunean.

Bestalde, komeniko litzateke harreman estuagoa izatea Eusko Jaurlaritzarekin edo, dagokionean, Eudelen udal-sareekin, esperientziak trukatu eta Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriaren programa berritzaileetarako sarbidea hobetzeko zenbait alorretan; esate baterako, *cohousing*ari eta birgaitze-lanen zein energia-birsorkuntzaren sustapenari dagokienez.

2.5. Etxebizitza eskuratzeko bestelako eredu batzuk: erabilera-lagapeneko etxebizitzak

Aldi berean, etxebizitza eskuratzeko beste eredu batzuen eskari potentziala eta bideragarritasuna aztertzen has daiteke. Europako iparraldean oso hedatuak daude eredu horietako batzuk; esate baterako, erabiltzeko lagatzea edo *cohousing*a.

Bereziki interesgarriak dira aukera horiek, bizimodu-eredu alternatiboetan, adin-tarte jakin batetik aurrerako jendearentzat (55 urtetik gorakoentzat, adibidez), bizikidetza aktiboa, independentzia eta zaintza zein arreta soziosanitario egokiak bermatzen baitituzte.

Hala ere, urrats bat harago eginez, adin desberdinetako jendearen arteko elkartrukeak eta elkar-laguntza erdigunean jartzen dituzten etxebizitza komunitate partekatuen bidea ere, esploratzeko legoke.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua, Udalaren idazkariak,






INGURUMENA ETA KLIMA

DIAGNOSTIKOA


KLIMA ALDAKETA

- Udalerri osoko berotegi-efektuko gasen isurketak (industria eta lehen sektorea kontuan hartu gabe) 76.741 tCO_{2b} izan dira 2018an, 2010ekoaren antzeko balioa, krisi ekonomikoaren aurreko balioak murriztu eta ondoren berreskuratu ondoren.
- Biztanle bakoitzeko balioak 5,14 tCO_{2b}/bizt/urte dira, EAEko 2017ko batez besteko balioaren maila berean (5,1 tCO_{2b}/bizt/urte).

Udalerriko berotegi-efektuko gasen isuria - industria eta lehen sektorea kanpo - (tCO_{2b})



Iturria: Azpeitiko Udala




- Garraioaren sektorea da, emisioen % 74 izanik, emisio guztien sektorekako banaketan pisu handiena duena. Oso urrun daude bizitegien eta zerbitzuen sektoreak (%13 eta %10, hurrenez hurren) eta, azkenik, hondakinen kudeaketari lotutako isurketak (%3).

Iturria: Azpeitiko Udala

osokoen antzeko bilakaera izan dute; hala ere, azken urteetan beheranzko joera antzeman da.

- Udalaren berotegi-efektuko gasen isurketak 2.187 tCO_{2b} izan dira 2018an, eta udalerri

Udaleko berotegi-efektuko gasen isuria (tCO_{2e})



Iturria: Azpeitiko Udala

Klima-aldaketaren arloko tokiko ekintza bi lan-ildotan egituratzen da: batetik, berotegi-efektuko gasen emisioak arintzea edo murriztea, eta, bestetik, klima-mehatxu nagusien ondoriozko arriskuei aurrea hartzea dakarren egokitzapen-arloko ekintza.

BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURIAK ARINTZEA

Udalerri osoko berotegi-efektuko gasen isurketen bilakaerari dagokionez (industria eta lehen sektorea kontuan hartu gabe), beheranzko joera ikusten da 2010-2014 aldian (2013ko hazkundera alde batera utzita, zeina, printzipioz, kalkulu-kontu metodologikoei erantzuten diela baitirudi), krisi ekonomikoaren urterik gogorrenekin eta egoera ekonomikoa pixkanaka berreskuratzearekin lotutako isurketen gorakadarekin bat datorrena.

EAEko udalerri gehienetan gertatzen den bezala, industria eta lehen sektorea (udalerriaren tipologiaren arabera emaitzak desitxuratu ditzaketen bi sektore) alde batera utzita, garraioa da berotegi efektuko gasen banaketan pisu handiena duen sektorea (%74). Atzetik datoz, distantzia handiz, bizitokiak eta zerbitzuak (%13 eta %10 besteak beste), non argindarrak eta gas naturalaren kontsumoak eragiten baitute, eta, azkenik, hondakinak (%3). 2017an bilketa-sisteman izandako aldaketaren ondoriozko gaikako bilketaren tasak gora egin izanak eragin nabarmena izan du sektore horri lotutako isurketetan, eta, ondorioz, isuri guztien banaketan duten pisua ere nabarmen murriztu da (lehen, %10ekoa zen gutxi gorabehera).

Bestalde, udalerriko **basogintza-sektorearen hustubide efektua** azpimarratu behar da; izan ere, CO₂ xurgatuz gero, isuriak arintzen laguntzen dute. 2018an, udalerriko baso-azalerak xurgatutako isurketak 920 tCO₂ izan ziren, 2010ekoak baino %20 gutxiago, udalerriko baso-azalera murriztu egin baita aldi horretan.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



KLIMA MEHATSUAK ERAGINDAKO ARRISKUEI EGOKITZEA

Esan liteke azken urteotan ahaleginak arriskuak arintzeari buruzkoak izan direla, eta ez hainbeste egokitzeari buruzkoak. Hala ere, zenbait ekintza, **egokitzapenaren** ikuspegitik planteatu ez badira ere, horretan laguntzen ari dira ("egokitzeko aktiboak" deiturikoak dira), hala nola biodibertsitatearen babesarekin, uraren kudeaketaren hobekuntzarekin edo ibaien eta erreken birnaturalizazioarekin zerikusia duten gaiak.

Zentzu honetan, egokitzapena sustatze aldera, aintzat hartu beharreko da lhobek EAEko udalerri bakoitzerako kalteberatasunari eta arriskuari buruz egindako azterlana, jarraian zehazten diren eragin-kateak aztertzen dituenak:

- Giza osasunean eragiten duten muturreko bero-gertaera edo -boladak
- Hiri-inguruneak erasaten dituzten ibai-uholdeak
- Lehortek handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan
- Itsas mailaren igoerak eragindako uholdeak hiri-inguruneetan (inpaktu-kate honek ez luke eragin zuzenik udalerrian)

Klima aldaketaren egokitzapen politiketan **bioaniztasunaren** babesa eta **hiri-eremuaren berdatzea** (naturan oinarritutako irtenbideen bitartez) garrantzi berebizikoak dira. Gainera, ekosistemen zerbitzuen ikuspegia kontuan hartuta, lan-ildo honek onura handiak dakartza hainbat ikuspuntutatik (hustubide efektua, biodibertsitatearen sustapena, drainatze jasangarria, aisiaren eta kulturaren sustapena, etab.)

2013an onartutako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrean natur eta paisaia balioak kontserbatzea eta babesteko neurriak hartu ziren eta, ildo horretan ekimen batzuk burutu diren arren, oraindik heldu beharreko hainbat gai daude, hala nola:

- Lur galerari aurre egiteko, Aldundiarekin elkarlanean, jabego pribatuko basoetan egiten diren mozketak eta landaketen gaineko jarraipena egin, kontrolerako neurriak hartzeko.
- Baso-ustiapenerako bideen erabilera eta mantenua erregulatuko dituen ordenantza onartu.
- Babestutako gunetako intereseko eremuetako lurrak erostea.
- Udalerriko azpiegitura berdeen estrategia planifikatzea, eremu naturalak, landa eremuak eta hiri eremuak kontutan hartuta.

Azkenik, klima aldaketaren mehatxuen aurrean **uraren kudeaketa** egokia ere ezinbestekoa da. Udalak urteak daramatza hornidura eta saneamendu sarean hobekuntzak egiten, alde batetik ur galerak murrizteko helburuarekin eta, bestetik, ur zikinak jasotzeko sarea osatzeko. Azken urteetan egindako lanei esker, ur galerak %9,27 -raino jeitsi dira (2018an %32,27koak izatera iritsi ziren) eta gaur egun saneamendu sarea asko osatu dela aipatu daiteke.

Kale garbiketa eta lorazaintzarako euri urak biltzea eta baserrietako hondakin uren bilketak inbertariatzea oraindik egiteke daude.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udaltzat 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,





ENERGLA

- Udalerriko energia-kontsumoa 285.047 MWh-koa da (2018). Urte batzuetan beheranzko joera positiboa izan ondoren, 2018an (eskuragarri dagoen azken datua) igoera txiki bat ikusten da, eta ikusi beharko da puntuala den edo joera-aldaketa bati erantzuten dion.


Udalerriko energia-kontsumo osoa (MWh)



Iturria: Azpeitiko Udala


- Bestalde, etxeko elektrizitate-kontsumoa, biztanle eta urte bakoitzeko, egonkortu egin da 2013. urteaz geroztik: 1.100 kWh/bizt/urte eta 1.180 kWh/bizt. Kopuru hori EAEko batez bestekoaren azpitik dago (1.275 kWh/bizt/urte).

Energia elektrikoaren etxeko kontsumoa, biztanle eta urte bakoitzeko (kWh/bizt)



Iturria: Azpeitiko Udala

- Udalaren kontsumoari dagokionez, 2013-2019 aldian %21eko murrizketa izan da, energia-efizientzia hobetu delako, batez ere udal-eraikin eta - ekipamenduetan, baina baita argiteria publikoan ere.
- Kontsumo gehiena (%53) kirol-ekipamenduetan biltzen da, eta, ondoren, kultura-ekipamenduetan (%19) eta hezkuntza-ekipamenduetan (%12). Era berean, eraikinetako energia-kontsumoaren %87a 12 ekipamendutan biltzen da.



Udaleko
energia-
kontsumo osoa
(MWh)

Iturria: Azpeitiko
Udala

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Energiaren Euskal Erakundeak sustatutako "Alkateen Itunerantz zuzenduz" ekimenarekin bat egitea eta 2016an Udal Energia Plana onartzea lagungarri izan dira arlo horretako tokiko ekintza antolatze eta esku hartze lehentasunak ezartzeko.

Beste elementu aipagarria kontsumoen kontrola eta jarraipena da, energia-kudeaketako software baten bidez egiten dena. Horri esker, fakturazioko gorabeherak antzeman eta zuzendu daitezke, eta, horrez gain, udalerriko argiztapen-puntuen eta ekipamenduen urteko kontsumoen bilakaera azter daiteke. Kontratututako potentzia egokitzeko ere oso baliagarria izan da, izan ere, hamabi instalaziotarako kontratatutako potentzia optimizatu da, eta urtean 11.000 € inguru aurreztu dira.

Ildo honetan, Azpeitiko Udalak urteak daramatza bere energia eskaria murrizten eta udal-ekipamenduen eta argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzen, bai eta energia-iturri berriztagarriak pixkanaka sartzen ere.

Ekipamendu publikoen eraginkortasun energetikoaren esparruan, 2014-2019 iraunaldian udal energia kontsumoa %41ean murriztea lortu dela ikusita, lehentasunak eta esku-hartzea modu egokian finkatu direla aipatu daiteke. Aurrera eraman diren jardueren artean hauek nabarmendu daitezke, besteak beste:

- Eraikin publiko guztien auditoretza energetikoak egin dira.
- Fatxadetako bero-isolamendua hobetzeari dagokionez, azken urteetan udal igerilekuen eraikineko inguratzaille termikoaren birgaitze energetikoa egin da eta Karmelo Etxegarai ikastolako bi eraikinetako leihoak aldatu dira.
- Bestalde, eraikin publikoetako ziurtagiri energetiko guztiak lortu dira.

Argiteria publikoaren esparruan 2015ean auditoretza egin zen eta 2014-2019 iraunaldian 2.000 argi baino gehiago aldatu dira, horrekin energia kontsumoa %25ean murriztea lortu delarik.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



Udal-ekipamenduetan **energia-iturri berriztagarriak** instalatzeari dagokionez, hainbat jarduera egin dira azken urteotan, horien artean:

- Udal igerilekuan, bertatik gertu dauden ur termalen aprobetxamendua egiten da, bertako gas kontsumoa murriztu ahal izateko. Bestalde, autokontsumorako eguzki-panel fotovoltaiakoak jarri dira eraikinaren estalkian, eta eraikin honetako energia- eta ur-kontsumo guztiak monitorizatzen dira.
- Sindikatu Zaharrean plaka fotovoltaiakoak jarri dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko gunea elikatzeke.
- Udaletxean autokontsumorako eguzki-panel fotovoltaiakoak jartzeko azterketa egin da eta instalazioa epe motzean egingo da.
- Karmelo Etxegarai ikastolan geotermia bidezko sistema instalatzeko azterketa egin da.

Udalerri mailan, aipagarria da energia berriztagarrien ekoizpenaren bilakaera, azken hamarkada honetan 52 kW/biztanle izatetik 170 kW/biztanle izatera pasa baita.

4/2019 Legea betetzeari dagokionez, dagoeneko erantzun zaie errekerimenduetako batzuei, hala nola eraikinen eta argiteria publikoko puntuen inbentarioari edo udal-eraikinen energia-ziurtagiriari lotutakoei; finkatutako beste gai batzuk epe laburrean jorratu beharko dira, adibidez, energia-jarduketako plana egitea (2016ko Energia Planaren iraunaldia 2020an amaitu zen eta berau berrikusteko beharra dago) edo Energia Iraunkorrerako Batzordeen sorrera, besteak beste.

Bestalde, aipatu beharrekoa da udalak beste sektoreekin ere elkarlanean ari dela esparru ezberdinetan energia-ereduaren aldaketa sustatuz, hala nola bizitegiekin, ikastetxeekin, merkataritza sektorearekin edo lehen sektorearekin, eskualdeko beste erakunde batzuen eskutik.


Lanketa hau 2015ean sortutako eskualdeko Energia Mahaiaren bitartez bideratzen da eta, orduz geroztik, proiektu batzuk urtez urte sendotzen doaz, hala nola, pobrezia energetiko egoeran bizi direnei zuzendutako programak edo Euronet 50/50 ekimena ikastetxeekin (2020/2021 ikasturtean eskualdeko 11 ikastetxe ari dira parte hartzen, horietatik 5 Azpeitikoak direlarik).

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua Udalaren idazkariak,



MUGIKORTASUNA

- Bidegorri kilometroak nabarmen igo dira azken hamarkadan, 3,09 km-tik 10,46 km-ra pasatuz 10.000 biztanleko (EAEko batez besteko datua 152,18 km/10.000 bizt).



Bidegorrien edo bizikleta-bideen sarea (km/10.000 bizt)
Iturria: Azpeitiko Udala

- Ibilgailu elektrikoen parkea oraindik oso baxua da, udalerri osoan soilik 0,46 ibilgailu elektriko daude 1.000 biztanleko (EAEko 0,70 ibilgailu elektriko/1.000 biztanle).

Gaur egungo udalerri ororen mugikortasun-ohituren ezaugarria automobilaren mendekotasuna da, nahiz eta Azpeitian 1.000 biztanleko ibilgailuen kopurua % 11 jaitsi den azken hamarkadan. Hala ere, berotegi efektuko gasen isurien emaitzak ikusita, garbi dago mugikortasunaren esparruan aldaketa garrantzitsuak egin behar direla gutxien kutsatzen duten mugikortasun moduak areagotzeko.

Kontuan hartu beharreko beste gai bat udalerriaren hiri-hedapena da; izan ere, etxebizitzaren eta lantokiaren, merkataritzaren eta abarren arteko distantziak areagotu egin dira kasu batzuetan, eta ibilgailu pribatuaren erabilera erraztu, beste mugikortasun-modu batzuen aldean.

Azken urteotan hainbat ekintza egin dira mugikortasun-eredu iraunkorrako baterantz aurrera egiteko: Motorrik gabeko mugikortasuna sustatzearen esparruan, bereziki espazio publikoa egokitzeko lan egin oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna errazteko neurriak hartuz. Zentzu honetan, bai oinezkoen ibilbide sarea bai bidegorri sarea biak osatze bidean direla esan daiteke (Urrestillako bidegorriaren II. Fasea egiten ari da).

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Garraio publikoaren sustapenari dagokionez, Urola Erdiko Mugikortasun Planaren bidez (2005-2006) eskualdeko eta eskualdetik kanpoko herrigune nagusienetarako (Azkoitia, Zestoa, Zumarraga, Eibar/ Ermua, Errezil, Tolosa eta Donostiarako) garraio publiko zerbitzua hobetu dela ere esan daiteke. Eta, horrekin batera, landa-auzoetarako garraio publiko zerbitzua auzo-taxi baten bidez abian jartzea beste aurrerapauso aipagarria da.

Bestalde, espazio publikoaren irisgarritasuna ere eutsi zaio Irisgarritasun Plan berriarekin, zeina mugikortasun murriztua duten pertsonen iritzia jasoz egin den.

Mugikortasunaren esparruan hobekuntzak eman direla ikusten da eta bide horretatik jarraitzeko, plangintza eguneratu bat egingo da 2021 urtean zehar, indarrean dagoena nahiko zaharkituta baitago. Lehenengo pausu bezala egungo egoeraren diagnostiko bat egingo da, egungo ahulezi nagusiak non dauden hobeto ezagutu eta konpontzeko neurriak identifikatzeko.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua, Udalaren idazkariak,






HONDAKINAK ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

- Hondakinen sorrera-tasa 1,02 kg/bizt/egun izan da 2019an, 2002tik izandako kopururik txikiena eta EAEko batez besteko datua baino baxuagoa (1,18 kg/bizt/egun).


Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorkuntza, biztanle bakoitzeko (kg/bizt/egun)



Iturria: Azpeitiko Udala eta Urola Erdiko Mankomunitatea

- Gaikako bilketaren tasaren bilakaerari dagokionez, bilketa-sistema desberdinei lotutako bi aldiri buruz hitz egin daiteke. Lehenengo aldia 2002tik 2017aren amaierara artekoa da, non gaikako bilketaren tasa % 12,7tik % 46,8ra igaro baitzen; eta bigarren aldia azken bi urteetako da, eta igoera nabarmena izan du, % 71,1ekoa, EAEko batez bestekoa baino askoz handiagoa, % 52,71 ingurukoa.

Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketaren tasa (%)





Iturria: Azpeitiko Udala eta Urola Erdiko Mankomunitatea

Hondakinak prebenitzea da hondakinen esparruan erronka nagusia. Hondakinen sorrera murriztea eta hondakinen arriskugarritasuna minimizatzea funtsezko gaiak dira hondakinen ingurumen-inpaktua murrizteko. Ildo horretan, hondakinen hierarkiak hondakinak kudeatzeko lehentasunak ezartzen ditu: prebentzioa, berrerabiltzea, birziklatzea, balorizatzea eta ezabatzea.

Horri dagokionez, Udalak azken urteetan egindako jarduera nabarmenenak aurkezten dira jarraian. Horien ondorioz, hondakinen sorrera-tasa 1,02 kg/bizt/urte izan da, azken bi hamarkadetako baliorik txikiena:

- Auzokonposta: 17 gune daude eta sortu zirenetik martxan daude.
- Bigarren eskuko produktuen eta bidezko merkataritza azoka zabaltzea eta sendotzea: azoka izatetik denda iraunkorra izatera pasa da, Elkar-Ekin herriko taldearen eskutik.
- Tokiko elikagai eta elikagai ekologikoen kontsumoaren sustapena: Elikagune proiektua martxan jarri da, Urkome, baserritarrak eta Udalaren elkarlanarekin. 150 km inguruan sortutako jakiak saltzen dira bertan.
- Sentikortze kanpaina eta jarduera ezberdinak herritar orori zein herritar sektore zehatzei zuzenduta.

Bestalde, COVID-19ari lotutako osasun-larrialdiaren egungo testuingurua ingurumenean inplikazioak izaten ari da, eta eragin zuzena du plastikoen erabileraren ondoriozko inpaktuan, pandemia hasi zenetik ugaritu egin baita.

Plastikoaren inguruko problematika, produktu gisa, baina bereziki hondakin gisa, hondakinen estrategietan jorratu beharreko ardatz nagusietako bat bihurtu da, esparru globaletik tokiko esparruraino. Azpeitiko Plan berriak kontuan hartu beharko luke gai hori, eta neurri egokiak hartu beharko lituzke plastikoen erabilera (batez ere erabilera bakarrekoea) murrizteko eta bere birziklagarritasuna hobetzeko.

Hartu beharreko bidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/904 (EB) Zuzentarauak, zenbait plastikozko produktuk ingurumenean duten eragina murrizteari buruzkoak, markatzen du. Zuzentarauak hainbat betebeharrak eta egutegi ezartzen ditu erabilera bakarrekoko plastikozko produktu-mota desberdinentzat: kontsumoa murriztea, merkatuari sartzeko murrizketak, produktuaren osakerari aplikatu dakizkiokeen betekizunak, ekoizleari hedatutako erantzukizuna eta kontzientziakizuna.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, 2017an hondakinen bilketarako sistema berria ezarri zen eta, horrekin batera, gaikako bilketa tasa nabarmen hobetu da, 2109an %71,1 izan zelarik. Sistema honek jarraian zehazten diren ezaugarriak ditu:

- **INDUSTRIA:** eskualdeko industrietatik sortzen dituzten hondakinen inguruko azterketaren emaitzak oinarritzat hartuz, atez ateko bilketa sistema diseinatu da eta abian zen. Bost frakzio ezberdin jasotzen dira: kartoia, egurra, errefusa, inguratzaileak eta gainontzeko plastikoa. Organikoa eta ontzi arinak edukiontzi irekien bitartez jasotzen dira.
- **MERKATARITZA:** saltokiak sor ditzaketen hondakinen eta sortzen duten hondakin kantitatearen arabera sailkatu dira. Sailkapen honen arabera sortzaile batzuei hondakinak atez-ate jasotzen zaizkie.

Azpeitia

Denontzat

- HERRITARRAK: Hondakin organikoak eta errefusa jasotzeko edukiontzi itxiak jarri dira, txartel baten bitartez ireki ahal direnak. Gainontzeko frakzioen bilketa edukiontzi irekien bitartez egiten da.
- LANDA EREMUA: ekarpen guñeak jarri dira.

Sistema berria ezartzearekin batera, hainbat sentsibilizazio ekimenak egin dira, baita bestelako jarduerak ere, hala nola, herrian antolatzen diren festa ezberdinetan hondakinen kudeaketa iraunkorra bideratzea edo eraikuntza hondakinen kudeaketaren inguruko lanketa.

Bestalde, 2016an Lapatzeko zabortegia itxi zen eta, oraindik berau zigilatzeke lanek aurrera jarraitzen dute. Garrantzitsua da honen gaineko kontrolarekin jarraitzea ingurumen arazorik sor ez dadin. Gainera, azpiegitura aldatu da eta gaur egun hondakin ez arriskutsuen kudeatzailea bihurtu da, hondakin ez arriskutsuak eta obra txikietako hondakinak bertan kudeatzen direlarik.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren “2030 Plan Estrategikoa” dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua.
Udalaren idazkariak,



IRAKURKETA



GILTZARRI ESTRATEGIKOAK

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,



Udalak lan-ibilbide sendoa eta ezagutza tekniko zabala du ingurumen-alderdiei lotutako hainbat ildotan, eta emaitza positiboak lortu ditu, bereziki energiaren eta hondakinen arloetan:

1. Energiaren arloan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:
 - Kontsumo energetikoen kontrola sistematizatuta dago, eta hileroko egiten da horien jarraipena. Horren osagarri, emaitza orokorrak jasotzen dituen urteko txosten bat egiten da.
 - Autokontsumoa errazten duen lege-esparru berria.
 - 4/2019 Legea zorrotza da errekerimenduei eta epeei dagokienez, eta beste bultzada bat emango dio trantsizio energetikoari.
 - Bi lan-maila osagarri (tokiko/eskualdeko eskala), beste sektore batzuetan eskualdeko beste udalerri batzuekin koordinatuta esku hartzea errazten dutenak (merkataritza-sektorea, lehen sektorea, ikastetxeak, etab.).
2. Klima-aldaketari modu integralean heltzeko hurrengo urteetarako funtsezko erronkaren aurrean:
 - 2011-2018 aldirako udalerri osoko eta udaleko berotegi-efektuko gasen isuriei buruzko informazioa dago (serie zabal bat, bilakaera aztertzeko eta ondorio interesgarriak ateratzeko aukera ematen duena), bai eta udalerriak klima-mehatxu desberdinen aurrean duen kalteberatasunari eta arriskuari buruzko emaitzei buruzkoa ere.
 - Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea funtsezkoa izango da klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ekintza integrala bultzatzeko.
 - Ihobetik eta EEEtik baliabideak sortzen ari dira udalerriei klima- eta energia-planak egiten laguntzeko, abiapuntu desberdinak kontuan hartuta.
3. Mugikortasun iraunkorraren esparruan, egungo beharrei erantzuteko palanka nagusia Mugikortasun Iraunkorreko Plana izango da, eta datozen hilabeteetan egingo da.
4. Hondakinen eta ekonomia zirkularraren esparruan, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:
 - Hondakinak sortzeko balioek bilakaera positiboa izan dute, eta beheranzko joera finkatu egin da.

Azpeitia

Denontzat

- Hondakinak biltzeko sistema berria ezarrita dago, eta emaitza positiboak ematen ari da gaikako bilketaren tasari dagokionez.
- Oro har, prebentzioarekin eta hondakinen kudeaketa zuzenarekin lotutako kontzientziazioa eta sentsibilizazioa areagotzen ari direla uste da.
- Lan-ildo interesgarri bat ireki da, Iraurgi Berritzen-ek bultzatua, eskualdeko enpresen balio-kate nagusietan (makineria eta ekipoak, eraldaketa metalmekanikoa, altzariak, eraikuntza eta elikadura) ekonomia zirkularrari lotutako berrikuntza-aukerak identifikatu, aztertu eta garatu ahal izateko".



GUNE KRITIKOAK

- 4/2019 Legea, alde batetik, palanka estrategikotzat hartu da, ahalegin gehigarriak bultzatuko dituelako, nahiz eta helburuak oso handiak diren eta horiek lortzeko epeak oso doituak.
 - Zailtasun nagusia sorkuntza berriztagarriaren helburua betetzea izango da (2030ean tokiko administrazioaren kontsumoaren % 32ko edo gehiagoko ekoizpen berriztagarria izatea).
 - Horretaz gain, lege honen eskakizun guztiei erantzuna emateko beharrezko baliabide ekonomikoak eskuratzea zailtasun bezala identifikatzen da.
- Klima-aldaketa egokitzeari aurrera pausuak egiten jarraitzeko beharra somatzen da.
 - Ziurgabetasun handia eragiten duen gaia denez, beharrezkotzat jotzen da aurretiazko lan bat egitea, udalari eragiten dioten arrisku nagusiak barruan eta kanpoan ezagutarazteko, eta arrisku horiek gutxitzeko nola esku har daitekeen azaltzeko.
 - Honekin lotuta, egokitzapenarekin lotutako gai zehatz batzuen inguruan formazioaren beharra aintzat hartu beharko litzateke.
- Udalerriko natura-guneak kudeatzeko eta horietan esku hartzeko eskumena hainbat administrazioen artean banatuta dago, eta horrek zaildu egiten du babeserako neurri zehatzak hartzea.
- Bilbo eta Gasteiz norabideranzko garraio publikoaren kudeaketa udalaz gaindiko eskumeneko gaia dela kontuan hartuta, ez da erraza zerbitzuaren hobekuntzak lortzea.
- Pandemiak ondorio negatiboak izan ditu hondakinen sorreran, bereziki erabilera bakarreko ontzi arinen eta hondakin plastikoen frakzioan, eta agerian utzi du plastikoak prebenitzeko eta berrerabiltzeko politiken ahultasuna.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalaren "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalaren idazkariak,





PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO ERRONKAK

Udalerriko ingurumen-alderdiekin eta klima-aldaketarekin lotutako zenbait erronka planteatzen dira:

1.- **Klima-aldaketa arintzeari eta horretara egokitzeari modu integralean ekitea**

Eremu horretan, indarrean dagoen arau-esparruak ezartzen ditu erronkak, eta, **isurien arintze-arloan**, 4/2019 Legearen eta 254/2020 Dekretuaren eskakizunen bidez zehazten dira nagusiki; horien arabera, honako hauek beharrezkotzat jotzen dira:

- Udal-ekipamenduetan eskaria murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko egiten ari diren ekintzak sendotzea eta indartzea, udalaren kontsumoa %35 murrizteko helburura hurbiltzeko.
- Sorkuntza berriztagarria nabarmen handitzea eta udal-ekipamenduetan autokontsumoa bultzatzea, 2030ean tokiko administrazioaren kontsumoaren %32ko edo gehiagoko ekoizpen berriztagarria izateko helbururantz aurrera egiteko.

Gainera, 4/2019 Legeak beste eskakizun oso zehatz batzuk eta betetze-egutegi bat ezartzen ditu, eta horri erantzun beharko zaio.

Udalaz gain, energia eredu berri bateranzko bidean herritarrekin, ikastetxeekin eta udalerriko beste sektoreekin lanean jarraitzea ezinbestekotzat jotzen da.

Zentzu honetan, Estatuko legegintza-esparru berriak herritarrek aldi berean energia-ekoizle eta -kontsumitzaile (ingelesez, prosumer izenarekin ezagutzen dena) izateko formula berriak bultzatzen ditu, tokiko energia-komunitateak hain zuzen. Formula hauek, oraindik gutxi zabaltzen diren arren, ahalmen handikoak direla esan daiteke, herritarren ahalduntzea sustatzea eta pobrezia energetikoa ekiditeaz gain, energia berriztagarriekin lotutako enpresa eta ekintzailetza ekimen berriak bultzatzen dituztelako.

Egokitzapenaren esparruan, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren etorkizuneko Legeak zehaztutako arlo horretako eskakizunak. Hala ere, garrantzitsutzat jotzen diren gai batzuk aipa daitezke:

- Udalerriko arrisku nagusiak aztertzea eta horien eragina arintzeko neurri egokiak hartzea.
- Hirigunea berdatzea sustatzea, naturan oinarritutako konponbideak sartuz, kostu txikiko neurriak, zeinen multifuntzionaltasuna eta baterako onurak frogatuta baitaude.
- Saneamendu sare iraunkorrak (SUD) sustatu.
- Klima-aldaketara egokitzeko irizpideak pixkanaka txertatzea udal-plangintzan eta, zeharka, beste politika sektorial batzuetan (adibidez, pertsona kalteberen arretan)
- Udalerriko natura-guneen babesa (horretarako lizarraitzen lurren erosketa bultzatu daiteke) herribideen mantenua (egurra ateratze-lanen erregulazioa) eta landatzen diren espezieen kontrola hobetzea (HAPOaren bidez gai horren erregulazioa baloratzea).



- Udalerriko basoen kudeaketa naturala sustatzea.
- Balio natural handiko eremuetatik ibilbide didaktikoak sustatzea.
- Bioaniztasuna sustatzeko laguntza-lerroak abian jartzea.
- Hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa hobetzeko lanekin jarraitzea (klima aldaketaren eszenatokiak aintzat hartuta).

2.- **Mugikortasun iraunkorrago baterantz aurrera egitea**

Ibilgailu pribatuan mugitzeko beharrak murriztuko dituzten eta motorrik gabeko moduak eta garraio publiko kolektiboa bultzatuko dituzten mugikortasun modu jasangarrietarantz aurrera egitea. Hori guztia kolektibo behartsuenen behar espezifikoak kontuan hartzen dituen eta genero-ikuspegia txertatzen duen ikuspegi integral batetik. Horretarako, datozen hilabeteetan Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarriarako Plan berria egingo da. Plan horrek honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Motorizatu gabeko joan-etorriak erraztea, lehenik eta behin, oinezkoen mugikortasuna sustatuz (hiri-eremu osoan oinezkoen iragazkortasuna hobetzea).
- Bizikleta-sare seguru eta funtzional baten artikulazioan aurrera egitea, oinezkoentzako eta oinezkoentzako bizikidetza-espazioei arreta berezia eskainiz.
- Ikastetxeetarako mugikortasun seguruko plan bat egitea.
- Mugikortasun elektrikoko eredu berriak txertatzea (bizikletak, patineteak, etab.).
- Garraio azpiegituren eta zerbitzu publikoaren eskaintza hobetzea.
- Udalerriko salgaien banaketak eragindako inpaktua minimizatzea (ordu-tarteak egokitzea, aparkalekua arautzea, etab.).
- Mugikortasun iraunkorra industrialdeetara (hiri-eremuaren plangintza, irisgarritasuna, garraio-politika espezifikoak, etab.).
- Udalerriko egungo trafikoa hobetzea (aparkalekuaren kudeaketa, zirkulazioaren kudeaketa, 30. guneak egokitzea, bide-segurtasuna hobetzea, etab.).
- Ibilgailu-parkea pixkanaka elektrifikatzen laguntzea, kargatzeko puntuak instalatuz.

3.- **Ekonomia zirkularraren printzipioei jarraitzen dien hondakinen politika**

Ekonomia Zirkularrak paradigma-aldaketa bat planteatzen du gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduan, ibilbide lineal batetik – Produzitu, erabili eta bota – Ibilbide zirkular batera pasatuz, non hondakina baliabide bihurtzen baita ekoizpen-zikloan berriz sartzeko. Gogoeta horri dagokionez, hondakinen arloko erronka nagusiak aurkeztuko ditugu jarraian, esku hartzeko hiru ardatzen inguruan egituratuta:

Hondakinen prebentzioa:

- Hondakinen sorrera prebenitzeko ekintzak indartzea.
- Udalerrian eta udalean bertan erabilera bakarreko plastikoak murriztera bideratutako lan-ildo bat abiaraztea.
- Erosketak eta kontsumo arduratsua eta tokikoa sustatzeko ekintzekin jarraitzea.
- Erreparazioa eta berrerabilpena sustatzeko ekintzei jarraipena ematea, tokiko elkarte eta eragileekin lankidetzan.
- Elikagaiak alferrik galtzearen arazoari heltzea, intzidentzia aztertuz eta ibilbide-orri bat ezarri esparru

hori udalerriko hainbat sektorekin lantzeko.

Hondakinen kudeaketa:

- Gaikako bilketa hobetzen jarraitzea.
- Hondakinen birziklagarritasuna hobetzen laguntzea.
- Zerbitzuaren kalitatea eta gardentasuna bermatzea eta kudeaketa-eredu berritzaileetarako aurrera egitea.
- Hondakinen sorkuntzaren araberako zabor-tasa aldakorraren alde lan egitea

Ondasunen eta zerbitzuen diseinua, ekoizpena eta eskaintza:

- Hondakin gutxi sortzen dituzten ondasun eta zerbitzuen eskaintza babestea.
- Kontratazio publikoaren bidez, ondasun eta zerbitzu berrerabilgarrien eta/edo birziklagarrien ekoizpena bultzatzen laguntzea.

4.- Ingurumena eta klima aldaketaren inguruko sentsibilizazioa

Azken urteotan asko aurreratu da ingurumen-sentsibilizazioari dagokionez, eta horren erakusgarri dira, adibidez, hondakinen arloan lortutako emaitzak. Hala ere, klima-aldaketaren arazoaren larritasuna eta gizateriak aurre egin behar dien erronkak kontuan hartuta, funtsezkotzat jotzen da arlo horretako sentsibilizazio-ekintzak are gehiago zorroztea. Horretarako, hartzaile ezberdinei zuzendutako sentsibilizazio programa bateratua osatzea proposatzen da, jarraian zehazten diren lan-arloei buruzkoa:

- Klima-aldaketa: isuriak arintzeko eta inpaktuei egokitzeko neurriak
- Trantsizio energetikoa (etxeak, ikastetxeak, enpresak, etab.)
- Ekonomia zirkularra (plastikoak, elikagaiak xahutzea, kudeaketa, etab.)
- Bioaniztasunaren babesa
- Etab.

Eginbidea: Jasota gera dadin agiri hau Udalararen "2030 Plan Estrategikoa" dokumentuari dagokiola Udalbatzak 2021eko maiatzaren 4an onartua. Udalararen idazkariak,

